

ITZULPEN ETA TERMINOLOGIAZKO ALDIZKARIA

senez

ANDU LERTXUNDIREKIN SOLASEAN
ITZULPENAREN HISTORIRAKO APUNTEAK
POESIA ITZULI



1

zenbakia

8 urtea

1992

OHARRA

Azken orduko arazoengatik, Agustín
García Calvoren artikuluan adierazi
gabe geratu da artikularen itzulpena
SIGLO XXI argitaletxearen
baimenarekin argitaratzen dela.

Senez

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

13

**VIII urtea
1 zenbakia**

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, derrigor, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin

E.I.Z.I.E



«Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria»

Azala: LAURA ESTEVE

ISBN: 84-7086-287-1

Legezko gordailua: S.S. 45/93

Inprimaketa: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz

Senez

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

Erredakzio Batzordea:

Zuzendaria:

Koldo Biguri

Batzordekideak:

Juan Garzia

Bego Montorio

Xabier Mendiguren

Andoni Sarriegi

Beatriz Zabalondo

Maketa eta konposizioa:

Arantzazu Royo

Helbidea:

EIZIE

Etxague jenerala, 6

DONOSTIA

Telefonoa: 42 91 66

E.I.Z.I.E

Aurkibidea

Ale honetan	9
Gaiak	
Andu Lertxundirekin itzulpengintzaren jiran <i>Juan Garzia</i>	13
Itzulpen historia baterako apunteak <i>Agustín García Calvo (Itzulpena: L. Auzmendi)</i>	27
Itzulpenera hurbiltzea (I). Zenbait errejeta <i>Karlos del Olmo</i>	69
Poesia itzuli <i>Pello Zabaleta</i>	87
Itzulpena Nafarroako Gobernuan eta Parlamentuan <i>Nafarroako Gobernuko eta Nafar Parlamentuko</i> <i>itzultzaileak</i>	113
Puntuz puntu	
Espainiako Itzulpen eta Interpretaritzaren estatutu profesionala	125
Terminologi lana. Bideak zabaltzen <i>Araceli Diaz de Lezana</i>	133
Itzulpengintza Masterra. Planifikazio baten beharra <i>Mikel Garmendia</i>	151
Deustuko Postgraduko Itzulpen Masterra <i>R. Perez, J. Abaitua, X. Kaltzakorta</i>	155
Euskara ikasten. <i>Iñaki Zubizarreta</i>	161
Literatur itzulpenezko mintegia. <i>Aintzane Ibarzabal</i> ...	165
Beti mirariak egiten. <i>Koldo Biguri</i>	169
KLASIKOAK, euskal hizkuntza eta kulturaren zutabe.	175
Pushkin itzultzaile. <i>Ivan Igartua</i>	181
Iruzkinak	
Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea .	189
Bibliografia	203

Berri eta albiste

Manu Lopezen <i>Aliceren</i> itzulpena IBByn	215
Premio Nacional de Traducción 1992	217
Literatur itzulpena graduondoko irakasgai Belgikan.....	219
EIZIE CEATL-en onartua izango da	221

Ale honetan

SENEZ aldizkaria 1992. urtetik aurrera urtekari bihurtu da, edo hori da, behintzat, gure asmoa; hala ere, horrek ez du esan nahi inoiz zenbaki berezirik plazaratu ezingo denik, aurreko urtean Donostian, Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroen barruan, EIZIEK antolatutako mintegiko azterlanak eta ondorioak jaso zituen zenbakiaren antzera. Aro berri honen lehen emaitza da hau, emaitza joria eta, aldizkaria egiten dugunon ustez, interesgarria.

Zenbaki honetako gai nagusien artean, eta itzulpenari buruz zenbait pertsonarekin elkarrizketak egiteko burubideari jarraituz, Juan Garziak Andu Lertxundi idazleari eginikoa eskaintzen dugu; honetan, euskal idazle baten ikuspegia ematen dugu, eta itzultzaileentzat bezala idazleentzat ere interesgarria izan daiteke, euskal letren mundu txiki honetan batzu eta besteen artean dagoen etena salatzen delako. Literatur euskararen inguruko zenbait gogoeta mamitsu ere aurkituko ditu bertan irakurleak, berarentzat ere hausnargai pizgarri izan daitezkeenak.

Ondoren datorrena, Agustín García Calvo irakasle eta itzultzaileak 1973. urtean argitaratu zuen itzulpenaren historiari buruzko artikulua luze bezain aberats bat dugu, euskarara itzulia; euskal itzultzaileentzat ere oinarrizko irakurgai teorikoen arteko bat izan behar duelakoan ematen dugu argitara, ikusirik, gainera, ia ezinezkoa dela erdarazko jatorrizkoa aurkitzea gaur egun.

Ondoko bi artikulua, aldiz, praktikoagoak dira. Lehenengoan, Peter Newmark traduktologoaren irakaspenei buruzko iruzkina eginez, itzultzailearentzako «errezeta» batzuk ematen dira —artikulua- ren izenburuan bertan jasotzen denez—, adibide ugarirekin. Bigarrenak, ordea, poesi itzulpena du ardatz eta gogoetagai, eta euskal poeta eta itzultzaile batek EIZIEk antolatutako mintegi baterako prestatu zuen lana da, adibidez ederki hornitua berau ere.

Hasierako gaiak ixteko, Nafarroako erakunde politiko batzuetan —Gobernuan eta Parlamentuan— egiten den itzulpenaren berri ematen da, estraineko aldiz SENEZen. Askoz planteiamendu pragmatikoagoa hartzen dute, beraz, artikulugileek.

«Puntu puntu» deritzan atalean, bestalde, aipagarria da bertan jasotzen den Espainiako itzulpen eta interpretaritzaren estatutu profesionalaren proiektua, lanbide honetan aritzen garenok aspaldidanik eskatutakoa. Terminologiari ere atetxo bat ireki diogu zenbaki honetan, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak eta UZEIk alor honetako ikerketak bateratu eta koordinatzeko asmoz izenpetu duten hitzmenaren ondorioz egiten ari diren lan praktikoaren berri emanez. Hauetaz gainera, azken urteotan Euskal herriko eta Deustuko unibertsitateek antolatu dituzten itzulpen masterrei buruzko hausnarketak batzuk ere ematen dira, bakoitza bere egilearen ikuspegitik, jakina. Zalantzarik ez dago, eritziak gehiago eta ezberdinak izango dira, eta esan gabe doa, aldizkari honek atsegin handiz jasoko ditu beste-lakoak ere.

Gainerako artikuluen artean, EIZIE elkartearen beraren inguruko zenbait notizia eskaitzen dira; garrantzitsuena, ezbairik gabe, 1993. urtean Europako Literatur itzultzaile Elkartearen Kontseiluan onartua izango dela.

Hortaz, irakurleak aurkituko du, bai, seguru gaude, jakingai eta ikasgai interesgarriak SENEZen zenbaki honetan.

GAIK

Anjel Lertxundirekin itzulpengintzaren jiran

Elkarrizketatzaile: Juan Garzia Garmendia

– SENEZen literatur-itzultzaile eta idazleekin egiten dihardugun elkarrizketa sortaren barnean zuregana jo genuenean, komentatu zenuen aspaldian kezkatuak zenbiltzala itzulpengintzaren inguruko gorabeheraz, eta lantzen ari zirela halako diagnostiko moduko bat edo...

Kezka, bai, eta hura agertu nahi nuen: alegia, ez ote garen egiten ari bi konpartimentu estanko edo, idazleen produkzioaren eta itzultzaileenaren artean; korrespondentzia gutxi ikusten dut bien lanen artean. Izan ere, somatzen dut zenbait itzulpenetan lantzen ari diren alderdi batzuk, topikeriari buruz eta erregistro zenbaiti buruz, eta abar, horietan lortzen ari diren elementuak, gero kreazio lanetan normalean ez direla agertu ere egiten. Eta orduan horrek bide ematen dit pentsatzeko agian idazleok ez garela oraindik konturatu azken hamar urteetan itzulpengintzan nola aurreratu den. Korrespondentzia horren faltaz eta elkarrizketa horren faltaz, neure ideiak azaldu baino gehiago neure kezka plazaratu.

Egia da orain dela hamar urte itzulpengintza nahikoa desprestigiata egon zela, beharbada presaka egin behar izaten zelako, eta zerbitzu merkantil bati erantzunez, eta egon zela halako ideia bat,

freskotasunarena; alegia, irakurleak, eta kasu honetan eskolumeak, galdu egiten zuela freskotasan hori itzulpenak irakurtzen zituenean, eta jasangaitzak egiten zitzaizkiela eta abar. Eta, orduan, gertatu zena izan zen itzulpen kaxkar batzuek sortzen zuten efektuak sortu zuela ondoren horren inguruan teoria bat ere, deskonpentsazio bat balego bezala edo. Uste dut bost urtetan, edo zortzi urtetan, erabat aldatu dela egoera hura, batez ere helduen literaturari dagokionean —neure zalantzak ditut haur literaturari dagokionean, lehen bezalatsu ez ote dabiltzan gauzak.

— *Zure azalpenean bi arlo desberdin bereiziko nituzke: alde bate-tik, literaturari dagokiona, eta bestetik, testu pragmatikoena, salata-zen duzun eskizofrenia moduko horren lekukorik garbiena; hain zu-zen, eskolan erabiltzen diren testu gehienak itzuliak edo egokituak edo dira... Gero, aipatu gabe geratzen zaigu alderantzizko itzulpe-narena, euskararakoa, alegia, batez ere literaturarena noski, ezen horretaz ere bazenuke zer esanik...*

Oso bitxia da nola itzulpenaren fideltasunaren historia guzti hori sortzen den, hain xuxen ere, Jaungoikoarenganako fideltasunagatik, Haren hitzarenganako fideltasunagatik: sakralizazioa; jatorrizko aho-tsa sakratua da, eta jatorrizko hitza sakratua den neurrian, fideltasuna gorde behar da, fideltasun ezak desbidera dezakeelako erabat mezua; izan ere, sortzen diren herexia gehienak sortzen dira, hain xuxen ere, fidelak ez diren interpretazio batzuegatik. Beraz, eremu sakratu bati lotua dago fideltasuna; eta kasu honetan, jatorrizko testua da, Jaun-goikoaren Hitza izan edo autore jakin baten hitza izan... (*barrez*) zera, demiurgoarena, autore demiurgoarena...

— *Lehenago haritik tiraka, hala ere, irudika dezagun eskolako egoera: bestelako testuen eta literatur testuen arteko pasabide hori nola gertatzen den edo... Zuk baduzu-eta esperientzarik irakaskin-tzan.*

Hasieran aipatu dudana haur literaturari zegokion, ez eskolako bestelako testuei. Zeren hor badago beste irizpide bat, desberdina: funtzionaltasunarena. Eta funtzionaltasun horren arabera, azken-azke-

nean, edukin batzuen transmisioa, eta transmisio horretan hizkuntza bitarteko huts edo den joera bat. Dударik ez dago hizkuntzaren korrekzioak eta abar, askoz garrantzi handiagoa duela jatorrizko testu batekiko atxikimenduak baino, batez ere didaktiko hutsak izan nahi duten liburuetan. Nik uste dut halakoetan itzulpen funtzionalago batek ez duela batere kalterik egiten... gero, badagoela literaturaren alderditik, gauza bat inoiz egin ez dena euskaraz —eta bestetan ere ez, askotan—: literatur obren egokipen lana, alegia; eta egokipena ez dela laburpen hutsa, eskatzen duela ezaugarri literario osoak menderatzea, eta egokitze lanean zer kendu eta zer jarri irizpide literario batzuen arabera moldatu behar dela, eta, baita ere, hori irakurri behar duen haurren arabera, jakina. Baina ezin dela faktore psikologiko eta heldutasun intelektualaren mailan bakarrik egin egokipena, elementu literarioen arabera ere egin behar dela, eta hori normalean ez dela egin.

—Bururatu zait, esan duzunaren ildotik, idazleen eta itzulpenaren artean planteatu duzun dibortzio hori horrela baldin bada, halako inpermeabilitatea gertatzen baldin bada, ez ote duen horrek eragin larriagorik eskolan: nola irakurriko dituzte itzulitako obrak eskolumeek, idazleek berek ere irakurtzen ez badituzte?... Nola bidera liteke eskolako euskara... ez dut adjetibatuko... horretatik literatur-bitarteko izateko duin den euskara batera?

Nik uste dut planteamentu faltsu bat dagoela, edo tentazioa behintzat. Erabat konpartimentu estankoak egiten baditugu, literatura alde batera utzi eta hizkuntzaren didaktika hutsera dedikatzen bagara, soil-soilik hizkuntzaren didaktikaren zerbitzuan jartzen badugu literatura, besterik gabe, dikotomia horrek berak errealitatea faltseatu egiten du. Normalizazio didaktikoaren bidetik, literatura ez da zerbait aparte dagoena, baizik hizkuntzaren desarroiloan bertan; erabat funtsezko elementua dugu literatura didaktikan. Gertatzen dena da, ordea, egiten den hautamena, alde batetik, itzulpena den aldetik beti jatorrizkoaren aldekoa dela, eta, berez, hautamen hori ez dago gaizki, baina, bestetik, zailtasun gutxien duten obrak hautatzen dira, eta horiek zera dira, lexiko aldetik pobreenak direnak, eta bai sin-

taxiaren aldetik eta bai erritmoaren aldetik, eta zenbait elementu literario nahiz gramatikal aldetik nahikoa eskas direnak; eta horietatik jartzen ditugu eredu. Eta ereduak imitatzeko da, noski. Eta, orduan, pobrezia ari gara imitatzeko eskaintzen.

Nik uste dut euskal idazlegoa, bere urritasunean, ezin dela erregistro guztietara ailegatu, ezin dela giro guztietara heldu, eta ezin dituela, ezta ere, genero guztiak behar bezala landu. Euskal literaturari beti tokatzen zaiola morroi ibiltzea. Esparru guztiak beteko baldin badira, itzulpengintzaren bidez izango da; normalizatuko bada nolabait literatura, itzulpengintzaren bidez normalizatuko da. Eta alor edo altxor orokor horretara iristeko bidea itzulpena baldin bada, ari gara originaltasunaren izenean bide guzti hori ixten; eta bide guzti hori, gainera, erdal literaturari uzten. Orduan, euskal literatura ematen denean, ezagutuko ditugu gure autoreak, baina ez dugu sekula santan izango aukera, adibidez, Melville edo Stendhal euskaraz ezagutzekoa; zeren hori, espainierazko literaturaren esparruan dago: nolabait, literatura unibertsala da literatura espainiar gure instituetan, eta euskal literatura, berriz, bakar-bakarrik gure autoreena. Euskal literaturan ikasi beharko lirateke mugimendu literario unibertsalak, literaturaren historia —ez euskal literaturarena bakarrik— eta han integratu beharko lirateke gainerako materiale guzti horiek, eta horrela izango genuke frantses literatura edo italiar literatura euskarenean bidetik ezagutzeko modua. Eta espainiar literaturan, berriz, espainierazkoak: Cervantes, noski, gazteleraz irakurri beharko lukete gure ikasleek. Baina Huxley bat, esate baterako, euskaraz ezagutu beharko genuke.

— *Nolabait, jatorriaren eta independentziaren izenean azkenean geure burua kondentzen ari garela «dialekto» izatera, ezta? Literarioki behintzat...*

Hori, hori... Bai, bai, bai... Hori.

— *Lehenago entzuten nion bati dialektoa dela literatura onik sortzeko modurik eskaintzen ez duen hizkuntza.*

Borgesena ez al da hori?

—*Itxura badu, baina nik ez diot Borgesi irakurri, baten bati aditu diot, eta susmatzen dut nori, baina badaezpada ere ez dugu izenik esango, hala ere, arriskutsua izaten da eta. Baina gutxi gorabehera zuk esan duzuna labur ilustra lezakeen esaldia ez al da? Azkenean, geu ari garela dialekto-komplexu hori zeratzen...*

Hor, egia da, baita ere, idazleen artean isuri diferentea nabarmen-tzen dela —ez, beharbada, beti—, itzulpengintzarekiko tratu serioa izan duen idazlearen eta izan ez duenaren artean. Oso baldar eta oso azkar esateko —jeneralizazioek duten arrisku guztiarekin—: liburu bat irakurtzen hasi euskaraz gaur, euskal idazle batena, eta esan dezaket nor aritua den itzulpenetan eta nor ez. Hori uste dut oso erraz nabarmen daitekeela. Orohar, behintzat.

—*Zehaztu zenezake zertan nabari den?...*

Bi idazle klase daude niretzako, oso garbi —eta idazle onen artean, noski, idazle txarrak alde batera utzita—: esan nahi dutena eta esaten dutena sarri bide desberdinetatik doazenak —eta irakurleak eduki behar du abileziarik aski jakiteko halako autoreak badakit hau esan nahi duela, nahiz eta testuan ez duen esaten—; eta esaten dutena eta esan nahi dutena batera doazenak. Horrek zer esan nahi du? Batzuegan zehaztasuna dagoela, eta tresnarekiko, hizkuntzarekiko, fideltasun zorrotz bat, eta beste batzuegan ez dagoela zer hori... edo tresna menderatzen ez delako behar bezala, edo tresnarekiko ez dagoelako halako begirune handirik.

—*Eta zer iruditzen zaizu: trebetasunaren baitan dagoela hori, ala borondatearen baitan? Teoria batekin egiten dela kasuren batean, alegia, «hizkuntzak idatzi dezala»?*

Oso gauza bitxia da. Irakurtzen dituzu azken hamar urteetan euskal idazle jendeari egin zaizkion elkarrizketak eta abar, eta Literatura, maiuskulaz, eta halakoak darabiltza mundu guztiak ahotan; ez da tresnaz hitzegiten, ez eta tresna horrek dituen zailtasunez. Hori halako desprestigio batean erori da. Antiliterarioa dirudi. Bitxia da, ordea,

nola ez dagoen idazle handi bat, elkarrizketa egiten zaionean —beste hizkuntzetan, ez españolez ez frantsesez ez ingelesez—, bere obra bati buruz hitzegiterakoan, tresnaz hitzegiten ez duenik, eta tresna horrek joera literarioan zer eragin duen jorratzen ez duenik, hausnarketa hori eskaintzen ez duenik: erritmoaren aldetik, kontatzen duenaren eta kontatzeko moduaren arteko erlazioari buruz eta abar hitzegiten ez duen idazlerik ez dago. Gurean bakarrik gertatzen da hori.

– Horregatik aipatu dut hizkuntzari idazten uzten dion idazlearena, modu arruntegian ulertzeko arriskua baitago, ez dela, alegia, zehaztasun eta doitasun kontu hutsa, baizik eta hizkuntzari uzten omen dion hori ez dela azken finean bera espresatzen —nahiz hitz hauek ere handitxoak diren...—, hain zuzen, ez duela berak bideratzen kontua, idazten dituela hizkuntzak dakarzkionak...

Beste elementu bat ere badago dexente kezkatzen nauena: gure kultur hizkuntzak beste batzuk izanda —neurri handi batean—, konturatu gabe, etengabe garela itzultzaile. Eta hizkuntza bakar jakin batetik jeneralean. Eta orduan, bere hizkuntzan —literatur tresna duen hizkuntzan— idazten duenean, askotan erabat subkonszienteki bada ere, itzulpena egiten ari dela euskal idazlea.

– Hori teorikoki aberasgarri ere gerta liteke, gure egoeran, baldin eta beti hizkuntza bat eta bera ez balitz. Ezagutu, beste hizkuntzarik ere ezagutzen dugu, baina...

Bai, hizkuntza bakarretik, praktikan. Eta ezagutzen ditugun beste hizkuntzak ere oso esparru jakinekoak ditugu: erromanikoak...

– Nik uste dut dagoeneko onartzen dela euskaraz egiten ari garen gauza asko eta asko, formalki ez bada ere, itzulpena dela: komunikabideak, eta abar. Baina hala aitortu arren, gero ez da itzultzaile-itzultzailerik jartzen —ezta zuzentzailerik ere—, ez da jendea trebatzen itzulpengintzan... Eta ematen du jatorragoa dela, ezta?: «Bueno, gu euskara hutsean ari gaituk ytal»... Eta ematen du idazleen artean ere antzeko zerbait gertatzen dela...

Baina gero, ikustekoa da nolako nekeak eragiten dizkion euskal idazle bati narratzeko garaiko topikeria guztiak. Adibidez: «esan zuen», «adierazi zuen»... eta hortik irten ezina; ez berak eta ez euskal literaturak ere ez dituelako gehiegi garatu topikeria horiek. Non garatzen dira, non garatuko ditugu halakoak, eta non garatu da batez ere topikeria hori? Dударik ez dago: itzulpenetan. Eta hor bilatu behar dira; hor bilatzen ditut nik behintzat baliapide berriak...

– *Hori ez da noski euskaraz bakarrik gertatzen...*

Ez, ez. Denean, noski. Baina nik uste dut beste hizkuntzetan badagoela jario handiago bat eta badagoela klitxeak eskaintzen dituen bide zabal bat. Erdaraz, esan dezaket «dijo» edo «increpó» edo «manifestó»... edo momentu batean sargentu bat ari da hizketan eta esan dezake «ametralló»; eta nik ez dakit españolez inoiz erabili den, baina ez da ezertxo ere gertatzen, badagoelako klitxe bat eta orduan zilegi delako...

– *Bai, «plantillak» edo...*

Hori da. Baina gurean askoz urriago eta laburrago izaki plantilak, itzulpena izango da plantila horiek ugaltu eta zabaltzeko bide naturala. Eta idazleak ez luke asmabeharretan halako nekerik jasango, itzulpenei pixka bat gehiago begiratuko balie.

– *Beste kontu bat da hortik halako sistema bat osatuz joatea, ahalegin, lorpen edo berrikuntza horiek guztiak bateratzea, alegia, eta horretan ere —betiko madarikazioa dirudi— nahikoa panggal gabilta. Dispersio handi samarra ez al dago? Zuk aipatu dituzunetan eta bestetan; adibidez, «se encogió de hombros» eta antzekoetan, nolabait grafiko-izpiritual bataia genitzakeenetan... hori erdaraz ezin liteke bestela esan: hala behar du, eta kito. Eta justu horretan, esate baterako, nik esango nizkizuke sei bat modu diferente hori euskaraz adierazteko proposatu direnak... Zirkuitorik ez dagoela, alegia, edo ez aski indartsurik, halakoak bateratuko dituenik...*

Eta gero nik uste dut kontu handia eduki behar dela gauza guztio-kin beste arrazoi bategatik ere: gure kasuan oso denbora gutxian al-

datzen da errealitatea. Orain dela bost urte edo orain dela bi urte egindako obra batek sekulako eragina du, beste edozein hizkuntza normaldutan izan ez dezakeen eragina; txarrerako eta onerako. Oso gauza gutxik errealitate oso bat eraikitzen du gure artean, liburu bat aski delako, edo itzulpen bat, nolabait guztia iraultzeko eta gauza asko eta asko birplanteatzera behartzeko. Beraz, nik uste dut irizpide konkretu batzuetan eta gorabehera jakin batzuetan izan behar dugula... disziplinuak... soldadu espartanoak baino disziplinuagoak. Baina badirudi disziplina aipatze hutsa gaizki ikusia dagoela, eta ez bakarrik alderdi sozio-politikotik begiratuta, baizik batez ere literaturaren askatasunaren izenean. Nolabait hitz sakratu bilakatu dugulako askatasuna; baina nik uste dut oso arriskutsua dugula anarkia gorabehera guztiotan.

– Ikuspegi askotatik aski frogatua dirudi ez dagoela sormen alde-tik askatasunik, molderik ez badago; alegia, kaosak ez duela generatzen askatasuna, kaosa baizik...

Bai... Eta gero, kasu askotan, geurean nahikoa kaotikoak, geru-rearekin kaotiko, eta gero geu beste hizkuntza batean ari garenean, erabat disziplinuak. Hori ere etengabe ikusten dugun kontua da... nor bere burutik hasita... zergatik erabiltzen dira neurri desberdinak batean eta bestean?

– Tira, oraindik jorratzeke daukagu euskal obren itzulpenarena: bertsioen kontu hori, eta autorearen eskusartzea zenbaterainokoa izatea komeni den...

Bakoitzaren bideak bakoitzaren bide, beti dago tentazioa norberak obra bat egin eta burutu duenean, zera, hura hobetzen eta hobetzen eta hobetzen segitzeko, parada dagoen bakoitzean. Problema jatorrian dago: testu finkatua noiz finkatzen da? Hori bat, eta gero, testu finkatuarekiko fideltasuna noiz gordetzen da? Adibidez: nik publikatu dut ipuin bat euskaraz; publikatzen dut gero beste edozein hizkuntzatan, frantsesez, ingelesez edo italiano, eta itzultzerakoan nik edo beste itzultzaile batek eman dio sekulako plusbalia. Orduan, plusbalia horren arauera itzultzen dute beste hizkuntzetara, eta, zein

da nik ontzat ematen dudana? Zeren bat da erreferentzia, testu jakin bat finkatu da. Ala beste edozein hizkuntzatarara pasatzerakoan ere itzultzaile bakoitzari uzten zaio bere testua moldatzeko askatasun berdina? Momentu jakin batean testu bat finkatuta geratzen da; kontua da jakitea zein den finkatzen den testu hori.

—*Nik esango nuke komentatu dugun guztiaren ispiluko irudia dela hori. Azken finean, euskarazko itzulpenak eredu jasoagoa eta landuagoa badarabilte euskarazko sortze lanak baino —erdarazko itzulgaien araberakoa—, halako alde badago, euskarazkoak erdaraztean gero lotsa ematen digula: berriz ere dialektoaren eta paletoaren konplexuarekin abiatzen garela, ezta? Auzia, beraz, zera litzateke: edo konplexuari lotsagabe heltzen diogu adarretatik, alegia, garen bezala ateratzen gara... edo, bestela, ahalegina egin beharko genuke, ez bakarrik ez paleto azaltzeko, baizik ez izateko...*

Eta orduan horrek esan nahi du... zera, aurren-aurrenik ahalegina egin behar dela. Ez daukagula zertan paleto agerturik itzulpenetan, jatorrizko lana ondo egin baldin badugu. Kontua fideltasunarena da, bi zentzuetan, euskarara zein euskaratik itzultzean. Azken finean, horrek egingo dio mesede euskarari: besteena gureganatuz, alde batetik, eta bestetik, ez bakarrik den bezala isladatzen duelako egoera, baizik bigarren mailako efektu bat ere baduelako: behartuko gaituela xuxenago jokatzera euskarazko jatorrizko lanak moldatzeko garaian.

—*Berehala esango dizu baten batek azken finean elitista edo bihurtzen dela planteamendua, alegia, nahikoa lan badugula jendeak literatura irakur dezan, kontsumitzailearen aldetik, besterik gabe, mailari edo aberastasunari gehiegi begiratu gabe, eta gero hemen, hizkuntzarenean ere, ba, jo, aber zailtzea proposatzen duzun... Erreklamazio horien aurrean defentsarik baduzu?*

Bai... Bueno... Zera, zailtzea ez da noski helburua (*barre*); izatezkerotan ere, ondorio bat izango da. Baina gertatzen dena da, bide horretatik joaten ez bagara, orduan eta pobreakotuz eta baliapideak galduz eta espresibitate guztia galduz joango garela, gero eta gehiago. Nik esan dezakedana da gero eta desegokitze handiago bat bizi-

izen ari garelá, bai hizketarakoan eta bai idazterakoan, eta eusteko modu bakarra, rigorearen eta zehaztasunaren aldetik ikusten dudala. Eta, orduan, euskaraz idazterakoan beste hizkuntzetan ez bezalako erregistro bat erabiltzen badut, beste hizkuntzek zehaztasun handiago batera behartzen banaute, halako batean bueltako erreflexio bat egin beharko dut eta esan: bueno, ba, rigore bera planteatu beharko dut neurean ari naizenerako ere. Eta gauza berbera jasotzailearen aldetik, jasotzaileak ere, jario handiagoa duelako edo beste edozein arrazoiengatik, eskatzen dizkio beste hizkuntza bati euskarari eskatzen ez dizkionak.

– *Eta euskarari eskatzen dio beste hizkuntzei eskatzen ez diena, ezta?...*

Klaro, klaro, bere mailara egoki dadila. Eta, orduan, edo bizi gara sekulako hipokresia monumental baten barnean, denok hankak zikinduta... denok hankak lokatzetan ditugula eta, nola lokatzetan dauzkagun, ez dugu ikusten zikinduta dauzkagunik, edo... edo... (*irribarrez*) zezenari adarretatik.

– *Bazterretan entzuten da halako oreka bat komeni ote den... Ez dakit, ba: publikoaren diktaduratik literaturaren eskisitotasunaren aristokraziara, tarte horretan, bada ezer? Edo...*

Bai, nik uste dut badaudela... Badaudela, gero, idazle bakoitzaren joerak eta hautamenak. Bakoitzak egiten duen hautamen literarioaren arabera, badaudela emaitza desberdinak, baita itzulpengintzaren kasuan ere, berdin-berdin: dudarik ez dago oso desberdina dela Joyce itzultzea, edo Graham Greene itzultzea, eta horrek gero irakurlearen aldetik ere jarrera desberdinak eragingo dituela. Baina beldur naiz Graham Greene zehatz itzulita, eta fideltasun minimo batez itzulita, ez ote dizkigun arazo berdintsuak planteatzen. Orduan, ez dela hain xuxen Joyce ala Graham Greene, baizik eta auzia lehenagokoa dela, tresnaren beraren auzia dela. Horrek zer esan nahi du? Azkenean zer da itzuli behar duguna? Nik uste dut biak itzuli behar ditugula, eta ezin diogula irakurleari ukatu, irakurle klase bati ezin dio-

gula ukatu Joyce edo ezin diogula ukatu Graham Greene; baina nik uste dut biak itzulita ere, eztabidak berdin-berdin jarraituko lukeela: beste toki batean dagoelako eztabaida, hain xuxen.

– *Bai, bueno, gu ari garen bezala hemen tertulian, bai, baina kalean badirudi soziologiak agintzen duela, eta soziologia merkatuak markatzen duela... Bueno, gu beharbada, gure marginalean, kanpo gelditzen gara... bentajaren bat ere behar genuen...*

(*Barre txikiak sordinaz: hum, hum*) Bueno, soziologiak esaten du, eskolarizazioari esker eta abar, aurrera egin dugula... Aurrera egingo genuen kopuruan; baina nik uste dut atzerapauso izugarria eman dugula —eta soziologiari begiratuta, klaro, neurtzen askoz ere zailagoa da, baina— kalitatearen aldetik. Segun eta zeri begiratzen zaion. Errazarena eta zailarena, ikuspegi horretatik ere planteatu liteke.

– *Beste oreka bat, ala?*

Bai, beste oreka bat. Eta, klaro, orekak noski esan nahi du bi mutur zertu behar direla, bi muturren artean ibili behar dela. Orduan, zaila eta erraza... tira, ez da zuzenean literarioa den kontua, baina eztabaida liteke. Orain, zaila eta txarra, adibidez, bi kontu desberdin dira, nahiz batzuetan hemen nahastu nahi izaten diren. Bestetik, askotan azpimarkatu da errazak ez duela kalitatea ukatzen, eta egia da, noski, baina berdin esan beharko da errazak ez duela kalitatea garantizatzen... eta beste hainbeste zailari buruz... eta erraza edo zaila zer den ere, norentzat eta zergatik... Hor ere kontua, nik uste, fideltasunarena da, esan behar edo nahi denarekiko egokitasunarena, eta hor mila jokaera eta mila ñabardura daude.

– *Hortaz, ez zuri eta ez beltz, baizik grisen paleta, ezta?*

(*Barreari eutsiz*) Grisen paleta, ala paleta grisak?

– (*Biok barrez*) Tira, txapeldunak behintzat...

SINTESIS

Entrevista con Anjel Lertxundi sobre la traducción

Anjel Lertxundi es un conocido escritor en lengua vasca, que en esta ocasión, en tertulia con otro escritor y también traductor, Juan Garzia, hace una serie de reflexiones sobre la traducción en euskara.

La entrevista parte del temor de que en la actualidad parece existir una cierta división entre las producciones de los escritores y las de los traductores vascos, que ha llevado a los primeros a desconocer de alguna manera el progreso que en estos últimos años se ha registrado en la traducción al euskara de literatura principalmente para adultos.

En opinión de Anjel Lertxundi, debido a la situación de la lengua vasca, los escritores no pueden llegar a todos los registros del lenguaje, ni recrear todos los ambientes, ni tan siquiera tocar todos los géneros literarios, por lo que necesariamente deberá ser la traducción la que se encargue de llenar todas esas lagunas a las que no puede responder la literatura original en lengua vasca, de manera que la traducción servirá de instrumento de normalización de la propia literatura.

En la entrevista se menciona cómo en nuestro sistema educativo se recurre muy a menudo a obras literarias que, con la excusa de ofrecer un euskara más puro o más castizo, en realidad ofrecen un lenguaje excesivamente simple, y que en muchas ocasiones se propone como modelo lingüístico; debido a ello, las obras traducidas, que suelen presentar un nivel de lenguaje mucho más elaborado y complejo, no reciben la importancia que se merecen, por lo que renunciar a ella y a la aportación que puede realizar, lamentablemente llevará a que la literatura universal sólo pueda ser conocida por los lectores vascos a través fundamentalmente del castellano. Es por ello preciso otorgar a la traducción el lugar que se merece dentro de las letras vascas, visto que en muchos casos ha alcanzado un nivel que puede ser muy enriquecedor para la lengua literaria. De esta manera, es necesario que tanto escritores como traductores y también lectores reúnan esfuerzos para mejorar la expresividad y aumentar los recursos tanto lingüísticos como literarios del euskara.

SYNTHESIS

Interview with Anjel Lertxundi on translation

Anjel Lertxundi is a well-known writer in the Basque language who, on this occasion, in a conversation with another writer and also translator, Juan Garzia, makes a series of reflections on translations into Basque.

The interview begins with the fear that currently there seems to exist a certain divergence between the work of Basque writers and translators which has to lead to the former becoming more and more unaware of the progress which has been made during recent years in the translation into Basque of literature intended mainly for adults.

In Anjel Lertxundi's opinion, due to the situation of the Basque language, writers cannot handle all the resources of the language, re-create all settings, nor even make use of all the literary genres, and so the translation itself must take responsibility for filling all these gaps which the original work in the Basque language cannot cope with, in such a way translations will be used as a tool for standardizing literature itself.

During the interview, mention is made of how our education system often resorts to literary works which, in reality, with the excuse of offering a purer and more popular Basque, employ an excessively simple style and this, on many occasions, is proposed as a linguistic model. For this reason, translated works, which are often written in a much more elaborate and complex language, are not regarded with the importance they deserve, and so by disregarding these and the contribution they might make, this will lead, sadly, to a situation in which universal literature will be virtually inaccessible to Basque readers except through Spanish. In view of this, it is necessary to give translation the status it deserves within Basque letters, in view of the fact that in many cases it has reached a level which can be very enriching for literary language. In this way, it is necessary for both writers and translators, and readers too, to join forces to improve the expressiveness of the language and increase both the linguistic and literary resources of Basque.

Itzulpenaren historia baterako apunteak

Agustín García Calvo

Itzulpena: Lurdes Auzmendi

Agustín García Calvoren artikulu hau (Lalia. Ensayos de estudio lingüístico de la Sociedad, Siglo Veintiuno, Madrid, 1973), itzulpenaren fenomenuari buruzko erreflesio bat da. Latineko katedraduna eta Greziako klasiko batzuren itzultzailea izanik, itzulpenaren sorreraren kokapenari eta sorrera horren filosofiari buruzko gogoeta mamitsuak egiten ditu artikulu honetan.

Euskal itzultzaileok, halabeharrez, eguneroko itzulpen-hizkuntza arazoan artean buru-belarri sartuta gabiltza, eta lan horiekin lausoturik daukagun pentsamenduari ezin diogu atsedunik eman berezitasunetatik orokortasunerako eta alderantzizko bidaiak eginaz gure arazoentzat beste era bateko ateak irekitzen ahalegintzeko. Bidaiatxo horietako bat egiteko gonbita da ondorengo artikulu hau, hizkuntzaren, kulturaren eta itzulpenaren arteko lotura linguistiko-filosofiko batetik barrena murgiltzen gaituena. Artikuluan agertzen diren paradoxei, itzulpenaren teoria finko bat daukan eta itzultzaile trebea den baten itzulpenaren historiari buruzko artikulu hau itzultzearena gehitu behar zaie.



1. Gure munduari bikoteka eratzea gustatzen zaio: horietako bat Grezia/Erroma da, alde guztietan erabilia; beste bat, Hizkuntza/Kultura, kultur eztabaidetan eta kulturaren beraren osaketan ere arrakasta handikoa, elementu funtsezkoa izaten jarraitzen bait du bizi dugun Estatu osoari eusteko ('bizi' esatea askotxo da, baina justifikagarria, edozein bizitza posible gure izatearen materia baino ez bait da, eta gure izatea, hain zuzen, Estatuarena da). Beraz, arduraturik, baina idatzi honekin aipatutakoak bezalako antitesiak desmontatzen ahaleginduko gara.

2. Nolanahi, uste dut lan horren bihotzean sartzen naizela itzulpenaren gaiari ekitean. Eta horrekin hasteko, gauza bat egiaztatu behar da, gaur, gure munduan, itzulpena gauza erabat posibletzat jotzen dela, alegia (alde batera utziz bereziki poesia lirikoari eta beste fenomeno marginal batzuri dagozkien zenbait kexu eta zalantza atzeratu): halaxe da bai, egunero itzultzen dira ehundaka zientzia liburu eta baita literaturakoak ere, informazio agentziek hamaika hizkuntzetan zabaltzeko notiziak banatzen dituzte, biltzarre hizkuntzanitzak egiten dira aldibereko itzulpenaren bidez, aski da baliokidetzta linguistikoen zerranda luze bat iraupen luzeagoa edo motzagoa izango duten nazioarteko maitasunezko kontratu ugari finkatzeko, eta, nola liteke egiten den zerbait posible ez izatea?; nola izatez badena ez da izango bere posibilitatearen frogatza?

3. Orain urte batzuk baino indar gutxiagorekin bada ere, itzulpen mekanikoaren teknika bat ere prestatzen ari da, eta horretarako beharrezkoak eta lehenagokoak diren oinarriak sortzen dira (ez N. Chomskyren eskolaren gramatika teoriarik gabeak) unibertsal linguistiko eta hizkuntza guztientzat amankomunak diren estruktura eta arauen elementuei dagozkienak, hau da, giza Hizkuntzarenak direnak (errepikapena barne), elementu amankomunak erredukzioan, eta noski, zeinen pean egon beharko bait du edozein baliokidetzaren oinarriak.

4. Baina itzulpenaren posibilitate nabari honen aurrean, beste garai batzutan arazo hau planteatu zutenei sortu zitzaizkien zalantza han-

diak azaldu beharrean gaude. A. Borst-en *Der Turmbau von Babel* liburu handitik gauza pare bat ateratzen dut: VII mendean testu budisten txinerazko itzulpenak zuzendu nahi izan zituen Hüang-Tsang bidaiari txinoak pentsatzen zuen, «hitzak eta hizkuntzak ez direla balio berekoak, bai giroarengatik, bai ohiturarengatik» (azken zalantza honetan bide batez, lengoaiaren sorreraren izaera natural edo konbentzionalaren auzia azalduz, greziarren lehen erreflesio gramatikaletan piztua φύσει / θέσει eztabaidarekin, eta hain zuzen, giza-kiaren unibertsal linguistikoen —eta beraz berezkoen— kontzeptzioek beti behartzen gaituzte beste forma batzuen pean planteatzera). Eta Alejandro de Hales teologo ingelesak (XIII mendea) zioen, hizkuntza ezberdinetan ustez balio berdina duten hitzek soinu ezberdina izateaz gain, egiaz ez dutela gauza bera esan nahi: horrela, *Deus* ez da *Elohim*-en balio berekoa (azken hau, jakina den bezala, jatorriz hitz hebreoaren plurala da).

5. Gure artean, ordea, badirudi balio berdintasunaren arazoa ez dela ezta planteatu ere egiten, galdera egiteko modurik arruntena hau izaten bait da: «Nola esaten da hau zure hizkuntzan?», 'hau' hori modu askotan esateko beti hor dagoen segurtasunarekin. Horrela funtzionatzen dute guretzat «*Dios = God = Deus = Iddio = Got = (le bon) Dieu...*» moduko ekuazioek. Eta are modu perfektuagoan eta zalantzarik gabean «*desintegrazio nuklearra*» bezalako zerbait denean. Gauza bera formula kontsagratua daukaten esaldiekin: «*Maite zaitut = ich liebe dich = ia tebya lublú = je t'aime = I love you...*» Beraz ziur egon gaitezke gure ohizko hiztegiek ez digutela hutsegin-go «*itzulpena*» hitzaren beraren balio berekoak bilatzean: *traduzione, traduction, translation*, edo alemanez, ohizko purismo nazionalarekin, latinaren konposaketaren kalko semantikoa eginez, zuzenean mailegatu gabe: *übersetzung (= trans-positio)*.

6. Baina hala eta guztiz galdetu behar da, Mendebaldeko hizkuntzen hiztegiaren eta formulen arteko balio berdintasun hau (nahiz eta Mendebaldea ia den-dena izan, eta agian, hizkuntza batek Mendebaldeko beste hizkuntzekin dauzkan balio berdintasunen hiztegia sortzeko daukan gaitasuna izan, hain zuzen, bere mendebaldetasuna,

gaurko munduan bere sarrera adierazten duena), balio berdintasun hori ote den beraz hizkuntza ezberdinen arteko itzulpena egiaz posible delako frogatzen eta teologo ingelesaren edo bidaiari txinoaren zalantzek ez ote duten funtsik. Edozein zientzian, baieztapen bat frogatzerakoan esperimentu bat eskaini eta susmatzen bada esperimentu horren objektua *ad hoc* prestatuta dagoela frogarako, frogak ez du inolako baliorik izango; halako ekintza bat egiteko eginda ez dagoenean bakarrik frogatu ahalko du ekintzak posibilitate teorikoa.

7. Alabaina, aztertzen ari garen kasuan, ia segurua da arazoa ez dela hizkuntzen arteko itzulpena egin ote daitekeen ala ez, baizik eta guk (hau da, Mendebaldeko) hizkuntzen beraien barneko operazio bezala egin dugula. Beste eremu edo garai batzuetako edozein hizkuntzarekin topo egin duen edonor berehala ohartu da gure hizkuntza guztiek, $\chi\omicron\upsilon\eta$ antzeko zerbait edo hizkuntza amankomuna osatzen dutela, eta hizkuntzak eredu edo patroiz amankomunera egokitzen diren neurrian gertatzen direla balio berekoak eta itzulgarriak beraien esamoldeak eta hitzak.

8. Mendebaldeko hizkuntza askorentzat amankomuna den hizkuntzaren fenomeno bitxi hau, dudarik gabe (nahiz eta hemen ez garen geratuko formazio horren historian, eta esan behar da hasi baino ez dela egin), mendeetan zehar Ertaroko Latinaren funtzionamentuan oinarritua dago, hau da, nazio guztientzat amankomuna zen kulturaren hizkuntzan eta hizkuntza bizen (hau da, praktikoa edo arrunt) erabilerei gainjarritakoan (edo txertatutakoan), nahiz hizkuntzak latinoak, germanikoak edo beste mota batekoak izan; baina beti kontutan eduki behar da, errusierari eta beste hizkuntza eslabo batzuri dagokienez Ertaroko Latinaren papera lehen mendeetan Greziera Bizantinoak bete zuela; jarraian, halere, gehitu behar da bi kultur hizkuntzen arteko bikoiztasuna erlatiboa baino ez dela (gai honetara itzuliko gara berriz estudio honetan), eta gutxi gora-behera nazio errusoa sortu zen garaitik $\chi\omicron\upsilon\eta$ linguistikokoaren formazioa bateratuz joan dela mendebaldeko herrialde guztietan.

9. Egia da, gure hizkuntzen komunitate linguistikoko horretaz esaten ari garen guztia, ezer baino gehiago, kultur hizkuntzari, hizkun-

tza 'idatziari' dagokiola: halaxe da, balio berdintasunak eta itzulgarritasunak inolako arazorik gabe funtzionatzen dute zientzia liburuei eta baita literatura mota erabilienei dagokienean (zinemako elkarrizketak barne), eta baita egunkariei eta oratoria politikoari dagokienean; oraindik sarritan zailtasunak sortzen dira eguneroko hizkuntzak direnean, bereziki erabilera afektibo edo umorezkoetan, eta baita neurri batean artean erabilera lirikoa edo dramatikoa denean. Ertaroko Latina hitzegiten ziren hizkuntzetatik egiaz ezberdina izan eta eskolaren bidez bakarrik ikas zitekeen garaitik, bi geruza linguistikoaren arteko aldea etengabe ezabatzen joan da; ohitura erretoriko nazionalak ohizkoa eta serioa den literaturatik desagertzen diren aldi berean, hizkuntza hitzeginak kultur hizkuntzaren, eta kultismoaren modulo edo klitxeetara gero eta sakonkiago egokitzen sortzen da bateratzea; Ertaro berantiarrean aldiz hitzeginen zipriztinen erara sartuz nabarmentzen zen, gaur ordea estruktura gramatikal eta fonemikoak ere egokitzen dira; horrela, hizkuntza hitzeginak eta idatzia nahastu egiten dira bizitza eta bizitzaren kultura nahasten diren martxa berean; eta Luhan irakasleak nolabait iragarritako unibertsoa, zeinetan liburuen aroa gaindituta bait dago eta entzumenezko kulturaren atmosfera antzeko zerbaitek mundua inguratzen bait du, posible izan liteke baldin eta hortik aterako litzatekeen hizkuntza hitzegin horren pean idatziaren kultismo zama guztia geratuko balitz.

10. Baina hemen batez ere ikusi nahi duguna zera da: $\chi\omicron\upsilon\nu\eta$ linguistikoarekin batera, beste hizkuntzek hizkuntza ezberdin bezala irauten dutela, eta egoera hori dela hizkuntzen arteko itzulgarritasuna egiteko aukera eman eta aldi berean itzulgarritasun hori ezartzen duena, eta horretarako sinestarazten du (eta maila honetan egia da) badagoela hizkuntza ezberdinen pean sustantzia semantiko eta sintaktiko bat, eta hizkuntza horiek horren estalki eta manifestazio ezberdinak baino ez direla.

11. Baina ahalegindu gaitzen egoera horretatik Literatura Latinoaren hasieren garaian Erroman nagusitzen zen egoerara, Literatura Helenistiko osoa (lehen Literatura, zentzurik zehatzenean) loratu, Erroma Italiatik kanpora hedatu, Kartago menperatu eta Greziaren

inbasioaren garaira atzera egiten, hau da, gutxi gora behera III mendearen amaiera eta K.a.-ko II mendearen hasierara itzultzen. Garbi dago alor horretan hitzaren zentzu modernoan itzulpena deitu daitezkeen praktikak aurkitzen direla, Plauto eta Terentzioren Komedia Paliata osoa Atenasko Komedia Berriaren aleen itzulpena bait da. Baina praktika hori han hain berria eta gutxi finkatua izango da, non latinez ez bait dugu gure itzulpenari erantzun diezaiokkeen hitzik apenas aurkitzen.

12. Plautoren komedien hitzaurreetako bitan (bata agian apokrifoa) grekeratik latinerako bere bertsioaren aipamena azaltzen da *uortit* (= *uertit* klasikoa) aditzarekin: *Maccus uortit barbare* eta «*Makok barbarora itzuli zuen*» edo «barbaro hizkuntzan» bezala itzuliko genuke. Baina ez *uertere* aditza, ezta *reddere* edo *interpretari* edo beste aditz batzuk ere ez dute zehazki izendatzen itzulpen ekintza guk ulertzen dugun eran, ez jada Plautoren garaian, ezta latin zahararren beste edozein garaitan ere (*traductio*, *translatio* bezalako kultismo modernoek ertaroko formak erreproduzitzen bait dituzte, hain zuzen itzulpenaren kontzeptua finkatzen zenekoa eta horrentzat hitz zehatzak garatzen zirenekoa): hain zuzen itzulpenaren eta beste ihar-duera sozial edo literarioen arteko bereizketa, testu ilunen interpretazioa (*interpretatio*) edo imitazioa (*imitatio*, *aemulatio*), ez ohi da garbi azaldu; Terentziok edo geroago Zizeronek berak egiten dute dudarik gabe literaturen iraulketa, literatur itzulpena, baina ez dira konturatzen egiten dutena eta beste batzuk egiten dutena ezberdina denik: adibidez Estesikorok errezitazio epikoa kantu koraletara pasatzean (grekeraren barruan, nahiz eta genero bereizketak bi dialekto poetiko ezberdin esan nahi izan) egiten duen operazioa, edo Libiok aurreko analistek, grekeraz nahiz latinez idatziz jadanik kontatutako gertakizunak berriro errepikatzean (*retractat*) egiten duena, aurreko historiak historia berri batera murriztuz.

13. Eta antzinako Greziara itzultzen bagara, garai helenistikoaren aurrekora alegia, are gutxiago aurkitzen da gure itzulpen kontzeptuari erantzuten dion ezer: Tuzididesen lanetan agertzen da (IV, 50) μεταγράφεισθαι hitza, ἐξ Ἰσσυρίων γραμμάτων «hitz asirioetatik»

eginiko gutun baten bertsioa aipatzean; beraz hor garbi dago itzulpen operazioa ez dela karaktereen transkripzioetik urruntzen (*transcribere* litzateke aditz greziarraren itzulpen literal latinoan). Herodotoren lanetan behin baino gehiagotan aurkitzen dugu ἐρμηνεύειν hitza, bai hizkuntza ezberdineko jendearen arteko mezuak transmititzen ziztuzten bai ieroglifiko egipzioen zentzua esplikatzeko zuten interpretarien edo trutzimanen iharduera adierazteko; baina aditz horrek (latinez bere baliokide arrunta *interpretari* litzateke) normalean, ilun dagoena (orakulo baten formula enigmatikoa deszifratu, testu zail bati glosak jarri) interpretatzeko edo argitzeko edozein modurentzat balio du. Eta grekera inperialean jada, adibidez Luzianoren lanetan (*Quomodo historia conscribitur*, 21) oraindik μεταγράφειν aditza aurkitzen badugu, hain zuzen izen propio erromanoak grekerara itzuli' nahian ari den historialari bati buruz hitzegitean da. Egia esan, literatura greziar guztia errepara dezakegu, bai kontserbatua eta baita galduaz dauzkagun notiziak ere, III menderarte, atzerriko hizkuntzen itzulpena deitu daitekeen ezer ere aurkitu gabe.

14. Eta gabezia hori, ordea, arraroa iruditu beharko litzaziguke, hizkuntza 'orientaldun' bizilagunez inguraturik bizi bait ziren greziarrak; haiek iraganeko mende askotako idazkera zeukaten, dokumentu, kontakizun epiko eta nolabait idatzi literario ugari zeuzkaten, eta horiek greziarren jakinmina piztu zezaketen, baina ez hori bakarrik, oraindik behar bezala ulertu ezin ditzakegun bideak medio, hain zuzen ohituren formazioan eragin zuten eta beraz baita poesia greziarrean ere, nabaria den bezala eta azken hamarkada hauetan *Odissea* edo *Teogonia* hesiodikoa bezalako obrentzat agerian jarri den bezala.

15. Beraz, gabezia hori, falta zena hizkuntzen arteko itzulpen kontzeptua bera izanez bakarrik uler daiteke. Baina nola aldi berean falta daiteke hizkuntzen arteko itzulpena?, hori bakarrik uler daiteke, —ez ahaztu itzulpena gauza arrunta den mundu batean haziak garela— pentsatzen badugu orduan falta zirenak itzuliak izateko hizkuntzak zirela, hizkuntz aniztasuna falta zen beraz. Bada, hauxe da hain zuzen itxuraz greziarren artean gertatzen zena.

16. Guk, gure eskola ohituran eta era berean beste hizkuntzekin analogia eginez, hizkuntza bat antzinako grekeratzat jotzen dugunean, ez dugu bakarrik ahazten alde batetik garai helenistikorarte dialekto hitzegin multzo bat eta bestetik genero poetikoetarako beste bat zeudela (grekera bezala irakasten dena IV mendearen lehen erdiko prosisten atikoa da, gero klasiko bezala geratuko zirena), baizik bestetik ahazten dugu greziarrentzat Greziako hizkuntzak baino ez zeudelako, grekeraz hitzegitearen barruan sartzen zirenak, eta beraz 'hitzegitea' berez 'grekeraz hitzegitea' bezala zen, gainontzekoa moteltasuna zen, βαρβαρίζειν, barbaroz hitzegitea, modu desegokian hitzegitea bakarrik dei zitekeena.

17. Zehaztu behar da Homerorengan oposizioa ez zela artean itxuraz hain itxia, γλώσσα 'hizkuntza' metafora azaltzen bait da (bere entzuleentzat dudarik gabe izaera metaforikoa bait zeukan) alor akeoko herri ezberdinen hizkeren ugaltasunaz hitzegitean (ἄλλη δ' ὄλλων γλώσσα, «bata batzuren hizkuntza, bestea besteena»), eta baita beste alorrekoen ugaltasunaz hitzegitean ere, Priamori laguntzera etorritakoez hitzegitean, alegia, troiarrek (hots, frigiarrak), lizioek, traziarrak, etabarrek, dudarik gabe greziarrentzat ezezagunak ziren hizkuntzak bait zeuzkaten; baina ez da ahaztu behar beren gizonek etengabe hitzegiten dutela eta beste alorrekoekin interpretari premiarik gabe ulertzen direla; baina hori ez da horrela gerran, poesian baizik, hemen pertsonaia bezala hartzean, derrigorrez hitzeginarazi behar zien eta horretarako noski beren hizkuntza eman zaie, epopieiako heroien-a, jainkoena beraiena bezalaxe, Greziako dialekto epikoa.

18. Nolanahi, V-IV mendeen atikoaren eremuan ikusten dugu γλώσσα hitza hizkera bitxi, ezohizko, anormalen espresioak aipatzeko bakarrik erabiltzen dela (hemendik sortuko ziren lehen hiztegiak, glosario edo hitz arraroen eta beraien baliokide normalaren zerrenden osaketaren bidez, gaur egun *glosa* bezala deitzen direnak), eta ez dago atiko bakar batean beste hitzik guk «hizkuntza» edo «hizkuntzak» bezala deitzen duguna izendatzeko. Beraz, ἐλληνίζειν ez da 'grekeraz hitzegitea', 'ongi hitzegitea' baizik, 'hitzegitea' bere zentzu osoan. Oraindik, beozioen edo espartanoen hizkeraz komen-

tario farregarriak egingo dituzte atenastarrek, eta Aristofanesez bere komedietan parodiatu egingo ditu; baina hemendik haruntzago dagoen guztia, eta barbaroekin nolabait komunikatzen ziren arren (interpretarien bidez, eta horiek, noski grekeraren barruan zeuden barbaroak ziren eta ez alderantziz), guzti hori gizatasunetik beretik at dago, haurtxoen hitzak edo animalien orroak bezala; berez hitzegitea deitzen denetik ateratzen den guztia gauza bakar batean nahasten da, aurre-hizkuntza edo hitzegiteko ahalegin antzeko zerbait agian; atzerriko hizkerak beraien atzerritasun propioaren arabera bereizten bait dira, tximinoaren deiadar ezartikulatuaren berdin-berdina, Poeren ipuinean bezala; eta hor dago argiboen korua, Kasandra troiarraren deitorea entzutean (Eskiloren tragedian azkenik grekeraz hitzegin baino egin ezin duena, ordea), txorien txorrotzioekin konparatzen dituen.

19. Oharpen hauen aurrean, greziarren nazionalismo *avant la lettre* antzeko zerbaitean edo itsukeria abertzale batean berehala pentsatzen duena oker handi batean eroriko litzateke, eta horri, puntu honetan erantzun nahi diot. Ikuspegi historizistaren betiko bizioa da, dauzkan kontzeptuak nahi eta nahi ez historian sartzea, teorikoki historia beraren kanpoko edo aurreko bezala aldarrikatzen dituen munduari aplikatzeko. Horregatik, gai honi dagokionez, 'hizkuntza' (nazionala) edo 'nazio' kontzeptuen inposaketak arazo osoa faltsifikatzen du; aldiz, esan beharrean gaude, 'greziarrentzat' ez zegoela ez itzulpenik ez hizkuntzarik, edo grekera baino beste hizkuntzarik esateak adierazi nahi du 'errealki' eta ez ideologikoki, ez zegoela ez itzulpenik ez hizkuntzarik; eta hain zuzen giza hizkuntza edo kultur hizkuntza bat baino ez zenean, ez zela ezta bat ere, hizkuntza edo kultura bezalako gauzak falta zirelako. Antzinakoaren eta gaurkoaren artean nola edo hala parekotasun bat ezarri nahiko bagenu, antzinako grekera ezin konparatuko litzateke gaurko edozein hizkuntzarekin, baizik, izatez gero, mendebaldeko hizkuntzen multzoarekin konparatu beharko litzateke, zeinaren komunitateaz hitzegiten gorago hasi bait gara, eta analogia hori bi gauzen arteko harreman genetikokoaren erabat berdina da, hau da, grekera bere egoeran gurean

Mendebaldeko hizkuntzen $\chi\omega\nu\eta$ -arekin konparagarria bada, hori, hau haren bilakaera den neurrian izango da, aurrerago garatzen aha-legenduko garen bezala.

20. Egia esan, K.a. III mendearekin gauza bat gertatzen da, idatzi barbaroak grekerara itzulita ez egotea bat-batean harrigarria gertatzen dela, jada hizkuntzak eta itzulpena badaudela jakitea guretzat harrigarria izan daitekeen bezala, hain zuzen egoera aldatu dela adierazten digularik horrek. Harridura horren lekukotasuna *Aristeasen Epistolan* aurkitzen dugu, Hirurogeitamarren itzulpenaren aurkezpen antzekoan, aurrerago aipatuko dugunean, non kontaktzen bait zaigu nola erregeak, Pentateukoaren grekerazko bertsioa irakurri ondoren hau esaten dion Demetriori: «Hain gai garrantzitsuak dauzkan konposaketa bat edukita, nola ez da ahalegindu orain arte historialari edo poeta bakar bat ere gogoetaren bat egitera?», eta hark erantzuten dio: «Legearen erredazioa gauza sakratua ($\sigma\epsilon\mu\nu\eta\nu$) eta Jainkoak sortua delako»; eta kontaktzen dio nola Teopompo historiagileak (III mendeko lehen hamarkadetan hila) ezin izan zuen lan hori burutu gaisotasun bategatik, eta nola Teodektes tragikoa (garai berean hila, Alejandroren kondizipulua) ahalegin berdinagatik itsutasunarekin zigortua izan zen.

21. Demetriok testu honetan ematen duen esplikazioa, alegia debeku erlijiosoagatik ez zela egin (eta gainera gehitu behar da grekerara ez zela itzuli ez Biblia, ez liburu barbaro bakar batik) gure azterketarako egokia da: azken finean Jainkoak debekatzen bait zuen, jainko hebreoaren zentzuan, hau da Historiaren jainkoak bereziki, Historiaren Legeari berari zitzaion menpetasunak, mundu jakin batean mundu horrekin konpatiblea ez zena sortzea galerazita zeukana; aldiz orain, mundu helenistikoan sortarazten zuen, hau da, bere zirkunstantzia berezian, gertaera eta zirkunstantzia arteko bereizketa —nahiko desegokia— egitearren, hau ikuspegi historizistaren ezau-garria delarik.

22. Beraz, zerbait aldatu da modu erabakiorrean K.a. III mendearen erdialdera aztertzen ari garen fenomenoaren agertzeko. Aldaketa

horrekin lotuta jarri beharrean gaude (baina inolako kausa-efektu loturarik finkatu gabe) grekeraren alorrean gizon barbaro asko eta garrantzitsuak sartzea, hau da, grekera ez beste hizkuntza bat ama hizkuntza bezala zeukatenak; sarrera hori zabalik zegoen batez ere IV mendean Isokratesek zehazki aldarrikatu zuenetik griegoa izatea ez zela baldintza natural bat arraza edo jatorriaren araberakoa, baizik παιδεία-ren baitan zegoela, guk kultura deitzen dugunaren antzeko zerbaiten baitan. Horrela, Txipren jaio eta seguraski ama hizkuntza fenizioa zuen Zenon Estoikoari dagokionez, Pohlenz-ek modu egokian nabaritu arazi du baldintza linguistiko horretatik aterako zuela hain zuzen Gramatikarekiko bere interes berezia, nolabait berak sortu bait zuen, hizkuntzaren estruktura eta hitzen funtzioari buruzko estudioa bereziki bideratutako aparteko zientzia bezala.

23. Eta bestetik, printze mazedonioak dauzkagu: Alejandro I Joku Olinpikoetan helena bezala onartua izan zenetik, Mazedonia izatez erdi greziarra zela nabariagoa zen, eta orain Filipok bere seme Alejandro (zeinen ama hizkuntza ez bait zen grekera, nahiz eta mazedonia grekeraren auzokoa izan, baina ez bere dialektotzat jotzeko modukoa, ez behintzat latina bera izan zitekeena baino gehiago) Pelan hezitzen jartzen du lurralde barbaroan finkatutako Estagira kolonia greziarretik ateratako irakasle batekin, Aristotelesek hain zuzen, eta litekeena da hau ere haurtzarorik elebiduna izatea.

24. Baina testuinguru honetan elebitasunaz hitzegitea, oraindik finkatu ezin dugun bikoiztasun bat berriro egitea da: Alejandro Handiak edo «Aristotelesek berak» grekera ikasi behar izateak ez du esan nahi munduan, οἰκονόμην lurrean, sartu zirela besterik, giza hizkuntzan eta kulturarenean sartu zirela, estudio honetan desmontatzen jarraituko dugun beste bikoiztasun bateko hitzegiteko era ez zehatzarekin esanda. Egia da barbaro multzo handia mundu helenoaren barruan sartzeko prozesu horrek eta mundu gizatiar hori ordena desberdineko eremu geografiko batean Alejandroren konkisten bidez hedatzeak derrigorrez ekarri behar duela hizkuntza berdina eta sinplifikatu bat, hizkuntza ofizial bat, χολήhelenistikoa, barbaroentzako grekera bat, zeinetara egokitu beharko bait dira epe motzean sustrai

zaharreko griegoak ere (Teokritoren XV. idilioko sirakusar emakumeak bezala).

25. Hizkuntza-kulturaren hedapen eta berdintze hori aurre baldintza bat izatea grekera hizkuntzen artean hizkuntza bat izatera pasatu eta itzulpena posible izan zedin, ez da bat-batean azaltzen den gauza, guztiz alderantziz baizik. Prozesu horrek berekin eraman behar du derrigorrez bere kontrarioa eta osagarria: Nordenek garai haiei zegokienez bere *Agnostos Theós*-en esaten zuen moduaren antzera, «garbi ikusi behar da ekialdekoaren helenizazioa gutxienez konpentsaturik dagoela helenikoaren orientalizazioarekin»; horrela hemen formulatu dezakegu baita griegoaren batasuna barbaroaren dibertsifikazioaren lagunkidea izan behar dela, hurrengo zentzuan hain zuzen: hizkuntza-kultura batez ere bere kanpokaldearentzat eskuragarria egiteak kanpokalde horretan ugaltzeko joera piztuko balu bezala; arte lanekin erreproduzio munduan gertatzen denaz W. Benjaminek zorrozki egin duen azterketan bezala, tinkoa bihurtzen dena, eta beraz profanoarentzat ulergarria dena, bere materiatic bereiztu eta infinitoki biderkatzen da materia ezberdinetan.

26. Mugimendu honek bi forma osagarri eta kontrajarri har ditzake: A) batean, grekera asimilatu duten eta beraz grekerara asimilatuak izan diren barbaroek uste dute grekeraz adierazi ditzaketela beren jatorrizko hizkuntzetan formulatuta zeuden gauzak. Horrela aurkitzen gara Beroso edo Maneton bezalako idazleekin, guregana iritsi denaren arabera, grezierazko liburuetan idatzi zituztenak beren jatorrizko herrien, fenizio edo kaldeoen mito eta ohiturak. Baina hori itzulpena izatetik urruti dago oraindik, eta ez dakigu zenbat hurbilduko ziren hori izatera zenbait eskuliburu praktikoren grekerazko bertsioak, batez ere Magon kartagotarraren nekazaritzakoa, zeini buruz garai honetarako hitzegiten bait zaigu. Eta Cheches (Tzetzes) filologo bizantinoak Plautori egindako ohar batean, Parsons-ek bere *The alexandrian library*, 109 or. liburu ederrean jaso eta komentatuan, esaten zaigun arren nola Ptolomeo Filadelfok Alejandriako biblioteka osatzean «liburuak herri eta hizkuntza guztietakoak ziren, eta erregeak itzuli arazi egiten zituen ahalik eta hobekien zainduz

bere hizkuntza propioan interpretari onen bidez», adierazmoldeek beraiek susmatu arazten digute lanaren imaginazio guztia, garai bizantinorako arruntak ziren kontzeptuen bitartez ikusia dagoela, 'itzuli' eta 'hizkuntzak' bezalako bidez (ikusita nola grekerari 'bere hizkuntza propioa' deitura bitxia ematen zaion). Baina, hain zuzen urte horietan azaltzen zaigu inolako zalantzarik gabe itzulpenaren fenomeno, ezagutzen dugun lehen egiazko itzulpenarekin.

27. Lehen itzulpen hori Bibliarena da, edo zehazkiago esanda Pentateukoko liburuena (geroago beste liburuak gehituko zitzaizkierarik) Alejandriako komunitateko (garai haietan erbesteko komunitate judurik dizdiratsuen dudarik gabe) Hirurogeitamarrena izenarekin ezagutzen den bertsioa, griego judu talde batek egin. Baina, agian, irakurleak egiazkoa ez dela pentsa dezakeenez (ikuspegi historikotik onargarria ez, alegia) gertakizun hain *ben trovato* bat, grekerara itzuli zen lehen liburua (eta beraz, besterik gabe lehen itzulpena) juduen liburu bat izatea hain zuzen, historiari buruz inolako espekulaziorik egin duen susmorik gabeko pertsona batek egindako baieztapena eskaintzen dut, Pauly-Wissowaren *Real Enciclopedia* LXX-en bertsioari buruzko artikulua ederraren Hutsch-ena hain zuzen: «Denbora historikoan egin den itzulpen ahaleginik zaharrena da», autoreak hemen «denbora historiko» adierazpen bitxiarekin azaltzen duen salbuespenak eduki dezakeen zentzua alde batera utziz.

28. Hirurogeitamarren itzulpenaren ezaugarria, hitzaren zentzu modernoan egiazko itzulpena izatea da, hau da, liburu judaikoetako gaiak Greziako ohitura linguistiko eta literarioetara egokitzetik edo parafraseatzetik urrutien dagoena; aldiz, hitzez hitzezko itzulpena da, gure artean esan ohi den bezala: hebraieraren puntuazio zeinu bakoitzari (esaldi amaiera edo inflesio bakoitzari), grekeraren bat dagokio leku berean, eta hitz hebreo bakoitzari (semantema), salbuespen gutxi eta esplikagarri batzutan izan ezik, hitz griego bat. Ez du garrantzi handirik itzulpen biblikoaren izaera griego berezia aipatzeak; aipatu daiteke zentzu batean grekera semitizatua dela, hitz batzuen balio semantiko eta eraiketa sintaktikoen aukeraketagatik, grekeran arraroak izan arren, hebraierazkoak literalki adieraziko lituzkete-

lako; edonola, Deissmannek adierazi zuen bezala, arazorik gabe kokatzen da χουνή helenistikoaren barruan, zeina orohar lengoaia malgua eta barbarismo eta solezismo guztientzat irekiagoa bait zen, jatorri ezberdinekoa eta askotan grekera bigarren hizkuntza bezala zeukaten jende askok erabilia izateak horrelakoa izatera behartzen zuelako. Garrantzitsua da, testua irakurgarria zela nazio helenistikoetako griegoentzat, eta aldi berean testu hebreoko liburuak eta esaldiak egiatan erreproduzitzen zituela.

29. Eta hain zuzen horrelako produktu linguistiko baten agerpena izan zen garai hartakoentzat beraiantzat hain berria eta harrigarria gertatu zena, eta miraritzat jo zuten. Horrela, Filonek, geroago (K.o. I mendearen erdialdera) horri buruzko notiziarik interesgarrienak ematen dizkigu, itzulpen horren ekintzari προφητεύειν deitzen dio, itzultzen oso zaila den aditzarekin (προφήτης-tik eratorria: 'profeta') 'orakuloko ahotsean aldarrikatzea', 'jainkotasunaren eraginaren pean hitzegitea', San Pablok Korintioei epistoletan erabiltzen duen bera, kristau fededunen bilkura komunitarioetan sortzen zen ahozko manifestazio berezia behin eta berriz aipatzerakoan; hona hemen Filonen testua (*De uita Moisis*, II, 7): «Jainkotasunak hartuta bezala (ἐνθουσιῶντες), ahots inspiratuan aldarrikatzen zuten (προεφήτευσον), ez batzuek batzuk eta besteek besteak, baizik guztiek hitz eta orazio berdinak (ὁνόματα καὶ ῥήματα)». Eta aurrerago, testu beraren bi bertsioren parekotasuna goraiapatuz, gehitzen du, grekera eta kaldeoa (hebraiera, alegia) ulertzen dituen edonork «Ahizpa bezala, eta are gehiago, bat eta bera bezala antzemango ditu»; eta horrela, konparatzen dituztenak «Harrituta geratzen dira, gizon haiek ez interpretaritzat (ἐρμηνέας), baizik misterioen (ἱεροφάντας) errebelatzaile eta profetatzat (προφήτας) joaz».

30. Baina batez ikustarazi nahi dugu itzulpen leial baten agerpenak, testu «berbera» hizkuntza ezberdinetan erreproduzitzeko aukerak alegia, bi adierazpen linguistikoren pean egongo zen gauza berean sinestea zekarrela berarekin, hau da, esanahi abstraitu, hipostasiatu, egindako bat badagoela sinesten dela. Horretarako, ez dago ezer garbiagorik Filonen testu berdineko pasarte hau baino, non esa-


ten bait zaigu «Bakar batean bat egin zuten hitz propioek hitz propioekin, helenikoek kaldaikoekin, haiek adierazten edo esaten zituzten (δηλουρένοις) ekintzekin erabateko adostasunean». Geroago, Hirurogeitamarren itzulpenaren inguruan gero iraungo zuen ahozko tradizioan, guzti hau leienda batean bilduko zen, alegia hirurogeitamar interpretariak banakako zeldetan itxi zituztela, eta ozenki beraien bertsoiak irakur zituzaten kanpora atera zituztenean, letraz letra denak bat zetozela.

31. Horrela sortu zen Hirurogeitamarren inguruan itzulpen posibilearen mitoa, Babelgo dorreko hizkuntz aniztasunaren mito zaharraren mito osagarria eta antitetikoa (juduen honen antzera, kristauek, urte beretsuetan sortua ere, duten Mendekostearenean baino argiagoa). Mito historikoa da, horrela deitu badaiteke, historia abiatzen den une mitikoaren parean: pertsonen arteko komunikazio eza, lengoia amankomunaren ezintasuna, prozesu historikoaren oinarrian bertan dagoena, amaitzeaz eta errendizio egoera lortzeaz dago hizkuntzen arteko itzulpenaren etorrerarekin, hizkuntzen arteko parekotasunarekin, lengoia unibertsalaren egoeraren lehen argitzearekin, non historia itxiko bait zen, itzuliz eta halere itzuli gabe Babelgo dorrearen aurreko egoerara, egoera paradisiakoa, non hizkuntza bakar bat egonez, ez bait dago ezta hizkuntza batik ere, bitartekotzarik gabeko izpirituaren manifestazio librea baizik.

32. Bien bitartean, K.a. III mendearen bigarren hereneko urte berdinetan hain zuzen, giza historia ikuspegi historizistarekin ikusten jarraitzen dutenak zur eta lur utziko dituen bateratasun harrigarriarekin prozesu berbera garatzen da kontrako zentzuan, nahiz eta oraingoan erlazioa ez gertatu grekeraren (= hizkuntza) eta Ekialdearen artean, baizik grekeraren eta Mendebaldeko Barbariaren artean: B) lurralde barbaro helenizatu berrian galdutako barbaroak, hizkuntzaren (grekera) altxor propioak beste hizkuntza batzutan (barbaroetan) erreproduzitu eta adierazi daitezkeela sinestera iristen dira; nolabait esatearren, grekeraren itzulpena kanporantz eman daitezkeela pentsatzera. Halaxe, literatura latinoan hasten da, eta hain zuzen *Odisearen* itzulpen batekin hasi ere, Erroman finkatutako Magna

Greziako griego bat delarik egilea, Tarentoko Androniko alegia, Italiako hegoaldeko hiri griegoengatik Pirrorekin Erromak izandako gerren ondorioz esklabu egina, eta Erroman egonik Livia familiarekin iaregindakoa, ziur aski bere trebezia musikal, poetiko eta pedagogikoengatik, eta noski, Livio Androniko izenekoa. Berari buruz esaten da latinez konposatu zuela, neskatxa erromatarrek abestu zezaten, ereserki bat, dudarik gabe partenio antzekoa (adibidez, Alcmanena Espartako neskatxentzat, bere zati bat ezagutzen dugularik), eta baita tragedia edo komedia batzuk, seguru jatorrizko grekoetatik itzuliak, Nevio eta Plautok jarraituko zuten konposaketa eta bertifikazio tradizioan.

33. Baina, batez ere kontserbatzen direnak bere *Odusiaren* berri eta bertso aipamenak dira, arazorik gabe grekeratik latinerako lehen itzulpentzat jo ditzakegunak, hau da, grekeratik 'kanporako' lehen itzulpentzat, eta aldi berean berezko literatura latinoko lehen testutzat (aro literarioaren aurreko manifestazio folklorikoei buruzko noiz behinkako aipamenak baztertzearren), eta beraz lehen hizkuntzatik independizaturako literatura guztietako lehena. *Odusiaren* lehen bertsoa iritsi ere egin zaigu, eta *Odisearen* lehen hexametroko lehen bi herenekin konparatu dezakegu, hizkuntzen arteko korrespondentzia literalaren mirari hasberria aztertzeko aukera ematen digun adibiderik onena bezala:



Korrespondentzia erabat zahatza lortzeko ahalegina, zeinak adierazten bait du grekerazko hitz bakoitzari hizkuntza berrian dagokion aurkitzea espero delako fede lañoa, *uersutum* epitetoaren hautaketan garbi azaltzen da, erro bezala *uertere* aditzarena bait dauka, hain zuzen grekerazko τρέπω-aren 'parekoa', zeinaren erroa jatorrizkoaren πολύτροπον epitetoa bigarren hitzean bait dago; edo *insece* aditzaren erabileran, Andronikoren garaian jada forma za-

harkitua dudarik gabe, ἐννεπε itzultzeko, forma arkaizantea ere ordurako lengoaia epiko griegoan. Eta oraindik adierazgarriagoa dena: jainkotasuna bera itzultzeko premiak, Musak, μουσα, latinen barruan bizitzen den pareko jainko batean sinistarazi dio zalantzarik gabe, eta han *Camena* (itxuraz, iturrien jainkosa baten izena, musak ere ziren bezalaxe) aurkitu du, eta Musa homerikoa itzultzeko balio izan du (latinean *Musa* hitza sartzea, bi belaunaldi geroago Enioren lanetan agertzen den bezala, itzulpenaren praktika ulertzeko moduan bilakaera baten fruitua izango zen).

34. Lehen itzulpen erromano honetaz beste bi gauza azpimarratu behar dira: bata, oraindik ez dela erritmoa literalki itzulgarritzat jo, eta Liviok, bere *Odusia*, saturnioan, fauno eta olerkarien (vates, *uates*: bardoak, profetak, kantariak) bertso zaharreen idatzi behar izan du, Neviok dioen bezala, ahalegin ikaragarria eginaz bi zentzutan: bera, griegoa izanik, poesia griegoaren konbentzio erritmikoentzat erabat arraroa den bertsifikazio batera egokitzea, eta bestetik, ez bakarrik poesia landuarentzat, baita literaturarentzat ere, ahozko tradizioa eta tradizio iliterato eta barbarodun bertso italiko bat egokitzea, latinoen formula sakratu, pregoi eta kontakizun epikoentzat erabilia, dudarik gabe mende batzuk geroago herri zelta eta germanikoen ohitura poetikoetan aurkitzen dugunaren antzekoa. Ikusten da, beraz, lengoiaren erritmoa hizkuntzaren beraren zati osagarri bezala sentitu dela, eta ondorioz, Libiok hasi nahi zuen hizkuntza batetik bestera pasatzeko lanean sartua bezala ere, nahiz eta guri nahiko garbi azaldu lengoiaren erritmoa, alde batetik, hizkuntzaren estruktura eta konbentzioen pean dagoela (horrela, hizkuntza bitxi ulergaitz baten erritmoa, neurri batean antzemateko modukoa da atzerriko entzuleentzat), eta bestetik, tradizio poetiko batek arautua den neurrian, kulturaren zati bat dela, konbentzio linguistikoaren gainetik dagoen konbentzio bat. Aurrerago bakarrik, Eniorekin aldentuko da lenguiaren erritmoa hizkuntzatik (antzerkiko bertsoak, aurretik latinean naturalizatuak, beste gai bat bait dira), eta hexametro latinoak hasiko dira, baina horrek prozesu osagarria dakar, hizkuntzaren estruktura aldaketa handi bat bertan sartu diren bertsoen ondorioz, metrika batek berekin daraman kultur zama osoarekin.

35. Eta bestea, seguraski Erroman *Odisea* itzultzeko erabiltzen den erizpidea testu pedagogikoena dela (*Odisea* zen, bai, lehen letretako maisuek haurrei irakurtzen eta idazten irakasteko nagusiki erabiltzen zuten testua) eta beraz *Odusia*, Erromako familia onetako seme-alabei (Androniko bera, eskolako *litterator* edo maisu bezala aipatzen da) letrak irakasteko erabiliko zen nagusiki, nahiz eta orain alfabeto erromanoko letrak, abezedariora irakasteko izan; zeina bestalde, Mendebaldeko alfabeto griegoen piska bat aldatutako barietatea baino ez bait zen (alfabeto griegoen aldaketak ziren baita ere mende batzuk lehenagotik Italia eta Mediterraneoko beste leku batzuetako hizkuntza barbaroetan idazteko sortzen joan zirenak). Hau da, Andronikoren lanarekin, pedagogia da benetan aldatu dena. Historiak Erromaren gain (mundu helenistikoko hizkuntza erdigrekodun beste erresuma marginatu, erdibarbaroen gain bezala) ezartzen zuen presio kontradiktorioa, alde batetik kulturaren armak hartzera behartuz (nabarmenki Alejandrok mundua konkistatzeko erabili zituenak), eta bestetik, harrotasun nazionala zela medio (eta ondorioz griego erriak, *graeculi*-ak gutxietsiz) nazio berria batzeko eta sendotzeko beharrezkoa zena, horrelaxe konpondu zen: kultura irauliz: haurrei irakurtzen irakatsiz bai, baina aberriko hizkuntzan irakurtzen irakatsiz. Beraz beste hizkuntza batzutan ikasi daiteke poemak irakurtzen, eta kultura ez dago hizkuntzari lotuta.

36. Mungu griegoak bere inguruko Barbarian sortarazten duen mugimendu hau ahalik eta hobekien ulertzea komeni da: propioa dena bestearenean ugaltzeko prozesua da, Mendebaldeko historia osoaren legea izango bait da. Greziak eremu barbaroak edo Barbaria bere egiten dituen bitartean, griegoen aberastasunen eta asmakizunen jabe egiten da, mundua zabaltzea baino ez da (eta noski, orain ulertu nahi dugun jauziaren prestaketa ebolutiboa izango da); baina Barbariara esportatutako aberastasun horien artean Barbariak aberastasunaren ideia (kultura, jakituria, artea, literatura) bera inportatzen duen unean, une horretatik abstrazio egingarri bat edukiko balitz bezala da, eta hemen ere hau esan izan balitz bezala: «ez dago merkatari griegoen txanponak erabili beharrik, guk ere beraiengandik ikasi bait dugu txanpona egiten». Eta horrela, eremu berriak (Erroma, adibidez) ere-

mu helenistikoarengandik independentzia lortzen duen eta bere hizkuntza propioa daukan unea da hain zuzen mundu helenikoa funtsean erreproduzitzen (eta jada jarraitzen ez duen) duena. Freuden jatorrizko hordaren semea bezala, aita asasinatzen duen unean hasten da aita erreproduzitzen bere gorputzean.

37. Horrela, latinoek beren literatur hizkuntzarekiko ardurara garatu eta latinez garbizale bihurtzen direnean, beste barbarismoen artean, eta literatur genero ospetsu eta zorrotzen artean bederen, barbarismo bat gehiago bezala helenismoen erabilera baztertuz, orduan ari dira grekera egiaz erreproduzitzen, hori bait da (mundu helenistikoan) literaturaren, literatur kritikaren, hizkuntzak berekiko egiten duen erreflexioaren eta honen ondoriozko gramatika eta erretorikako aginduen asmatzailea. Eta mugimendu horren kontraesana, zeinaren arabera griegoa latinoan erreproduzitzen bait zen, azkenik eta ia modu komikoan azaltzen da Zizeronek *Tusculanas*-en (I, 1,1) egiten duen aldarrikapen abertzalean, filosofia latinez jartzeko ahalegina justifikatzen duenean: «Bizitzeko modu zuzenari dagozkion arte guztien izateko arrazoia eta horien ikasketa filosofia deitzen duten jakiteko grinan sartuak leudekeenez, uste izan nuen nere eginkizuna estudio hau letra latinoekin argitzea zela; ez filosofia letra griegoekin eta irakasle griegoekin eskuratu ezin zitekeelako; baina nik beti pentsatu izan nuelako gureek gauza guztiak beren kabuz modu jakintsuagoan aurkitzen zituztela, edo greziarrengandik jaso ondoren, hobeak bihurtzen zituztela, lantzea merezi zutela ikusi zituzten haiek noski»; bere latinean askoz propioagoa geratzen den harrokeria (*cum omnium artium quae ad rectam uiuendi uiam pertinent ratio et disciplina studio sapientiae quae philosophia dicitur contineretur, hoc mihi Latinis litteris inlustrandum putauit, non quia philosophia Graecis et litteris et doctoribus percipi non posset, sed meum semper iudicium fuit omnia nostros aut inuenisse per se sapientius quam Graecis aut accepta ab illis fecisse meliora, quae quidem digna statuissent in quibus elaborarent*), zeina, Bickel-ek adierazten zuen bezala, testu platoniko berantiar (*Epinomis* edo *Apéndice a las Leyes*, 987 e) baten gisara esana bait dago, non bere kontzientziaren

baitan sartzen hasi berria den griegoa, garai helenistikoaren hasieratik gertu, griegoena aldarrikatzen bait du Ekialdeari dagokionez.

38. Alabaina: Hirurogeitamarren eta Andronikoren lanekin itzulpena bi zentzuetan posible bihurtzen hasi, eta narrazioak eta poesia eta ideiak, kultur aberastasunak hizkuntza batetik bestera irauli daitezkeela onartu denez gero, ikus dezagun piska bat gehiago behinik-behin erreproduzioa deitu dugun prozesu horrek dakarrena. Izan ere, 'hizkuntza iraulketa' edo 'erreproduzioa' esaten dugunean, gu geu ere, itzulpena egintzat ematen den munduan bizi garenek, oso erraz erortzen bait gara perspektibazko hutsegite batean, pentsatuz erreproduzitzen denak erreproduzio aurreko gauza bera, erreproduzitu ezin dena izaten jarraitzen duela; iraulketa prozesua gauza pasiboa bezala ikusten dugu, eduki baten eta edukitzaille batzuren artean gertatzen den zerbait bezala, iraulketa prozesuak edukia eta edukitzailleak beren izatean eragingo ez balitu bezala. Baina gure pentsatzeko modu oker hau, K.a. III mendean aipatzen dugun itzulpen prozesua posibletzat jo izanaren ondorioa da. Beraz, historiatic ateratzen garelako itxurak egin behar ditugu, gauzen historia beste era batera ulertzeko, alegia, gauzen historiak bizirik irauteko behar duen ideien aurrerakuntzarekiko menpekotasunik gabe.

39. Arazoak, egia esan, planteamendu metafisiko garbi bat amestitzen du: bataren eta zenbakiaren arteko auzia da: zenbakiak osatuta dauden unetik bakarrik jotzen da bata zenbaki bat bezala (multzoaren muina den unitate bezala); orduan jotzen da bata lehena bezala; baina zenbakietako lehenengo hori funtsean kontradiktorioa da: berak inoiz ez bait du izan lehenengoa izaterik; bata, zenbakien aurretik, zenbakietatik kanpo, ez bait da zenbakia, hau da, errealitate ez numeriko batentzat ez bait da ezer. Bere bikoizketan, berarekin kontrajartzean, bian hasten da bata izaten, hor hasten da bere unitate izaera gauzatzen. Baina aldi berean, gauzatze horrek berdinen eta ezberdinen arazoa dakar: izan ere, bia zenbaki bat izan dadin, zenbakia sortu dadin (eta beraz bata), biak, esan duguna izan behar du: bere bikoizketa, bataren errepikapena (bi sagar egon daitezten, beren ezaugarri bereziari uko egin behar diote eta 'sagar' kontzeptuaren

errepikapen hutsak baino ezin dira izan); baina, bi gauza, gauza bera izan daitezzen, mundu (historikoki eta metafisikoki hitzeginez) bencan arraro eta kontradiktorio bat behar da, hain zuzen gure mundua (gizakiona lehenik, esan nahi dut, eta bigarrenik Mendebaldekoa deitu dezakeguna, kontzeptuen errealizazioak bideratua, itzulpenaren errealizazioarekin sortzen ari dena); izan ere, beste edozein mundutan bi gauzak beraien artean hain ezberdinak eta arrotzak izango dira, non ezingo bait dira sekula bi gauza izan (eta beraz, bakoitza ezin izango da gauza bat) edo biak hain egiaz izango dira gauza bera, non ezingo bait dira sekula aldenitu gauza beraren bi ale ezberdin bezala, baizik bat baino ez da egongo, eta beraz, ez da egongo bakar batik ere.

40. Hizkuntzen arteko itzulpenaren garaian sortu berria den 'Grezia/Erroma' bikoiztasuna egoera metafisiko horren adibide ona da; eta dudarik gabe, ez adibide inozente bat, baizik gauza ezberdinak bi eta gauza bera direneko legeak zuzendutako mundu horren behin betiko oinarria hain zuzen; zeinaren ondoan jarri bait daiteke 'Judu/fedegabeak' bikoiztasuna, kontrako zentzuko itzulpenak sortua; baina hemen batez ere, 'Grezia/Erroma' kontrajartzen dituen aipatzen jarraituko dugu, guretzat gaia garatzeko argiagoa delako. Horrela, une honetan bi hizkuntza daude, latina eta grekera, eta grekera beraz hizkuntza bat izaten hasten da. Baina, zer esan nahi du latina eta grekera bi hizkuntza direla (hemendik aurrera antzinako munduko bi hizkuntzak)? Horrek esan nahiko du, alde batetik, ez direla hizkuntza bera (batetik besterako itzulpena posiblea eta beharrezkoa izan dadin), eta bestetik, bat eta bera direla, nahiz bata nahiz bestea hizkuntza direlako.

41. Beraz, hau guretzat egoera zentzugabea bezain ulertzen zaila da: halaxe da, zentzumen libreak eskatu beharko lukeena egiaz ezberdinak edo egiaz gauza bera izatea da. Eta bi bideetako bat hartzen badugu, arrazoi onak dauzkagu latina eta grekera, Erroma eta Grezia bezalaxe beraien artean hain gauza heterogeneoak izanik eta beraz bi gauza izan, eta bikotea osatzea pentsatzea ezinezkoa dela baieztatzeke.

42. Grezia hiri eta herri multzo bat da (helenistikaurreko Heladeaz ari naiz, Tales eta Sokratesen artekoaz), barne loturaren printzipiorik gabea (unitate politikoak daudenean, bere barne kontraesanak bezala garatzen dira bere barruan), muga derrigorrez zehaztu gabeekin (Greziaren amaieran, bere kontzientziaren garaian, Isokratesek definitu nahi duenean nor den griegoa eta nor ez, παιδεία-n oinarritu behar da, hezkuntza eta kultura forman, azken finean griegoa izatearen kontzientzian bertan), eta indefinizio horrexegatik fenomeno bitxi bat da, kontserba ezina, errepika ezina; griegoa izatea gizona izatearekin nahasten da (grekera hitzegitea hitzegite hutsarekin nahasten den bezalaxe) edo ez du ezer esan nahi. Erroma, hasieratik amaierarte, zentrotik hasitako munduaren antolaketa da eta muga zehatzak ditu (bide nagusien sistemak eta Imperioko *lime*-en traza-
duak Erromaren beraren eskeletu osoa eskaintzen digute) eta beraz, unitate ororen eredu bezala osatzen da, lehenik betikotasunerako eta gero errepikapen amaigaberako joera duena; erromatarra izateak titulu juridiko bat esan nahi du, berunezko orri batean inskribitua egon daitekeena, errolda jakin batean sartuta egotea esan nahi duena, eta latina hitzegitea ez zen ezinbestekoa edo erabakiorra, baizik oso komenigarria, eta gutxienez grekera hitzegitea (grekera helenistiko-inperiala) nahiko izan zitekeen haren orde, baita gobernuaren administraziorako ere. Grezia, bere hizkuntza batzen denean desager-
tzen da; Erroma, alde batetik Ekialdeko eta Mendebaldeko Inperio-
aren arteko zatiketa linguistikoa sakontzen denean, eta bestetik, lati-
naren beraren nagusitasuna hizkuntza askotan zatitzen denean. Poe-
sia grekoaren lorealdia (garai helenistikoan) Literaturaren insti-
tuzioarekin hiltzen da; kultura poetiko erromatarra Literaturaren ba-
rruan jaiotzen da, eta Erroma bera hil arte inoiz gehiago ez da berriz
literatura izango. Beno, zertarako luzatu zerrenda?: begiak zenbat
eta gehiago paratu ekintzetan, orduan eta handiagoa da harridura,
denbora guztian latinaz eta grekeraz eta Greziaz eta Erromaz nola-
bait parekatu daitezkeen bi gauzatzaz bezala hitzegin delako; eta ez
da aurkitzen izen bat biak gauza beraren bi kasu zehatz bezala bil-
duko litzuzkeenik, ez 'herri', ez 'nazio', ez 'gizarte', ezta 'kultura'

edo beste hitz batek ere ezin bait du balio aldi berean Erromaren eta Greziaren kasuetarako.

43. Baina era berean, beste alternatiba hartzen badugu (ikus 41. puntua), latina eta grekera literalki hizkuntza bera eta Grezia eta Erroma literalki gauza bera direla frogatzen duguten arrazoi oso onak aurkitzen ditugu (hau da, ez gauza beraren elementuak bezala, baizik bera eta bakarra bezala, espazioan edo denboran ere banatu ga-beak), eta seguraski, horrelako bikoiztasun bati arrazoia emateko zailtasuna, aldentzeko eta bi gauza bezala jotzeko arrazoi bakar bati ez egotean dago.

44. Horrela, zein litzateke bikoiztasun horren forma?: esistitzen al du Erromak Greziaren garai berean alor ezberdinetan?, aldiz, Erromak Greziari jarraitzen al dio alor berdinean?; edo gutxienez bikoiztasun forma ez hain perfektorekin, Grezia Erromaren barruan al dago?; edo, Erroma Greziaren barruan? Ez da horrelako ezer gertatzen: Erroma deitzen dugun fenomeno berria hain zuzen Grezia deitzen dugunaren agerpen bereziarekin batera bizi da, Erroma ez bait da oraindik Erroma eta Grezia ez da jada Grezia; denboran Greziari jarraituko zion Erromari dagokion mundua ez da erreala, jarraipen horrek ordenu ezberdin bateko beste mundu baten sorrera esan nahi duelako hain zuzen; eta azken finean, Grezia Erromaren barruan bakarrik egon zitekeen elikagaiak gorputz baten zati diren era berean: gorputzari asimilaturik eta beren izate propioa galduta; eta Erroma Greziaren barruan bakarrik egon zitekeen Laberintoa Dedaloaren, bere sortzailearen barruan dagoen eran: izatea erabat aristoteliko eta elukubratioaren erara, alegia.

45. Baina bikoiztasunaren arazoak konponbide zailagoa edukiko luke bi gauza erabat independenteak eta urrutiratuak, inolako puntu amankomunik gabeak direla esango bagenu, ustegabeen bakarrik biltzen duela pentsamendua bik bezala, urdaiaren eta abiaduraren gisara. Aldiz, 44. puntuko gogoetek adierazten digute Grezia eta Erroma erabat elkartezinak direla beste edozein erreferentzia sistema espazial edo denborazko edo jerarkikoari dagokionez. Alabaina,

Fonologiako arauak erakusten digutenez, ustezko bi fonema, ustez bi, elkartezinak direnean testuinguru fonemiko guztietan, elkar-tezintasunaren bi zentzuetan (bat azaltzen den lekuan bestea ezin dela azaldu; eta bata bestearen ondoan ezin direla azaldu), besterik gabe biak bat bakarra eta fonema bera direla esaten da.

46. Erroma Grezia da eta Grezia Erroma da. Hau da, Erromak bereizgarri eta jatorrizko mailan daukan oro Greziarena da (literatura latinoak grekoaren parean duen originaltasunaren defendatzailearen sumatu gabeko kontraesanak irribarrea sortarazten du, okzidentalizazioaren ondorioz sortutako Txinako Errepublika Komunistako ordezkariak, Mendebaldeko paperezko tigreen parean bere orientalizazioa aldarrikatzeak irribarrea eragingo lukeen bezala), eta aldi berean, Greziak ez daukan izate historiko eta erreala Erroma izatetik datorkiona baino ez da: halaxe da, Grezia Erroma izan ez balitz, ez litzateke egongo ezta 'Grezia' kontzepturik ere, ez litzateke egongo ezta mundurik ere, Grezia txertatzeko mundu historikorik; eta gure munduko errealitate forma bakarra errealitate historikoa denez, Grezia mundutik kanpo legoke eta Greziak ez luke ezta esistitu ere egingo.

47. Badakit, edonola, ohitura mentalek, beren osakera antite-tikoarekin, Grezia/Erroma bezalako bikoiztasun hain onartua gain-ditzea onartezina egiten digutela, eta biak bat bakarra bezala imagi-natzea ia erabat ezinezkoa. Batez ere hizkuntz bikoiztasuna da, lati-na/grekerak, laburketa oztopatzen duena. Pentsa, bestela, (behin, hain egoera larrian, hipotesi kontrafaktualera jotzearen) horrelako ezerk esistitu izan ez balu: erromatarrek, ordurarte mundu guztiak egin izan zuen bezala, Gizartean edo Zibilizazioan sartzen ziren neurrian, be-hingoz grekerak ikasi izan balute, beren jatorrizko hizkuntzak eta hiz-kuntza barbaroak ahazteraino; pentsa ez zela itzulpenik egiten ezta ahaleginik ere, beraz literatura berri bat hasten zela: inori ez zitzaion burutik pasatuko horrelako bikoiztasunik finkatzea (inori pasatzen ez zitzaion bezala mundu helenistikoaren antzinako Heladearen pa-rean bikoiztasun bat bezala planteatzea; eta 'helenistiko' hitza bera sortu berria da, orain mende bat eskas), baizik, agian, Inperio greke-radunean zehar οἰκουμένην edo giza lur bakar batetaz hitzegiten ja-rraituko zen, Barbariaren kanpoko eremuari kontrajarria bezala.

48. Baina, aldi berean, nola uler daiteke hizkuntz bikoiztasun hori, itzulpen prozesuaren bidez (jarraipena erreproduzio bilakatzen duena) Grezia/Erroma bikoiztasunari itxuraz eusten diona?: latina eta grekera zein zentzutan dira bi hizkuntza ezberdin? Hemen antzeko gauza aurkitzen dugu. Latinak, lengoaiia barbaro eta erdigizatiar bezala grekera jaso ez duen neurrian, berez giza hizkuntza deitzen detetik hain aparte dago, non berarekin inolaz ere ezin bait da bikotea osatu eta bi izatera iritsi; eta grekera jaso duen neurrian, latina grekera bera dela esatea da egokia, grekera modernoa antzinako grekera dela esateko baino askoz arrazoï gehiago leudeke: Barron eta beste filologo latino batzuk ez al zuten latina dialekto eolio antzeko bat bezala identifikatu nahi? Eta hain zuzen, latina kultur hizkuntza bihurtuta, horrelako gauza batek behar dituen egokitzapen semantiko eta sintaktiko guztiekin, grekera Mendebaldera hedatu den forma baino ez litzateke, eta latinaren formapeko grekera izango litzateke Europako hizkuntzen egungo $\chi\omicron\upsilon\nu\eta$ -aren oinarria (ikus 8. puntua).

49. Ongi egongo da ibilalditxo baten bidez bikoiztasunak Inperioan zehar nola finkatu eta iraun zuen gogoratzea. Errepublika garaian, itzulpena eta latinezko literatura baten esistentzia finkatu ondoren (ez borrokarik gabe: Erromako analistek, aristokraziako pertsonak, beren urtekariak grekeraz idazten zituzten —Silak ere bere oroitzapenak hizkuntza horretan idatzi zituen— eta *graeculi*-en menpekotasun horren kontra Katon Zaharra altxatu beharko da) egoerak zalantzekin eta zehaztasunik gabe irauten du: noski, ez da ahaleginik egiten jaiotzen ari den Inperioaren ekialdean latinak grekera ordezkatu dezan, ezta Erroman bertan ere, esklabu gehienek grekera hitzegiten dute eta gizarteko goi mailakoek gero eta gehiago onartzen dute elebitasunaren erabilera, baita tonu oneko elkarrizketetarako ere; eta literaturak bere aldetik, belaunaldiz belaunaldi piskanakako helenizazio bidea jarraitzen du, semantemak, partikulak, arau sintaktikoak eta izenak gero eta zehazkiago egokituz (jainko latinoen izenak dagozkien grekerazkoen itzulpena baino ez dira jada, eta itzulpena egiterik egon ez denean, transkripzioa egiten da: *Camemae* deituak *Musae* dira).

50. Errepublikaren amaieran eta Augustoren urteetan kontzienzia erromatarrek bikoiztasunaren aurrean daukan jarrera ikustea interesgarria da kasu honetarako: izan ere, alde batetik badirudi Erromaren kontzepzio paralelo bat nahi dela Greziaren parean (horrela gertatzen da, maila batean Barronekin edo Tito Libioren pasarte famatu batekin, griegoen antzerkiaren kalkoa den erromatarren antzerkiaren hasieren historia bat egin nahian), eta aldiz, beste aldetik badirudi nahiago dela Greziaren jarraipen hutsa den Erromaren ikuspegia (horrela *Pisonei Epistolan*, dramaren bertako hastapen traketsak, genero poetiko bezala beraietan irakurketaren bidez antzerki griegoa sartzen denean bakarrik garatzen dira). Eta gainera, oso bitxia da, zehaztasun gabezia hori hasierako entsegu batzurekin nahasten da, eta horien notiziaren bat iritsi zaigu, kultura eta literatura erromatarrei, beren barnean, garai helenistikoak greziarrentzat garatu zituen loraldi eta gainbehera eskemak aplikatuz; Barron eta *critici* edo Errepublikaren amaierako filologo latinoen ideia kontrajarriz, horiek pentsatzen bait zuten Plauto-Enioren belaunaldietatik Terentzio-Acciorenganaino (K.a. II mendearen hasieratik erdirarte) *apex*-a lortu zela, Augustoren garaiko ideologia progresistarekin, batez ere Horaziok garatua, baina lehenagotik jada Zizeronen *Brutus*-ak, zeinaren arabera literatura errepublikano guztia saio traketsak baino ez ziren, Zizeronen eta Horazio beraren produzioetan fruitu heldu eta kontsumatuak bezala gailurra lortzen zutenak.

51. Gorago aipatu dugun eran, bien bitartean latina nola grekera bihurtzen dihoan ideia bat egitea ere komeni da. Badaude hizkuntzaren zenbait atal edo hobeki esanda zenbait geruza 'kanpotikako' aldaketa (hau da, gizartearen, historiaren, kulturaren eraginaren bidez) oso modu zailean jaso dezaketenak, hala nola prozedura morfo-sintaktikoak (hitzetan funtzio sintaktikoa edo hitzen arteko erlazioa adierazteko prozedurak), fonemen errepertorioa eta honen sistema mailako antolaketa, eta azkenik, funtsezkoak diren eta erabilera oso zabala duten multzo txiki bat (deiktikoak, zenbaki izenak, ekintza eta funtsezko estatuen edo giza antolaketaren zatirik garrantzitsuenen puntuen izenak). Aldiz, beste alor batzuek kanpoko aldaketa

errazago jaso dezakete, hala nola, hiztegiak orokorrean, eraiketa sintaktikorik konplexueneko prozedurek (batez ere, esaldi bakar batean predikuak laburtzekoek: menpekotasuna, azpipredikua), esaldiaren balio erlatiboa eta esaldi jarraituen harremana zehazten duten elementuek, esaldiaren ejekuzio erritmikoaren entonazio, tenpusa eta moduaren ohitura erdigramatikalizatuen inguruan bait daude. Hizkuntzak hitzuneekin daukan harremanari dagokionez, inkonzienteenak lehen sektoreak direla esan dezakegu (edo hobe: subkonzienteenak), eta bigarrenak azalekoenak eta kontzientziari gehien lotuta daudenak.

52. Horrela bada, garbi dago latinak hizkuntza ezberdina izaten jarraitzen duela lehen motako elementuak kontserbatzen dituelako, eta aldiz, hizkuntza bera izatera iristen da (grekera, alegia) mailegu zuzenaren bidez bigarren motako elementuak piskanaka hartzen dituen neurrian, edo —modu arruntago eta eraginkorragoan— aurretik zeuden hitz edo ohitura gramatikalak erabilera semantiko edo sintaktiko berrietara egokituz. Baina aldi berean beste gauza bat ere aintzat hartu behar da: eraginik jaso ezin duen alorra da neutroena —esan dezagun— bizitzarekiko harremani dagokienez, herrien aldaketen, heziketa, teknika eta modaren, kultur transmisioaren arazoei dagokienez (dena hasten da, bai, egiturarik sakonenak osatu baino lehen konziente izaten); eta aldiz, alorrik azalekoena eta mugikorrena, kultura, inkorporatua, aldi berean osatzailea eta erreformatzailea duena dela hain zuzen; eta alderantziz, errealki gainegitura izaera edukiz, gizartearen izatea modu zuzenago eta indartsuagoan eragiten duen hizkuntzaren zatia da. Beraz, latinak latina izaten jarraitzen du gizartearentzat geldiena, esanahirik txikikoena den gauzetan (eta hizkuntzaren mailarik bereziena da hizkuntza guztientzat unibertsalena dena), eta aldiz, egiaz grekera bihurtzen da eta grekera zabalitzen eta jarraitzen du gizartearen aktiboena den gauza guztietan. Eta aurreko oharpenen egia ukaezina dela diot, ongi begiratuta, seguras-ki tautologia bat delako.

53. Baina, hizkuntzen arteko itxurazko bikoiztasunak jarraitzen du, eta horrek ondorio handiak izango ditu Inperioarentzat eta His-

toriarentzat orohar. Pertsonen ikuspegitik, Mendebaldean K.a. I mendetik K.o. II menderarte nagusitzen zen elebitasuna; Ekialdean berriz (Egipton, adibidez, papiroek adierazten duten eran), latina oso bakanka sartzen zen administrazioan, destakamentu militarretan. Horrela, grekerak herentzia literarioaren bidez eta $\chi\omicron\iota\nu\eta$ helenistikoarekin zuen harremanagatik piskanaka latina osatzen zuen bitartean, latinak Ekialdeko hizkuntza mailegu batzurekin zipriztintzen zuen (bereziki ugariak II mendetik III-aren hasierara, eta gero V eta VI-ean, F. Viscidik erakutsi zuen bezala, *I prestiti latini nel greco antico e bizantino*, Padua, 1944). Bikoiztasuna bertan dagoelarik, Hizkuntzaren erabileraren (praktika edo kultura) ikuspegitik zenbat eta alperrikakoagoa, orduan eta erabilgarriagoa helburu etiko edo politikoetarako, hizkuntza bat edo bestea hitzegitea zerbaiten bereizgarri bihurtzen zelako, bi munduko hizkuntzen arteko borrokaz hitzegiteko arrazoiak ere badaude, Z. Zilliacus-ek *Zum Kampf der Weltsprachen im Oströmischen Reich*, Helsingfor, 1938 liburuan egin zuen bezala.

54. Azaleko elebitasunak Inperioan ezartzen zuen tentsioa amaitzeko ahaleginak behin eta berriz errepikatu ziren. K.o. II mendearen lehen herenean eman zen Inperio osoa grekera formako grekerara makurtzeko pausorik aurreratua; eta harrigarria dena, orduan beraien artean ondo banatuta zeuden gizarteko bi alor juntatu ziren horretan: alde batetik zirkulu eskolatu eta gubernamentalak, Adriano enperadorea eta bere kortea, Fronton, prezeptorea eta letra gizon eraginkorra, eta baita Marko Aurelio ere, bere oroitzapenak grekeraz idatzi zituen, idatzi intimista edo aitopenetatik zaharrenean artean aurkitzen dena (gizabanakotasunak grekeraz hitzegiteko joera edukitzeak zintzoki islatzen du unibertsalaren joera); eta bestetik, kristau komunitateak, Mendebaldean gero eta ugariagoak zirenak, baina batez ere Urbean eta hirietan, non liturgia, prediku, baina baita anaiarteko otordu eta 'profezietako' (ikus 29. puntua) elkarrizketetan ere, denbora luzez grekera erabiliko bait zen orokorrean; grekeraz idatzi zuen San Pablok bai Efesora eta baita Erromara ere, eta hain zuzen orain testu biblikoen itzulpenak latinez egiten hasten direnean, itzulpenik zaharrenean hizkuntzan gauza askok pentsarazten

digute gehienetan ama hizkuntza grekera zuten jendeek idatzi zituztela. Mendebaldeko lurren konkista izango zen kristautasuna bere jatorrizko hizkuntzari uko egitera eramango zuena.

55. Nonalahi, lehen zentzu horretan tentsioa hausteko ahaleginaren porrotak, kontrako zentzuan gainditzeko ahaleginera eraman zuen: hori errepresentatzen du Konstantino enperadoreak; hiriburua Konstantinoplara aldatzea, azaletik oker ulertu daiteke; baina hain zuzen *véα* 'Pῶμη, Erroma Berria bezala berriz bataiatu nahi izanak (Eneasen mitoan antzinean izendatuari zegokionez horrela gutxi gorabehera egoera inbertituz, non Erroma Troia Berria bait zen), argi erakusten du Ekialdean sartu nahi zela erromatasunaren zentrua. Enperadoreak beti latinez hitzegi zuen, latinez idatzi zuen, eta bere eliz gurasoek latinez hitzegi behar izan zuten Nizean. Hau gertatu da (eta hemen ez naiz sartuko gertatutako gauzen elkar erlazioa aztertzer): kristautasuna Inperioarekin identifikatzen den aldi berean, Inperio Kristaua latinarekin identifikatu da, eta beraz grekera galbidean dagoen fedegabetasun kondenatuarekin; hainbestearino, non adibidez Zonaras historialariak, Juliano Apostataz hitzegitean, honela hitzegingo bait du: «Enperadore bihurtuta... berehala helenismorik zorrotzera lerratu zen» (Ἑλληνισμὸν), fedegabetasunera esan nahi du, noski. Horrela, piska bat geroago, San Agustinek Marko Aureliok egin-dakoaren kontra, latinez idatzi beharko ditu bere aitorpenak, erretorika intimistaren funtzioez betetako latin batean, Apuleio nobelagilearena 'helenismoz' betetzen zen bezala.

56. Munduaren bi erdiak erremediorik gabe aldentuta, bakoitzak bere hizkuntza duela, Bizantzioko jendeak Kulturaren jabe sentitze-ko joerara itzuliko dira oraindik, hain zuzen grekeraren kontserbatzaile diren neurrian, eta beraz Mendebaldeko latin-hiztunak (ordurako Mendebaldean hitzegiten zena latina deitu badaiteke) barbarotzat jotzera (bederatzi mende atzerago izan ziren bezala, Plautok Komedia Berria 'barbaroz' itzultzen zuenean bezala). Eta Mendebaldekoen erreakzioa oso ondo adierazten da ondorengo testuan, Nikolas I aitasainduak Migel III enperadoreari bidalitako idatzian: «Baina, tira, hizkuntza barbaroa deitzen badiozu ulertzen ez duzu-

lako, zuen buruak erromatarren enperadoretzat edukitzea, eta aldiz, hizkuntza erromanoa ez jakitea barregarria da... Ez ezazue jarraitu beraz zuen buruak enperadore erromatartzat edukitzen» (guzti hori latin penagarri batean, lehen berpizkundearen —berpizkunde karo-lingioaren— aurreko eskola-krisirik latzenekoan: *Iam uero si ideo linguam barbaricam dicitis, quoniam illam non intelligitis, uos considerate quia ridiculum est uos appellari Romanorum imperatores et tamen linguam non nosse Romanam... Quiescite igitur uos nuncupare Romanos imperatores*). Testuak, berriro, ongi islatzen du Erromaren (patu inperialaren) eta latinaren (Kultura itzuliaren) arteko identifikazioa; eta bestalde, nola barbarie nozioa erlatibizatzen duen formula aurkitu behar izan duen premia politiko horrek: «hizkuntza barbaroa deitzen duzu ulertzen ez duzulako»; erlatibizazio hori da hain zuzen hizkuntzen arteko itzulpen nozioa finkatzearen fruitua.

57. Azkenik, Ekialdeko Inperioa arabeen eta turkoen eskuetan erortzeari esker, nagusiki latinaren bidez eta Mendebaldean zehar, hau da, bere itzulpenaren bitartez, Kulturak (oraindik Mendebaldekoa deitzen dugun gizatasun modu berezia) transmititzen eta hedatzen jarraituko du; horrek ez du, hala ere, erabat baztertzen Mendebaldeko alor orientaletan forma griegoaren pean (Elizaren bidez) egiten den trasmisio guztiaren garrantzia; halere ikusi behar da zer nolako sare eklesiastiko eta griego mehearen gainean berregin den Kultura Errusia bezalako herrialdeetan, batez ere aportazio latinoak, itzuliak, sartuz; eta horrela, horretan eta ondorengo beste kasu batzutan (Grezia modernoarenean, adibidez) oinarri griego eskasa izan da, oinarri bereziki barbaroek (adibidez, arabeak, hinduak, txinoak) jokatu duten paperaren antzera, Kultura bakarra, forma latin edo itzuliari griegoa zena, asimilatzeke sare bezala jokatu duena. Ez da ahaztu behar Berpizkunde italianoaren bigarren fasean, griego zaharra berriz ikastearekin, Kulturaren elebitasun kontzientzia hedatzen dela berriro Europan zehar, kultuaren izendapenak *doctus utriusque linguae*, 'bi hizkuntzetan hezia' forma hartu dezakeelarik (kontzepzio elebiduna, hebraiera ere sartu nahi zuen bestearekin nolabaiteko lehian sartzeko dena, zeinaren oroitzapena bait da Kolegio Hirueleduna gure Unibertsitatean). Baina erabilera praktikoan, egiaz ez zen kul-

tur hizkuntza bat baino gehiago egon, alegia, ertaroko latina, latin modernoa, arrakasta eta iraupena izango zuen grekeraren forma bakarra.

58. Aurreko excursusak, bizkorra izan den arren, espero dut itzulpenak planteatzen zигun bikoiztasun arazoaren planteamendu metafisikoa bere itxura historikoan zehazten lagunduko zuela; hau da, Erroma, edo Grezia ez den beste gauza bat, edo gauza bera dela (latina edo grekera ez den beste hizkuntza bat edo hizkuntza bera dela) baieztatzea ezinezkoa dela. Beraz, kasuari ezarri lekiokoen baieztapen mota bakarra kontradiktorioa da: gauza bera dela eta ez dela. Itzulpena posible den momentutik, egoera bereizten duena kontraesan horren errealitatea da hain zuzen. Biaren jaiotza bataren erreproduzioan datza, batuketatik ateratzen den bataren bikoitz horrek bata izaten jarraitzen du eta aldi berean bat ezberdin bat da (adibide gisara, zatiketaren bidez erreproduzitzen den amebaren izaera-irau-penaren auzia jartzen dut). Abstrakzio hori egiten bada, ordea, diruaren formarik oinarritzkoenak azaltzen diren unetik ziurtatuta dagoena (bai, abelburu bat, aldi berean abelburu bera eta beste abelburu bat den momentutik bakarrik izan daiteke dirua), Gizartean beste intimazio maila bat lortzen du, itzulpen fenomenoaren bidez, unitate sozial eta linguistiko propioak entitate bezala hartuz egiten denean.

59. Alabaina, gogora dezagun biaren sorrerak batarentzat berarentzat beste ondorio hau ere baduela: hemendik aurrera bata zenbaki bat ere badela; edo beste era batera esanda: bia sortzen den unetik, ez dela bia sortzen den bakarra, baizik zenbakien serie guztia sortzen dela; behin egin ahal izan denak (bakarraren errepikapena), fenomenoaren izaera beragatik, behin eta berriz egin daitekeela pentsa arazten du; zerbaiten ugalketak ugalketa ere ugaltzen du; eta hasten den prozesua amaierarik gabe errepikatu daiteke. Horregatik, Andronikoren *Oduzia*-rekin bigarren literatura batetaz (bakarra zen lehenengoarekin: helenistikoarekin batera, edo hobeki esan, poesia griegoaren literaturizazioarekin) hitzegiten hasi den unetik, beste literatura bat gehiago eta amaierarik gabeko literatura kopurua egon daiteke; horrela sortuko da literatura arabea, eta ia aldi berean Euro-

pako literatura nazionalak hasiko dira (hizkuntza latinoetan edo ez), eta horrela atzera begiratuz, hitzaren zentzu propioan (Mendebaldekoan) literaturatzat joko dira baita, indioa, txinoa edo egipzioa bezalako testu bitxi edo aurreliterario sortak ere. Eta latina itzultzeko gai egin den, Kulturaren hizkuntza bilakatu den era berean, Kulturak milaka hizkuntza edukitzeko ahalmena izango du; eta guztiek, noski, hemen lehen aldirako aipatu dugun prozesu bera errepikatuko dute: denak griegoa izango dira (beren forma, itzuli, mendebalizatu, latinoaren bidez) eta aldi berean griegoa bera ez dela esanaz jarraituko dute.

60. Baina puntu honetan geratu beharrean gaude prozesuaren planteamendu guztia beste begi batzurekin erreparatzeko: aurreko ataletan zehar (49-57. puntuak), arazoaren azalpen historikoa egin beharrak, hizkuntza historizistaren miseria eta menpekotasunak behartuta, sartuta gauden prozesuak berak eta estudio honetan aztertu nahi dugunak baldintzatutako hitzak erabiltzera eraman gaitu: zehazki, 'hizkuntzaz' eta 'Kulturaz' (eta hizkuntzez eta kulturez) bi errealitate independentetaz bezala hitzegin behar izan dugu. Bi errealitate dira, bai, gauden mundu honetan, eta ohizko ideologiak eta ideologia iraun arazleak ezin ditu beste era batera tratatu: ideologia hori da errealitate egiten dituen, errealitatearen forma desdoblaturu hori ideologiaren operazioaren euskarria den era berean. Baina azterketak hain zuzen, Izateak daukan eta ezkututzen duen bilakaera izaera deskribitu nahi du (kontrako momentu dialektikoan, Izateak irauteko egiten duen aldaketa eta mugimenduaren tranpa salatzen duen era berean), eta horrela, kasu honetan itzulpen fenomenoaren agerpenari heldu eta itaunketa egitearekin lortu nahi duena, hizkuntza eta Kultura bi nola izan daitezkeen (bi nola bihurtu daitezkeen) deskubritzea da, itzulpenik gabe bat baino ezin lirakeelako izan (eta beraz, ezta bat ere); itzulpena hizkuntza batetik besterako kultur egiteen iraulketa bezala interpretatzen jarraitu ordez, itzulpenean ikusi nahiko du kulturaren eta hizkuntzaren sorrera momentua.

61. Nolanahi, adierazgarria da gure artean Kultura kontzeptuaz dagoen zehaztasun eza. Gogoratzen dut oraindik, orain bi edo hiru

hamarkada burgesiaren esparru kultuak nola astintzen ziren kontzeptuan bi maila bereizteko *démêlé* biolento batean, *kultura* eta *zibilizazio* hitzei adibidez bi esanahi zehatz emateko ahaleginean; hain zorigaitzekoa izan zen, non ia kontrako zentzuko atribuzioak ere eman bait zizkieten, eta ondorioz nahaspila askoz handiagoa izan zen. Eta arrazoi guztiarekin: estruktura sozialen —esan dezagun— aspektu ekonomiko eta ideologikoa beraien artean loturik bait daude, sistemara makurtzen den edozein teorifikaziok, nahi ezta ere, ezin duela inplikazioei fidelitasuna gordetzen jarraitu; eta bide marxistaren analisiak berak ere, oinarri eta suprastrukturaren arteko elkarerlazioa aztertzerakoan, bien arteko bikoiztasuna era tradizionalan hartuta, beraien artean erlazio tradizionalak, kausalistik finkatzen ditu. Beraz, hori ikusita, ez dugu hemen kontzeptuaren bereizketa hori oraingoz sartuko, eta horrela, 'Kulturak' nekazaritza eta beste teknika batzuk bezala, musika edo historia, edo 'suprastruktura/oinarria' oposizioan sartzeko zailak diren ekintzak, hala nola lan araudiak eta prezepto erretorikoak, izen propioen erabilera, moda eta erakunde erotikoak eta eraikuntza edo sukaldaritzako arteak jasotzen ditu. 'Kultura' kontzeptua 'Bizitza' kontzeptuarekin edo 'bizimoduekin' identifikatzen dela esan daiteke, *bizitza* hitzari 'izakien funtzio historikoaren prozesua'-ren bere esanahi errealista estua ez den beste esanahiei uko egiten zaien unetik.

62. Beraz: hemen, *Kultura* hitzak, gizadia orohar hartzen du, munduan aldi berean kultura ezberdinak dituela, eta aldi berean kultura bakar bat dagoela esaten da, griegoa edo Mendebaldekoa, edo besterik gabe gurea deitzen duguna. Gainera, gaur egun kultura txino, inka edo papuaz hitzegiten badugu, hori analogiagatik egiten dela gehitzen dugu, eta operazio analogiko hori Kultura zentzu estuan hartzearen ondorioa dela; baina aldi berean, Kultura Kultur bezala finkatze hori, aldi berean bere erreproduzioa dela esaten dugu (edo beste hitz batzutan esanda, Grezia ez dela Grezia Erroma den unetik baino). Beraz esan daiteke, kultura (eta kultur ekintzak, adibidez literatura) konszientzia egoerara, *kultura* kontzeptura igotzea kulturaren agerpenarekin nahasten ari garela. Eta horixe da hain zuzen: pentsa arazi nahi dugu, *azaltzen zaigun objezio hori, kultura kon-*

tzeptuaren (*kultura* hitza, bere agerpena dena) eta kulturaren beraren edo errearen arteko bereizketan oinarritua, Kultura zentzu estuan finkatuta eta nagusi den munduaren objezio (eta bereizketa) berezia dela; objezio eta bereizketa horiek, Kultura, bere erreproduzioagatik, hizkuntzatik hizkuntzarako itzulgarritasunagatik, erreal bilakatu den unetik bakarrik gerta daitezkeela.

63. Era berean esaten dugu Kulturaren agerpen hori hizkuntzaren agerpenarekin bat datorrela: hasieran Hizkuntza bakarrik dagoela (barbaricari kontrajarriz); beste batera itzultzen denean bakarrik bihurtzen dela hizkuntza bat; eta hizkuntzak eta horiekin *hizkuntza* kontzeptua (hizkuntza ezberdinei ezarri lekieteen izen arrunta bezala) sortzearekin batera sortzen dela *hizkuntza* kontzeptua *Kulturari* kontrajarrita bezala. Beraz, grekera oraindik ez dela hizkuntza bat, jada duela urte asko *Lexis* aldizkarian (urte asko irauteko kultur industriaren korranteetan gaizkiegi kokatua) J. Lohmann-ek argitaratutako entsegetan nahiko argi sentitu eta adierazitako gauza nabaria da, eta horien irakurketa gomendatzen diet nere irakurleei; eta horrela dio pasarte honetan: «Agian, grekera 'hizkuntza' bezala hartzen ez denean, eta gure hizkuntzetara egindako itzulpen orok, grekeraz pentsatutakoa derrigorrez faltsifikatzea dakarrela ikusten denean hasi ahalko gara grekera ulertzen... Grekera, bere errealitate osoan hartuaz, ez da guretzat hizkuntza frantsesa edo ingelesa bezalako hizkuntza bat, pentsatzeko forma bat (*Denkform*) baizik; agian hobe oraindik, bizitzeko forma bat (*Lebensform*),... zeinen ezaugarria bait da lehen-lehenik, gure ikuspegitik begiratuta, pentsamendua modurik intimo eta berehalakoenean mintzamenean kokatuta egotea (*das unmittelbare, innigste Eingebettetsein des Denkens in die Rede*), *logosean*, (edo baita *dialogoetan*)» (*Lexis*, III). Eta horrela, Erromaren operazioa «pentsatu, izan eta hitzegin» batasunaren zatiketa bezala deskribatzen da, hori dela eta «*Ratio = logos* ken *oratio*» formula emanaz. Baina gauza ez da grekera edo griegoa ulertzea, baizik orohar hizkuntza (eta kultura) ulertzeko dauden moduak eta griegoaren erreproduzioan finkatu direnak salatzea.

64. Kontzientzia maila berri baten gorakadan aipatu nahi den une baten aurreko egoera izendatzeko *Historiaurrea* hitza erabili denez (horrela, tradizionalki, idazketaren unerako; horrela, Marxengan, klase proletarioak klase kontzientzia hartzen duen momenturako), honi dagokionez, honela hitzegiteko aukera hartzen dugu: badago kultur historiaurre egoera bat non hizkuntzak gauzez hitzegiten eta gauzen gainean eragiten bait du, baina aldi berean, hizkuntzaren operazioaren produktuak ez dira bihurtu hitzegin daitezkeen gauza (edo zehazkiago, ez dira oraindik garatu automatikoki gauza bihurtzeko mekanismoak). Zeruaz eta pasioez legeak daude, meditazioak daude, sorginkeriak eta konjuroak esaten dira, abestiak eta antzerkia egiten, arbasokoen balentriak kontatzen, hormetan edo ontzietan bizitzako eskenak margotzen, eta noski, etxeak, ontziak eta zigoinalak eraikitzen dira, jainkoen irudiak eta aldareak, goldeak eta labanak eta orratzak eta lepokoak (beste leku batean azalduko da nola sartzen diren azken teknika horiek lengoaiaren operazioan); baina han hemenka hizkuntzaren gauzen gaineko iharduerak produktu horietako batzuk gauza bihurtzen ditu (gauza bihurtzearen lehen agerpena, seguraski, tresna izenen kategoria baten agerpenean suma dezakegu, hizkuntza indoeuropeotako *-trom* erroaren kasuan bezala), eta baita golde batek ere, goldatzen ez duen unean, ez dauka inolako esistentziarik; eta noski, oso nekez bakarrik agertzen dira *ontzi*, *eraikin*, *bitxi*, *abesti* edo *lege* motako substantibo nahiko abstraktoak, buztingintza, eraikuntza, zilargintza, abesti edo menpekotasunaren produktuak gauza bihurtuta daudela, hau da, iharduten duten gauza izatetik diren gauzen erreinura pasatu direla frogatzen dutenak. Eta noski, urruti dago kontatu, hitzegin, mediatu 'aditzek' *kontakizun*, *elkarrizketa*, *meditazio* bezalako substantiboak garatu dituzten eguna, zeintzuren sorrerarekin esan bait dezakegu hizkuntzaren produktuak automatikoki gauza, hizkuntzaren objektu bihurtzeko prozedurak martxan daudela eta beraz, kulturaren historia (adierazmolde horren zehaztasun gabezi guztiarekin!) hasi dela: propioki historikoa den Kultura, bere buruaren historia egiteko ahalbidearekin bat datorrena.

65. Beraz: kontzientziaren kontzientzia edukitzeko ahalbide horrek (kontzientzia gauza bihurtzea dakarrena, noski), abstrakzio maila berezi batera igotzea esan nahi du, eta era honetan zehazten ahalegintzen gara: pentsamenduaren esistentzia, ideien esistentzia, kontzeptuen esistentzia. Hau da, kontzeptuen bidez pentsatzea 'pentsatze' kontzeptuaren berdina da; eta 'kontzeptuaren' kontzeptu agerpenak errealitatea eta ideia aldentzea dakar, eta aldi berean esistentziaren eta kontzepzioaren arteko nahasketa: azkenik, azaldu da bai izatearen modu bat, kontzeptua, zeinarentzat esisitzea eta izatea gauza bera bait dira. Eta operazio linguistikoaren seme antzeko hori da ordea, aita eta ama aldentzen dituen, eta aldentzean ente independente bezala sortzen ditu: kontzeptuaren errealitatea finkatzen den unetik bakarrik hasi bait daiteke hizkuntzaz eta hizkuntzarengandik independentea den errealitateaz hitzegiten. *Hizkuntza* sustantibo arrunta sortuta, gure artean erabilera arrunta duen eran 'hizkuntza' kontzeptua sortuta, horrek aldi berean 'gauza' kontzeptua, hizkuntzaren objektuarena esan nahi du, baina hizkuntza eta bere gauza ezin dira esistitzera iritsi ideiarene eta kontzeptuaren bitartez ez bada, eta horrela errealitatearen forma sortzailea eta jerarkikoki primarioa izatera iristen da. Eta horrela dator bat Historia kontzeptuaren nagusitasunarekin. Baina, hemen aurkitu nahi duguna da ea kontzeptuaren nagusitasunak nola frogatzen duen behin betiko bere presentzia bakarrik, eta frogatzean, nola baiesten duen aldi berean hizkuntzatik hizkuntzarako itzulpenaren agerpenarekin.

66. Oinarrizko azterketa horretara itzultzen gara: itzulpenak gauza bihurtutako pentsamenduaren esistentzia esan nahi du (bere produktu guztien gauza bihurtze prozesuaren gailurra bezala): bi hitzen arteko parekotasuna, bien pean dagoen kontzeptu amankomunaren bitartekotzan bakarrik oinarritzen da, bi diskurtsu linguistikoren identifikazioak logika baten sorrera dakarren bezala. Horrela, Zafarewicz-ek, oraindik nolabaiteko inozokeriarekin orain urte batzuk Hartmann-en *Zur Konstitution einer allgemeinen Grammatik* liburuaren aipamena *Kratylos* aldizkarian (1963, 17. or) egitean, hau zioen: «Itzulpen prozesuen erdiko etapa horrela azaldu da: hizkuntza bateko edukiaren eta itzulpenaren artean eskema logikoaren etapa

dago, edukiaren azterketaren ondorioa»; bertan, ordea, itzulpenaren eta erdiko eskemaren azalpena nahasia eta tradizionala da oraindik, eta nahasketa are argiagoa da, eskema logikoa, bukaeran, edukiaren azterketa operazioaren ondorio bezala aurkezten denean. Ikusi dugunez, ideien nagusitasuna itzulpenarekin sortzen da, aniztasunaren batasunari eusteko premia praktikoaren presioaren pean; eta prozesua batez ere generiko bezala azaldu badugu, erakutsiz nola itzulpenak azaltzen eta eusten duen Historiaren egunsentian eskema logikoen nagusitasuna, nolabait izan da genesiak egungo egoera, erreala, indarrean dagoena argitzeko mito historiko bezala jokatzeko: hizkuntz aniztasunari beren parekotasun printzipioarekin batera eutsiz, itzulpen praktika, kontzeptuen nagusitasuna eta eskema logikoen etengabeko lekukoa (teorikoki) eta euskarria (izatez) da.

67. Azken hamarkadetan behin eta berriz azaldu den susmo bat da, nagusitasun hori, zerbait unibertuala eta beharrezkoaren («hor dagoela») itxuraren azpian kontzepzio partikular baten tirania dela, grekerarena alegia (bere forma latinoaren pean, jakina), kontzepzio horri propioki dagokion hizkuntza gure hizkuntzen sustratoa izan delako. Adibide pare bat jartzearren, 1951an, 'Joachim Jurgius' Zientzien Elkartearen lan saioen agirietan, *Sprache und Wissenschaft* bezala argitaratuetan, Gotinga, 1960, (beste eritzi batzuen artean, esate baterako Snell edo Hartmann-enak) H. Wein-en hauek entzun ziren: «Europar motako zientzia oro antzinako Greziako hizkuntzak baldintzatuta daude, zeinaren funtsezko estrukturan, numeroak, denborak, errealtateak (*Dinglichkeit*) paper garrantzitsua jokatzen bait dute»; bestalde, L. Rougier-ek *La métaphysique et le langage* (Paris, 1960) liburuan, arazo metafisiko tradizionalak hizkuntz arazoak direla esaten zuen, eta gure hizkuntzen gauza batzuk aztertzen zituen, adibidez aldi berean esistentzia-aditza zen lotura-aditz bat edukitzea; eta azkenik W. Wieland-ek *Die aristotelische Physik* liburuan (azpititulua: «Zientzia naturalen sorrera eta printzipioen azterketaren baldintzapen linguistikoak Aristotelesengan»), Gotinga, 1962, substantzializazio prozesua hasieran erlazioak zirenen (kualitatea, kausa, amaiera, esentzia) bidez deskribatzen ahalegintzen zen, horrela,

Mendebaldeko pentsamendu zientifikoaren moduloak Aristotele-sengan oinarrituz. Bien bitartean, hizkuntz arraroen ikertzaileek, amerikanoek batez ere, eta B.L. Whorf-ek bereziki, hizkuntza horiei zegozkien eta griegoarentzat edo guretzat ezezagunak ziren 'mentalitateak' edo kontzepzio eta eskema logikoak ezagutarazten zituzten atsegin handiz.

68. Baina arazoa ezin da orain era horretan planteatu, ikusi bait da bereziki griegoa dena orokorrean abstraktoa denarekin (Kultura-rekin, kontzientziaren kontzientzia den zentzuan) nola nahasten den, eta hain zuzen zerbait partikularra (hizkuntza bat, kultura bat) izate-ra, bere lehen erreproduziotik (erromatarrera itzultzean) abiatuz amaierarik gabe orokortzailea egiten den momentuan bakarrik iristen dela, eta beste 'mentalitate' eta kontzepzioen deskribapen bera ezin egingo litzateke, aldi berean Mendebaldeko sistema bakar horretara itzuli gabe, non bait daude munduaren edo 'mentalitatearen' kontzepzio kontzeptuak. Ez da griegoari griegoa den neurrian egiten zaion kritika edo liberazioa, baizik griegoari unibertsala den neurrian egiten zaiona; ez ideia griegoen liberazioa, ideien liberazioa baizik.

69. Gertatzen dena da, itzulpenaren agerpenean oinarritzen eta azaltzen ikusi ditugun presupostu historikoek, eta aldi berean hizkuntzen arteko itzulpen praktikaren jarraipenak, kontzeptuen errealtitate batean, horrela deitzearren, eta etengabe bere kontzepzio propioak baldintzatutako mundu batean bizitzera behartzen gaituztela; non, hitzak forma arazo hutsak diren bezala (izan ere, modu batera edo bestera, hizkuntza batean edo bestean, gauza bera aipatzen bait dute, eta horren arabera ulertzen gara guztiok), era berean eta aldi berean materia posiblea eta bizitza posiblea, materia inerte huts bezala, mundu honetan errealki zerbait izan arazten dituzten kontzeptuen pean bait daude. Eta horrela, hiltun ezberdinen arteko komunikazioak (itzulpen aukerak), faltsifikazio amankomuna unibertsalki ezartzen du eta kontzeptu eta eskema bitartekotzaile horietako bakoitza derrigorrez onartu beharrak, eskema eta kontzeptu horiek

guztiok ordezkatu beharra dakar berekin, zorionez hitzekin nahastutako bizitza posible baten ordezkari.

70. Baina, norbaitek hizkuntza unibertsal bat, komunikaziorako giza bitarteko orokor bat sortuz (hain zuzen, behin eta berriz nahi izan den bezala) hizkuntza aniztasunarekin bukatu nahiko balu (eta beraz itzulpenarekin), hizkuntza bakar hori, tamalez, hizkuntza ezberdinen itzulpenean finkatu behar izan den sustantzia linguistikoaren baieztapen eta kodifikazioa baino ezin izango litzateke; eta horrela hizkuntzaren sustantzia errealitate osora igoz, Sustantzia orohar, ordezkatu ezin den askatasuna ordezkatzeko duen Sustantziari eusten jarraitzeko ere balioko luke, eta horrela Gizadia bere hizkuntza baino ezagutzen ez duen tribu isolatu bat, eta beraz, munduaren ikuspuntuaz daukan bere kode propioaren esklabu bilakatuko litzateke nahi eta nahiez. Chomskyren eskola eta beste batzuk gaur egun unibertsal linguistikoak bilatzeko egiten ari diren ahaleginak, hizkuntzen arteko itzulpen automatikoaren premiak eraginda daude azken finean, eta bilaketa horrek arrakastarik izango balu, gauza bat lortuko luke, Gizadia sustantzia erreal gisa finkatuko litzateke, den bezala eta Gizadiak Historia idazten zuen neurrian Historiak Gizadia egin duen bezala, baina oraindik pentsa daiteke ordeza bere patua hain zuzen bere beste patuaren ukazioa zela. Eta hizkuntza logikoa, edo kiribila kiribilduz esaten den bezala logika formaldun hizkuntzari buruzko ahalegin emankor haiek, garbi dago honi dagokionez ez dakartela ezer berririk hizkuntza matematiko tradizionalaren parean: berak sortutako unibertsoei buruz hitzegiteko egindako hizkuntza da, kuriosoki naturala deituriko lengoaiaren funtzioekin zerikusi gutxi daukana, non funtsezkoa bait da objektu arraro eta indefinitu batekiko kontraesana; munduaz, mundu hori sorkuntza linguistiko hutsa izango litzatekeen ikusmolde beldurgarriarekin bakarrik hitzegin ahalko litzateke zehazki (eta lengoaia formalizatu batean zehaztasunarekin hitzegitea, mintzoa bera da).

71. Edozein inteligentzia edo bizitza posible ordezkatu digun kontzeptu-munduaren kontra errebolta bat egiteko bide batez pentsatzea zaila da —‘ezinezkoa’ ez esatearren—, batez ere Babel-

go seme-alaba sakabanatuek elkar ulertzeko premiak itzulpenaren errealitatea ezarri duenetik. Zentzuz idazten zuen B. Willeyk bere *Seventeenth Century Background* liburuko 2. orrialdean (Londres, 1934): «'Egite bezala ikusitako dotrinak' pentsamenduzko ahalegin handiekin, ikus daiteke dotrinak bakarrik direla, eta ez egiteak». Baina zentzuz, inork ez du pentsatuko pentsamenduzko ahaleginik handienak ere ez direla horretarako gai; aldiz pentsa daiteke, kontzeptuak suntsitzeko, seguraski, hitzak baino zerbait gehiago beharko dela.

SINTESIS

Apuntes para una historia de la traducción

Apuntes para una historia de la traducción es un artículo de Agustín García Calvo publicado por Siglo Veintiuno, Lalia. *Ensayos de estudio lingüístico de la Sociedad*, Madrid, 1973. Catedrático de Latín y traductor reconocido de obras de la Grecia clásica, a través de este artículo nos ofrece una reflexión sobre los orígenes de la traducción.

Los traductores de lengua vasca, nos hallamos inevitablemente atrapados por los problemas lingüístico-traductológicos que diariamente se nos presentan en la práctica de la traducción. Esa carga nos impide tomar cierta distancia de la actividad diaria y nos imposibilita pasar de lo particular a lo general y viceversa, estamos continuamente inmersos en lo particular. Este trabajo es una invitación para dar uno de esos pasos que al igual que para los traductores en general, también es muy necesario para nosotros, traductores de lengua vasca. Se trata pues de un artículo en el que se analiza la relación entre lengua, Cultura y traducción desde una perspectiva filosófico-lingüística.

SYNTHESIS

Notes for a history of translation

This is an article by Agustín García Calvo, published by Siglo Veintiuno, Lalia. Essays on the linguistic study of Society, Madrid, 1973. Professor of Latin and well-known translator of Greek classics, through this article offers us his thoughts on the origins of translation. As Basque language translators, we find ourselves inevitably ensnared in problems of a linguistic-traductological nature which crop up daily in this kind of work. This prevents us from distancing ourselves from our daily work and makes it impossible for us to stand back to get a more general view of what we are doing—we are always immersed in our own affairs. This article is an invitation to take this step which, as in the case of translators in general, should also be taken by Basque translators. This article analyzes the relationship between language, culture and translation from the philosophical-linguistic point of view.

Itzulpenera hurbiltzea (I) (Zenbait errezeta)

Karlos del Olmo

Elenari, bihotz-bihotzez.

Itzulpenaren inguruan ari garelarik, edota, zehazkiago esatearren, itzulpengintza teorizatu beharraz dihardugarik, askotan maila teorikotik ezin igarota geratzen gara. Bestetan, zergatik ez esan, kontrara ere gertatzen da, hau da, urte luzeetako praktika ezin aberatsagoak nola teorizatu ez dakigula gabilta. Egia esan, itzulpengintzak eza-gutu ditu teorilari eta teoria ugari azken urteotan. Horrela, esango duguna atzo arratsaldekoa ez dena jakin arren, itzulpenaren ezintasuna aldarrikatzen dutenetatik itzulpengintzaren hainbat alderdi teoria bihurtu dutenenganainoko eritzi eta proposamenak aurki daitezke. Azkenetariko bat dugu Peter Newmark teorilari (eta itzultzaile) ingeles. Ingeleserako eta ingelesetikako itzulpenak aztertu ditu, helburu nabarmen biri begira:

- a) Itzulpenaren inguruko zientzia edo jakintza-alorrei maila zientifiko beharrekoa ematea eta...
- b) Kasuz kasuko azterketa «praktikoa», hau da, ingelesak itzulpenaren aurrean daukan kasuistikarako soluzio praktikoen «bildumatxoak». Itzultzaile ezagun bati mesprezuzko hitz batzu entzun nizkion behin, «errezetak» baino ez zirela zioelarik. Nik neuk, itzulpengintzan maisu eta aditu ez naizen alde-tik, sukaldari onen errezetak nahi nituzke, saio apalen bitartez

jaki goxoak lortzen ahalegintzeko, beren mailaraino inoiz (noiz-bait) heltzeko esperantzak bultzatu eta adoretuta.

Estilistika euskal itzultzaile eta idazle askoren burukomina izan da urte askoan (euskaraz estilorik ez dagoela esateraino heldu bait gara). Egia da «estilo libururik» edo «eskulibururik» ez daukaguna (bidean zerbait datorkigu!), eta horrek arlo hura sakondu beharra areagotzen du, interferentziak, zehaztasun ezak eta abarrek itotzerainoko egoeretan jartzen gaituzten bitartean.

Jarraian doakizuen Peter Newmark profesorearen *Approaches to Translation* liburuko zenbait pasarteren laburpentxo bat baino ez da, zehazkiago, bigarren atalari dagokiona. Zenbait ohar oso baliagarriak dira ingelesetik itzultzeko orduan, eta areago, edozer itzultzeko orduan. Euskaraz badira antzeko lan aipagarriak (adibidez, J. Garziaren «Interferentzia ikustezinen xerka», Senez-en argitaratua). «Filologoz» beteriko geure fakultateotan «euskal itzulpenaren» (euskararen, finean) nondik-norakoak aztertu beharraz ohartuko denik agertuko delakoan, hona hemen «hausnarketarako» (zenbaitek berba hori gustoko izan ez arren) zenbait belar goxo:

Itzulpenaren linguistika:

1.- Ordena eta konbinaketa onargarriak

«Sorburu hizkuntzan konbinaketa onargarriren bat dagoenean, itzultzaileak bere baliokidea aurkitu eta erabili beharko du xede hizkuntzan, egonez gero.» (114. or.) Esan beharra dago Newmark irakasleak konbinaketa berba erabiltzen duela honako hau adierazteko: hitz edo hitz-multzo batek osetzen duen ohizko metaketa (adibidez: «**Lur jota (egotea)**»).

Konbinaketa, normalean, bi edo hiru hitzek osaturik egoten da, gramatikalki lotuak.

«**Lur jota (egotea)**» konbinaketa bat da «jo» aditzak eduki ~~dit-~~zakeen esangura guztiak bakar batera mugatuta daudelako. «Lur»,

berez, ez da asko aldatzen, bere ohizko erabileratik baztertu samar agertzen bada ere. «**Txano bat eroste**a» ez litzateke konbinaketa bat, «txano» eta «erosi»-ren adierak elkar mugatzen ez dutelako.

Konbinaketak sintagmatikoak (horizontalak) —ohizko egiturak— zein paradigmakoak (bertikalak) izan daiteke. Bigarrenak soilik bihur daitezke konbinaketa sintagmatikoki ordenatzen direnean.

Sintagmatikoak zazpi taldetan sailka daitezke:

a) Berboa + berboaren izen osagarria (ingelesez): euskal ordena justu alderantzizkoa da: «**hitz egite**a», «**meza emate**a», «**euria dakar**». Itzultzaileak aditzaren baliokidea aurkitu beharko du (*tengo frio = hotz naiz*). Horrelako konbinaketetan aditzak funtzio operakorra izaten du eta izenak, maiz, ez du, berez, ekintzarik adierazten.

b) Determinatzailea + adjektiboa + izena (Ing.): euskal ordenamendua kontrakoa da. Izen bakoitzarentzako adjetibo egokia aurkitu behar da. a) baino aukera zabalagoa dugu bigarren mota hau eta duen indarra beste hizkuntzekiko kontrastean baino ez da ikusten. «**a large apple**», «**une grosse pomme**», «**una manzana grande/hermosa**», «**una gran manzana**», «**sagar ederra/handi(-a, bat)**».

Jakina, euskaraz orden bakarra egoten da ohizko adjektibazioan, horrela zenbait gauza korapilatzen direlarik, besteren batzu erraztu arren. Gogoratu beharrik ez dago behin baino gehiagotan entzun izan dugun eztabaida: «Mutilak, euskaraz, ez dira ederrak», edo erdal «**tonto**» itzultzeko orduan sortu izan diren desegokitasunak.

Zenbait izenek adjektibo-aukera zabala izaten dute alor semantiko askotan, batez ere ezaugarri fisikoei dagokienez (emakume: beltzarana, gaztea, luzea, ederra, azkarra, lotsatia...), beste batzuk, aldiz, aukera mugatuagoa izaten dute (lege: behin-behinekoa, derri-gorrezkoa, mamitsua...). Jakina, tradiziozko erabileren gainean ari gara, literatur usadioz landa.

c) Adberbioa + Adjektiboa (Ing.): Klitxeak izaten dira («**immensely important**»). Adberbiorik egokiena aurkitu beharko du itzul-

tzaileak. Erromantzeetan ez da oso egitura arrunta (beste batek ordezkatzeko bait du: «adjektiboa + izena»: «**de una inmesa importancia**»). Euskarak ingelesaren antzera jokatzen du: «**ondo polita da**», «**bereziki adierazkorra**»).

Aurreko konbinaketa mota biak baino askoz ere gutxiagotan agertzen da.

d) Berboa + adberbioa edo adjektiboa (ing.): euskal ordena aldeantzikoa litzateke. Kategoria mugatuagoa. Adberbioa edo adjektiboa ordezkatu behar lirateke («**feel well**»: «**gustora/ondo egon/sentitu...**», «**work hard**»: «**gogor/gogotik lan egin...**»).

e) Subjektoa + berboa: bi talde bereiz daitezke:

e1: Izenek eta aditzek elkar erakartzen duteneko: «**The dog barks**» («**Txakurrak zaunka egiten du**»). Askotan —animalien kasuan, batez ere— berboak ez du beste subjektorik edukitzen. Pareko esamoldea aurkitu beharko da.

e2: Subjekto baten ostean aditz jakin bat agertu ohi da ohizko usadioetan. Kasu horietan, berbo egokia aurkitu beharra dago: «**the door creaks**» («**ateak kirrika egiten du**»).

f) Izen zenbagarria + kopurua adierazteko izena: aipatu beharra dago kasu honetan ingelesa eta euskararen ordenak berdin-berdinak direla. Itzultzaileak esamolde baliokidea aurkitu beharko du, hizkuntza bakoitzak bide desberdinak aukeratzen bait ditu: «**a cake of soap**» («**pastel bat xaboi**»), «**pastilla de jabón**», «**xaboi-zatia/alea/granoa**».

g) Izen kolektiboa + izen zenbagarria: euskaraz, atzera ere, ordena desberdina da. Izen kolektiboa aurkitu beharko da: «**bunch of flowers**», «**lore sorta bat**».

Klitxeak, estilistikoki zein semantikoki, konbinaketen azpimultzo bat dira. Osagarrietariko bat erredundante bihurtu edo baliogabetu egin da. Klitxea ohizkoa den egitura batez ordezkatzeko saiatuko da itzultzailea, edukia distortsionatu gabe argitzerik badago.

Konbinaketa paradigmaticoak ondo zehazturiko hierarkiak ditu oinarri: ahaidetasuna, koloreak, taxonomia zientifikoak, hierarkia instituzionalak (aita-ama, esmeralda berde distiratsu mota bat izatea, zuzendaria, zuzendariordea, idazkaria). Objektu extralinguistikoa usu berbera den arren, kultura bakoitzak bere esamoldeak garatzen ditu. Batzutan, hizkuntza gehienetan onargarriak diren sinonimo eta antonimoz inguratzen dira. Antonimoen artean hiru talde egin daitezke:

a) Elkar osatzen duten objektuak, talde bat (**zeru-lurrak**) edo serie bat (**zuzendaria, irakaslea, ikaslea**) eratzen dutelarik.

b) Kualitateak (adjektiboak edo adberbioak): kontrakoak direnak edo kontraesanguratsuak direnak. Termino kontrakoak formalki erakusten dira: **hotz/bero, gazte/zahar**. Testuetan alternatiba gisa agertu ohi dira: «**iluna edo argia**»...

c) Ekintzak (berboak edo izenak). Termino bikoetan, bigarrena aurrekoaren erantzuna izaten da: «**joan/etorri**». Hirukoteetan, bigarren eta hirugarren terminoak lehenengoarekiko erantzun positibo eta negatiboak izaten dira: «**eskaini/onartu/gaitzetsi**». Ekintzek elkar osa dezakete a) kasuan bezala: «**ibili/korritu, lo egin/esnatu**».

Badira bi konbinaketa sinonimozko:

a) Besarkatzailea:

a1) «Generoa/espezia/subespezia» motako hierarkiak, item baten mailaketa adieraz dezaketelarik (oso orokorra izatea ala oso zehatza), adibidez «**metala orkesta barruan**».

a2) Sinekdokea.

a3) Metonimia: «Gasteiz» = «(Eusko) Jaurlaritzza», termino aldagarriak.

b) Bigarren mota oso idiomatikoak izaten da, eta buruko minak eman ditzake: «**zor nahiz lor**» eta «**cueste lo que cueste**» esamoldeek ez daukate bana-banako baliokidetzarik.

Konbinaketak hizkuntzaren burdinbide lexikoak dira. Itzultzaile batek konbinaketa baliokideak aurkitzen dituenean, derrigorrez erabili beharko ditu, testu/itzulpenaren osagai aldaezinak bait dira. Faktualak zein extralinguistikoak izan daitezke, termino instituzionalak zein linguistikoak. Itzultzaileak kontuz jokatu behar du, haiei jarraitzeaz gain, sorburu hizkuntzan apurtuak izan direnean xede testuan apurtzen jakiteko, ildotik behar beste aterako delarik.

2.- Pentsamendu baten erdigunea: egitura logikoa

Itzultzaileak azaleko egitura nahasi eta ilun bat aurkitzen duenean, sakoneko egitura aurkitzera jo beharko du (ez dago zertan Chomskyk proposaturiko azterketa egin, lagungarria izan badaiteke ere). Newmark-en aburuz, lehenengo lana subjekto logikoa aurkitzea litzateke, berboak bigarrenik eta, hirugarrenik, beste elementuak dagozkien lekuetan kokatzea. Oinarrizko egitura honako hau litzateke:

Subjekto biziduna (gizakia) + operadorea (berbo iragankorra) + osagarri zuzen bizigabea. (Jakina, orden hori ingelesarena litzateke, euskararena subjektoa + objektoa + berboak bait da.)

Egitura hori, hain zuzen ere, bilatu behar luke beti itzultzaileak, ezer baino lehen.

3.- Hiru serie kategoria semantikozko

Lexiko-osagaiek hiru kategoria semantiko mota eduki ditzakete. Itzultzaileak item edo osagai bakoitza kategoria guztietan kontrastatu beharko du, testuinguru bakoitzean ze egitura duen jakiteko.

* Lehenengo serieak sei aplikazio-kategoria dauzka:

a) Adiera primarioa edo nuklearra (semema): hitz hutsak, baka-rrik edo testuingururik gabe dagoelarik, iradokitzen duen lehenengo eta berehalako adiera. Hitz gehienek badaukate adiera bat, aditu eta hitzun gehienek onartua. Lehenengo adiera, zentzua, erabilerak berak baldintzatzen du. Xede-hizkuntzan duen adiera hori ez da nahas-

tu behar sorburu-hizkuntzan zeukan (daukan) adierarekin —maileguen kasua («**sanidadea**», esaterako)— edota bere adiera etimologikoarekin.

Garai batean gehien erabiltzen den zentzu edo adiera izaten da. Askotan, aspaldiko adiera etimologikoaren gainetik, badira beste bi gehiago. Hitz batek bi adiera dauzkanean (konkretua eta figuratua), zehatzena da nuklearra. Adiera kontzeptualak dauzkan hitz askok jatorrizko adiera konkretuak galduta eduki ohi ditu.

b) Bigarren adiera: serietan edo konbinaketetan zehazten da maiz. «**Denbora**» absolutua izan daiteke filosofian, musikan oso kontzeptu berezitua, eguraldia zenbait lekutan, luzea, laburra, garai historiko bat, denbora bidaltzea, denbora pasatzea, denbora ematea e.a.

c) Bigarren adiera eratorriak: bigarren zentzuen aldakiak edo adardurak dira. Bigarren adierak besteen gainetik jartzen ez diren bitartean, beren deribatuak sinonimoak izaten dira, zelan edo halan («**bel-durtzea**», «**ikaratzea**», «**izutzea**»,...).

d) Noizbehinkako adierak: konbinaketa batean agertzen direnak: «**esku-zabal**»...

e) Adiera berriak: neologismo semantikoak (formalekiko oposaketan). Hitz baten adiera berriak: «**oreka**», adibidez (zabalkuntza semantikoa).

f) Hapax-adierak: adibide edo aipu bakar batean baino agertzen ez direnak.

Testua bereziki adierazkorra ez bada, itzultzaileak ez du neologismo semantikorik edo hapax-ik sortu edo erabili behar azaldu gabe.

* Bigarren seriea (kualitatiboa):

a) Fisikoa edo konkretua: forma materiala daukate eta zentzumenek hauteman ditzakete.

b) Kontzeptuala edo abstraktua: gogoak hauteman ditzakeenak.

c) Figuratiboa edo metaforikoa: oinarri-oinarrian, fisikotik kontzeptualera igarotzean datza. Zer esanik ez, oso multzo zabala da eta itzultzaileak arazoak izan ditzake maiz, zeren eta honako hauek ager bait daitezke: hitz soilak, (similak, metonimiak, e.a.), esamoldeak, esaera zaharrak, parabolak, alegiak, alegoriak...

Zentzuari eusteko egin beharreko aldaketa guztiak egingo ditu itzultzaileak.

d) Teknikoak edo berezituak: hitzaren adiera mugatu bat estandarizatu egiten da arlo edo jakintza motaren batean. Kategoria hau guztiz berezia da, hitzaren beste adiera eta sinonimoetatik isolatzen delako.

e) Kulturala: talde berezi baten usadioak baldintzatzen du adiera: «**gay**», «**programazioa**», «**kolega**», «**berdeak**», «**kaletarra**»... Itzultzaileak, batzutan, hitzaren konnotazioei buruzko oharra eman beharko ditu.

f) Famili/lagunartekoak, *slang*...: askotan, konbinaketetan baino ez dira agertzen.

g) Hutsa: konbinaketetako zenbait hitzen esangura, askotan, irentsi eta huts bihurtzen da: «**gau-pasa 'egitea'**».

Item singleek adierak eduki ditzakete a) eta b)-n edo a) eta c)-n, baina ez b) eta c)-n, d)-ko batzu a)-n ere egon daitezkeelarik. «**Akatsa**», esaterako, lagunartekoa izan daiteke, baina baita zientifikoa edo kultur alorrekoa ere.

Itzultzaileak, askotan, hankasartzeak egiten ditu kategoria okerretik aukeratzen duenean. Mikrotestu-inguruak ilunak direnean, makrotestu-inguruak erabaki beharko du.

Esan behar da aplikazio konkretu eta figuratiboak ez direla nahastu behar lehenengo eta bigarren adierekin, askotan adiera konkretu eta figuratiboak adiera nagusi bihurtu bait dira.

* Hirugarren seriea (logikoa). Lau aplikazio semantikok osatua:

a) Denotatiboa (testuala): hitz baten esangura espezifiko eta zuzena, argazki, diagrama edo irudi baten bitartez argi erakuts eta

termino behagarrietan deskriba daitekeelarik. Adiera kognitiboa, alegia.

b) Intentsioa (extra-kontestuala): termino batek adierazten duen ezaugarria edo ezaugarri-multzoa, izendaturiko gauzari berezko zai(zki)ona(k). Horrela, «**Auschwitz**»-en intentsioa «Poloniako hiriburu bat» izan daiteke, baina hitz horrek esaldian ze funtzio duen aztertu beharko du itzultzaileak. Intentsioaren menpean egongo lirajteke, beraz, analisi semiko eta konponentzialak eta beharrezkoak dira hitzez hitzeko itzulpena ezinezkoa denean eta xede hizkuntzan terminoa ulertuko ez delako, itzultzaileak transliteratu nahi ez duenean.

c) Estentsioa (extra-kontestuala): termino batek denotatzen dituen gauza guztiak, terminoa aplikagarri zaien gauza guztien multzoa, hitz batek har dezakeen hedapen osoa.

«**Auschwitz**» hitzak ez dauka estentsio denotatiborik, baina bere estentsio konnotatiboa «Dachau, Mauthausen, Treblinka, ...» eta beste horrenbeste izan daitezke.

d) Konnotazioa (kontestuala): hitz edo hitz-multzo baten esanguraren alderdi batek igorle edota jasotzailearengan eragiten dituen sentimendu edo ideietan oinarritzen da. Kolokiala izaten da eta esangura hitzak esplizitoki adierazi edo izendatzen duenaz atetik egoten da. Botere handi edo txikiagoko inplikazio bat da, oso zehatza zein oso zehazkabea izan daitekeelarik. Batzutan, hitzaren adiera arrunta gaindi dezakete: «**Auschwitz**»: «**genozidioa, hilketa izugarria,...**»

* Laugarren kategoria bat adjektibo eta berboei dagokiena da, honako hauek aipatzen dituztenena, hain zuzen ere:

a) objektuak, b) pertsonak eta c) ekintza, kualitate eta substantzietatik datozen kontzeptuak. Den-denak pertsona, gauza eta horietatik eratorritako ezaugarriei ezar dakizkieke.

a) «**errepide izugarria**», b) «**gizon izugarria**», c) «**hilketa izugarria**»

4.- Hizkera ebaluatzailea

Hizkuntza gehienetan, eritzi eta balorazioak egiteko hitz desberdinak erabiltzen dira, hitz mota desberdinez, gainera.

Itzultzaileak eritziak eta balore moralak adierazten dituen hizkera aurkitu eta baloratu behar du, horren bitartez, idazle, irakurle edo giza-aldra baten eritzi eta balio inplizito zein esplizitoak adierazten bait dira, testuinguru sozio-kultural baten ingurukoak, alegia. «**Ona/ondo**», «**polita**», «**izugarria**», «**guztiz ona**» eta horrelako hitzek ez daukate oso esangura zehatzik idazlearen edo taldearen erabilerak sortzen duen eskalan kokatzen ez diren bitartean. Hitzak, beraz, xede-hizkuntzan baliokide direnen eskalako baloreetara itzuli behar dira. Beste zenbait hitzek bi alderdi izaten dituzte: alde batetik, informatiboak baino ez direnak leudeke, bestetik, balorazioak egiten dituztenak («**txakurrak**» = poliziak). Hizkuntza gehienek sorta desberdinak daukate honelako eremuak adierazteko: hil, gizona, emakumea, amodio/maitasuna, jatea, edatea, e.a.

Bada hirugarren multzo bat, itxuraz informatzaileak izanda, kultur testuinguruan adierazkor bihurtzen diren hitzek osaturikoa: «demokrata», «burgesa», «atzerakoia», «aurrerakoia», «komunista», «formalista», «bilbotarra», «errebisionista», «giputza», e.a. Adiera edo balore hori xede hizkuntzan ez balego, itzultzaileak oharrak eman behar lizkioke irakurleari, jatorrizkoaren eritzi-edukia gordetzearren. Areago, idazleak egindako ebaluazioaren subjektibitate-maila ebaluatu behar luke itzultzaileak.

5.- Hizkuntz intentsitatearen eskala

Hizkuntza ebaluzio zein intentsitate-eskala baten arabera idazten da; kualitateak eta ekintzak adierazten dituzten hitz guztiak gradaturik daude indarra eta ahultasunaren artean, energia eta geldotasunaren artean. Intentsiate-gradua ebaluatzea subjektiboa izan daiteke. Zaila da «**mild hostility**» bezalako esamoldeak itzultzea, «**mild**» arina eta moderatua denaren arteko kontzeptua den aldetik.

6.- Erregistroa eta gizarteak baldintzaturiko hizkera

Idazleak propio erabiltzen du bere-berea duen hizkera adierazkorrara, dauzkan ikuspegiak eta eritziak emateko, inkontzienteki maiz.

Psikolinguistikan erabiltzen den «**erregistro**» terminoa oso zabal eta mugagabe bihurtu da eta gizarte barruko usadioek baldintzaturiko erabileretarako erabiltzen da. Zenbait rol eta egoeratan jendeak hizkera berezi bat erabiltzen du, ahozkoan zein idatzizkoan, fonologiko, sintaktiko eta lexikologikoki berezia den hizkera bat, erabiltzaileen diskurtsoan erreperitorio hori marginala edo garrantzirik gabekoa izan daitekeelarik.

Gehien eragiten duten faktoreak honako hauek lirateke: adina, sexua, klasea, lanbidea, kasta, erlijioa, jaioterria, belaunaldia, lurraldea, eskolaratzea, ezagupen kulturalak, elebitasuna, e.a.

Bestalde, deskribatzen den gertaeraren modua eta egoerak ere eragingarriak dira, sozialki baldintzatuak bait dira.

Erregistroek itzultzailearentzat eduki dezaketen interes nagusia honako puntu hauek laburbiltzen dute:

- Eremu lexiko bat ematea, kasurik onenean. Irakurketa egokia eskaini beharko da.
- Zenbait hitzen desitxuraketa.
- Zenbait erabilera sintaktiko berezi.

Erregistroa hizkera edukatu estandarretik oso urrun badago, itzultzaileak informazioaren itzulpena egin behar luke, zehar-estilo moduko bat sortuta. Hizkuntzaren ezaugarri hori —sozialki baldintzatu izatea— oso garrantzitsua da antzerki-literaturan eta publizitatean. Normalean, itzultzaileak ez ditu klase edo lurralde-erregistroak imitatu behar (berea izan ezik) eta ez du, sistematikoki, bere estiloa «zahartu» behar klasikoak itzultzeko orduan: hankasartze batek lekuz kanpo jarriko luke itzulpen osoa eta itzulpenak oso ukitu artifiziala har lezake. Iragarkietan irudiak sorburu-testuak baino hobeto eman ohi du itzulpenerako giltza.

7.- Lengoia eta erreferentzia

Literarioak ez diren pasarte eta esaldi gehienak, aldi berean, lengoia, kanpoko-errealitatea, zentzua, erreferentzia, pragmatika, estilistika eta kognizioa dira. Linguistikoki zaila den esaldia bana-banako itzulpena ezinezko gertatzen deneko hura dela esan genezake, itzulpen-unitatea, azken finean, esaldi osoa bait da. Itzultzaileak funtzio informatiboak espresiboa eta bokatiboa gobernatzen dituela onartzen badu eta erreferentzia ezin hobeto ulertzen duelakoan badago, orduan, jatorrizko hizkuntzako sintaxia hartuta, esaldiaren lexia argitzera joko du, askotan oposaketak eta osagai dialektalak indartu/erraztu beharko dituelarik. Egitura argitu ondoren, esaldiaren itzulpenak ez du burukominik eman ohi.

Bestaldean, erreferentzialki zaila edo anbigua den pasartean, itzultzaileak —batez ere egileari galdetzeko aukerarik ez badauka— ziurtasunaren aldeko apostua egingo du, literaltasunari eutsita, ahal izanez gero, anbiguotasunak gorde beharko dituelarik. Orripeko oharren bat emango du beharrezkoa denean. Sorburu-testuko gertaerak ahalik eta zehatzen eta osoen eman beharko ditu itzultzaileak.

8.- Anbiguotasunari buruz

Esaldi gehienek anbiguotasun lexiko eta gramatikal neurri bat dakarte, linguistikoa zein erreferentziala izan daitekeelarik.

Anbiguotasun horiek guztiak mikro eta makrotestuinguruan argitu behar dira. Anbiguotasuna makrotestuinguruan agertzen bada, itzultzaileak erreferentziala, linguistikoa ala mutur bion artekoa den erabaki beharko du. Anbiguotasuna erreferentziala izanez gero, eutsi egingo dio, dagokion itzulpena emango duelarik, adituren baten eritzia eskura ez badago. Anbiguotasun linguistikoak testua aberasten du eta itzultzaileak anbiguotasuna ematen saiatu beharko du. Ezinezkoa bada, adieretarik bat baino ez du emango, besteak alde batera utzita. Anbiguotasun lexikoak maiztasun handikoak dira. Anbiguotasun gramatikalak esaldi baten barruan hitzen arteko erlazioak argiak ez direnean agertzen dira, «zer zerekin doan» ez argitzea erraza ez denetan.

9.- Lengoia: kode eta sistema

Itzultzailea etengabe egoten da lengoaiaren izaera funtzionala eta estrukturalaren artean. Apurto behar ez duen kode orekatu bat da lengoia itzultzailearentzat, osorik oratu ezineko sistema bat, lexiko-ki infinitoa bait da. Gehien-gehienez, suposizioak egin ditzake, hiz-tunek garai bakoitzean eraikitako sistemaren arabera: suposizioak, hitzen adierak bezala, etengabe ari dira aldatzen.

Askotan, hain txikia den errealitate extralinguistiko eta hain handia den anbiguotasun horien aurrean egoten da. Hitzak askotan, beren ohizko lekuetatik kanpo egoten dira, beren esangurak klitxe bihurtzen dira...

10.- Interferentzi motak

Itzultzaile onaren ezaugarrietariko bat interferentziaren aurrean duen sentzibilitatea dugu, terminologian zein lengoaian eragiten duelarik. Interferentziaren bederatzai alderdi hauek aipa daitezke:

- a) SH-n eta XH-n antzeko forma baina esangura desberdina duten konbinaketa edo lexemak.
- b) Goian bezala, baina adiera berberaz, itzulpen zuzena egin daitekeelarik (beraz, ez dira interferentziak).
- c) SH-ko egitura sintaktikoak XH-an desegokiro gainezarririk egotea.
- d) SH-ko hitz edo esaldi-ordena XH-an desegokiro emana.
- e) Itzultzaileak ezagutzen duen hirugarren hizkuntzetatik interferentzia.
- f) Hitzaren esangura nagusiak kontestu-adiera oztopatzea.
- g) Itzultzailearen gogoko erabilera estilistikoak.
- h) Hitzaren adiera nagusiak garrantzitsua den adiera bigarrenkari bat oztopatzen du, guztiarekin ere, azkena oso bat ez datorrelarik XH-an aukeraturiko hitzarekin.

- i) Itzultzailearen idiolektoa, bere lurraldeko eta dialekto sozialak barne daudelarik.

Horiei alde egiten saiatzen dena, itzultzaile ona izateko bidean dago. Bestalde, itzulpen onaren lengoaia ez dago interferentziak oso kutsaturik.

11.- Konnotazioa eta denotazioa

Itzultzailearen lana, azken finean, faktore bat bestearen aurka neurtzean datza. Lantzean behin, unitate lexiko baten osagai semantiko konnotatibo eta denotiboaren artean aukeratu beharko du.

12.- Metafora

Itzultzailea metafora klitxetuen bitartez emaniko SH-ko irudien esangura eskaini beharraren aurrean dagoenean, adierak, normalean, zenbait elementu semantiko dauzkala izan beharko du gogoan. Beharrezkoa izanez gero, analisi konponentziala egingo da, eremu semantikoko ezaugarri desberdinak kontrastean jarri eta egon daitezkeen aukera desberdinak hautatuko dituelarik. («**une route riante**»: «**beautiful country road**», «**scenic route**», «**ikuspegi ederra eskaintzen duen (erre)bidea**»).

Kontuan izan behar da lengoaia, diakronia aldetik, metaforek osaturik dagoela. Metafora hilek adiera metaforikoa galdua izaten dute, adiera «normal, arrunt» bihurtu direlarik. Metafora gisa ez dute arazorik sortzen itzultzeko orduan eta, ahal delarik, hitzez hitz emango dira. Metafora-hizkeraren ezaugarria hizkera literalak baino adiera-aukera zabalagoa izatea da. Normalean, metafora originalek klitxetuek baino iradokimen handiagoa izaten dute, hasiera batean, behintzat; askotan hain zehatzak ez direlarik. Nola itzuli, adibidez «*Kafka Iran-en*» bezalako metafora bat? Kafka XH-ko kulturaren ondo ezaguna bada, ez da arazorik egongo. Osterantzean, beste bideren bat hautatu beharko du: XH-ko kulturaren erroturiko irudiren bat.

Desberdintasunak elkartzeko edo bereizteko trebetasunaren adierazgarri izaten dira metaforak, baita eguneroko bizitzan gertatzen den asmatze etengabearen hizkuntzazko islada ere.

Itzultzaileak, sormen-lanen bat izan ezean, gehiago jo beharko du adiera ematera XH-n metafora berriak sortzera baino.

13.- Irudikoa (simila), metonimia, sinekdokea

Irudikoak metaforak baino zehatzago eta mugatuagoak izaten dira, eta ez hain muturrekoak eta konprometituak, objektua eta irudiaren arteko lotura ezaugarri bakar batera mugatzen bait da. Beraz, metaforak baino itzultzen errazagoak izaten dira eta arazorik garrantzitsuena kulturala izaten da, moldatu beharra suertatzen denean.

Metonimiak; objektu baten izena objektuari loturiko beste gauza bat izendatzeko erabiltzeak; XH-ko kultura ondo ezagutzea eskatzen du normalean. Adibidez, zer gertatuko litzateke euskaraz «ohea» erabiliko bagenu sexua edo ezkontza adierazteko, ingelesez bezala? Agian, amildegi kulturala ez litzateke oso handia izango, tradizioa gora-behera. Baina «ohea» ezagutzen duen kultura batekoentzat... Askotan, azalpenak beharko lirateke.

Bestalde, metonimia originalak oso bakanak izaten dira, eta izen eta objektuaren arteko lotura ezagutzea eskatzen dute, alderdi komunikatiboari erreparatuz itzuli beharko direlarik maiz. Beti bezala, hartzaileak dauka giltza: nolako hartzailea, halako itzulpena.

Sinekdokea (zatia osotasunaren orde edo alderantziz ematea) antzera landu behar da eta, nahiz eta beren osagai metaforikoak fosildurik egon, normalean ezin dira hitzez hitz itzuli.

14.- Esakerak

Esakeren adierak ezin dira, orokorrean, osagarrien adiera isolatuak elkartuta berreraiki. Beraz, ezin dira hitzez hitz itzuli. Esakerak oso kolokialak edo *slang* mailakoak badira, oso zaila izango da

SH-n bertan informalitate maila bereko beste esamolderen bat aurkitzea, areago XH-n. Nahiko arin galtzen dute gaurkotasuna eta horregatik ez dituzte hiztegiek jaso ohi eta, jasoz gero, berehala baliogabetzen dira.

Itzuli behar duen hizkuntzarekiko harreman zuzena duen itzultzaileak kontu handiz jokatzeko du, esakeren iragankortasunaz oharturik. Baina badira bestelako jokabide «jatorrak», esakeren menpean egoten direnak, alegia, askotan esakeren ezaugarriak ahazten dituztelarik: literarioak, arkaikoak, oso erabilera murriztekoak izatea, e.a.

Jende askok hizkera literala erabili nahiago izaten du, tartekamarteka metafora originalen bat gehitzen duelarik.

15.- Berba atzekoa

Berba aurrekoan esan bezala, norbaitek errejeta-bilduma balio gutxiko eritziko dio goikoari. Agian. Litekeena da. Askok antzeko eritziak izaten ditu literatur kritikaz: literatura egin eta dastatzeko da, besterik ez. Gainontzekoa unibertsitari eta kazetari zapuztuen lan alferra baino ez da.

Hori egia balitz ere, itzulpenaz arduratzen diren zientzia eta jakintza-alor guztiek literatur-kritikak ibilitako tarte berdina ibiliko balute, ez litzateke aurrerapausu makala.

Itzulpenak itzultzailearen mugak (baita hizkuntzarenak berarenak ere) agerian jartzen ditu, gogoeta eta teorizazio sakonak egitera bultzatzen duelarik. Linguistikak eta traduktologiak elkarrengandik edan behar lukete, esku artean gai bera darabilten aldetik.

Bego, oraingoz!.

SINTESIS

Acercarse a la traducción (1). Unas cuantas recetas.

El artículo recoge algunas de las aportaciones del profesor Peter Newmark en su libro *Approaches to Translation*. Se intenta adaptar algunas de sus sugerencias al caso concreto de la traducción al vascuence, aunque por ser una primera aproximación, solamente se señalan posibles líneas de investigación. Debe mencionarse, sin embargo, que el objetivo principal no es la realización de un estudio pormenorizado, sino la difusión de las investigaciones del mencionado investigador.

SYNTHESIS

Approaches to translation (I) . Some recipes.

This article describes some of the contributions of Professor Peter Newmark in his book Approaches to Translation. An attempt is made to adapt some of his suggestions to the specific case of translations into Basque, although, as this is a first approach, the article limits itself to an assessment of the possible lines of research. It should be mentioned, however, that the main aim is not to make an exhaustive study, but to disseminate the research carried out by the above-mentioned author.

Poesia itzuli (iradokizun txikiak)

Pello Zabaleta

Azken aldean gero eta poesia gehiago argitaratu ohi da euskaraz, beste hizkuntzetatik itzulia. Aresti, Joan San Martin azken aurreko boladan lekuko; lehentxeago Arrese-Beitia; eta azkenengo boladan, Euskal Herriko Unibertsitatea argitaratzen ari den saila: gazteleratik euskarara eta euskaratik gaztelerara itzuli bait dira hainbat lan, eta gehiago oraindik itzuliko direnak. Baina gisa berean, badira itzulpenak grekotik, latinetik, frantsesetik, ingelesetik, alemanetik, italieratik.

Egia esan behar bada, jatorrizko hizkuntzatik zuzenean baino gehiago, batzutan bederen, bitarteko beste hizkuntzetatik itzuli dira.

Batzuk prosaz itzuli dira, beste batzuk poesia moduan tajutuz. Batzuk jatorrian poesia librean eginak ziren, beste batzuek neurria eta errima zekarten.

Eta izenak ere aipa daitezke lan honetan: Gaztelu, Fray Luis de Leon itzultzen; Orixe elizako ereserkiak itzultzen; Lino Akesolo, Santa Teresa; Santi Onaindia, Homero, Virgilio, Goethe itzultzen; Sabin Muniategi, hainbat eta hainbat poesia, bereziki Hegoamerikakoa itzultzen... etabar.

Poesia itzultzea erraz denik, ezin esan inolaz, horretan aritu den orok ondotxo dakienez.

Hasiera batean, ezer itzul ote daitekeen galde ohi zen. Baina ikusirik itzuli ere egiten zela, ezin uka zitekeen itzulpena posible zela.

Besterik da, ordea, poesia. Poesia moeta asko izaki, gainera, galde daiteke inolaz poesia poesiaren bidez eman daitekeen, sorburuko hizkuntzak eskaintzen dituen bideak, beste hizkuntza batera osotoro jaso ote daitezkeen, alegia.

Zilegi bekit, beraz, lehen unetik esatea, ezinezko dela. Poesia mota asko hizkuntza batekoak edo bikoak direlako, baina ez denetakoak, edo ez euskarazkoak behintzat.

Adibidez, metroa silaben luze-laburrean oinarritzen denean, ezin euskara daiteke, euskarak ez duenez luze-laburrekorik, gaur behintzat.

Gisa berean, azentuen gainean eraikirik dagoen poesia —aparte neurria eta erritmoa— apenas jaso daitekeen azentuaren banaketa. Hona adibide polit bat, Quevedo miretsiari hartua:

«La voz del ojo, que llamamos pedo
(ruiseñor de los putos) detenida,
da muerte a la salud más presumida
y el propio Preste Juan le tiene miedo.

Mas pronunciada con el labio acedo
y con pujo sonoro despedida,
con pullas y con risas da vida
y con puf y con asco siendo quedo.

Cágome en el blasón de los monarcas
que se precian, cercados de tudescos,
de dar la vida y dispensar las Parcas.

Pues en el tribunal de sus gregüescos
con aflojar y comprimir las arcas
cualquier culo lo hace con dos cuescos.

Zalantzarik ez dago, honen soinuak eta doinuak nekez euskara daitezkeela. Hortik, beraz, galdea: itzul daiteke poesia, poesian?

I. Jarrera desberdinak

Poesiaren itzulpengintzan jarrera oso desberdinak ikus daitezke, itzulpenaren helburua kontutan hartuz, noski.

1.- Hitzez-hitz.

Gogoan daukat Horazio eta Ovidio eta Virgilio etabar itzultzen hasi ginenean. Lehen lana jatorrizko testua ulertzea zen. Horretarako, hitzez-hitz itzuli behar izaten genuen, eta hortik aurrera ez zitzaigun zilegi inolako barrabaskeriarik. Latinez ikasteko ari ginen itzultzen, ez arteko obrak sortzeko.

Helburua hori izaki, itzulpena ahalik eta zehatzena egin behar zen. Eta latina ikasteko liburuetan ere, itzulpenak halakoak izan ohi ziren. Eta poesia horiek ez zeuden poesia gisan itzuliak, prosa arruntean baizik.

Geroago etorriko ziren erraztasunak... edo zailtasunak, poesia itzultzen ari ginela konturatzean, eta poesia egin nahi genuenean.

Gaszte ginen oso, ordea, eta gure poesiek ez zuten Rimbaud-en genialitaterik. Eta halako genialitaterik gabeko poesiak atera ohi zitzaizkigun.

Baina, latina aipatu eta bestelako hizkuntzak ez aipatzeari, gaizki deritzot: gauza bera gertatzen bait zitzaigun frantsesarekin edo alemanarekin edo beste hizkuntza bat edozeinekin, harik eta komentzitu ginen arte poesia poesia truk eman zitekeela.

Adibidez, salmoak poesia dira jatorriz. Baina, salmoak ikertu nahi dituenak ez dizu itzuliko poesia moduan, hitzez-hitz baino, eta gainera nahiko trakets, helburu-hizkuntzan jatorrizkoan adierazten dena esan nahi delako. Agian, berriz, salmoak dastatu nahi dituenak poesia gisan dasta ditzake gehiago, eta sakoneko esanahia era horretan hobeto jaso lezake, prosazko itzulpen zurrunean baino.

Hona 129. salmoaren zenbait itzulpen, erka ditzagun:

DUVOISIN:

Jauna, leze beheretarik zure gana arthiki dut deihadar:
Jauna, entzun zazu ene mintzoa.
Zure beharriak atzarriak izan beitez ene othoitzaren deyari.
Gaizkiak begietan idukitzen badituzu, Jauna; Jauna, nork irauenen
ahal du?
Zure baithan delakotz barkhatiartasuna eta zure legearen gatik
iguriki zaitut, Jauna.
Zure hitzean iguriki du ene arimak;
Ene arimak Jaunaren baithan izan du bere pheskiza.
Goizeko beilatik arratseraino, Israelek Jauna baithan iduk beza
bere pheskiza;
Zeren Jaunaren baithan baitira urrikalmendua eta berrerospen
nasaya.
Eta harek berak berrererosiko baitu Israel bere gaizki guzietarik.

OLABIDE:

Leze-sakonetik ots dagizut, Yaube!
Yaube!, bere deya entzun!!
Itzul zure belarriok nere otoi-deyera.
Yaube!, ogenak gomutan ba'dituzu,
Yaube!, nor dagoke zutik?
Zuregan dago, ordea ogenen askespena,
Zurekin itzazlez ari gaitezen.
Yaube'rengan dut uste,
Aren itzarengan dut nik itxaropena;
Yaube'rengana erpai nago,
goizabarra itxoiten dagon zaitzailea baño erpayago.
Zaitzalleek goizabarra baño areago,
Yaube'rengan uste izazu Ixrael;
errukia Yaube'rengan bait-da, eta Arengan zor-ordain ugaria;
Ixrael Ark yareingo du,
egin ditun ogen guzietatik.

ORDUEN LITURGIA

Barnenetik Zuri dagizut oi, Jauna,
entzun, Jauna, nere mintzoa.
Beude erne zure belarriak,
nere oi, eskarira.

Gure erruak gogoan badauzkazu, Jauna,
 nor dagoke zutik, Jauna?
 Baiña barkamena Zugan daukazu,
 zure begirunez serbi zaitzagun,
 Jaunagan itxaroten nago,
 nere barrena Aren itzaren zai dago.
 Gau-mutilla goiz-argiaren zai dago:
 nere gogoa Jaunaren zaiago.
 Gau-mutilla goiz-argiaren zai dago:
 Israel Jaunaren zai ala bego.
 Jaunagan bait dago errukia,
 Arengan askatasun ugaria;
 Berak utziko du Israel askaturik,
 egin dituen oben guztietatik.

IRATZEDER.

Aita Baztarririkak gipuzkeratua.

Leize leizetik
 Zuri oiuz,
 entzun nazazu,
 entzun jauna.

Dena belarri
 niganatuz,
 entzun nere dei
 ta zotiña.

Obenez oroi
 bazera Zu
 zuri begira
 nor dagoke?

Denen barkapen
 maite duzu,
 bildur bezeinbat
 badut pake.

Jaunaren zai zai
 dut biotza,
 egitzat daukat
 Aren itza.

Nik egizago
 Jauna goza,
 gau-zaiak baño
 goiz-argia.

Gau-zaiak baño
 goiz-argia,
 nago zai zai noiz
 Jauna goza.

Jauna biotzez da betea,
 zein maite duen
 salbatzea.

Ark du Israel
 salbatuko,
 oben guztiak
 barkatuko.

HARIZMENDI APEZA

Zuri, Jauna, oihu datzut
leku beheretatik.
Zuk, Jauna, entzun ezazu
ene oihua amulsurik.

Idekazu belarria
zure bihotzarena,
aditzekotzat oihua
ene otoitzarena.

Gaizkiei zagozkenean
beha begi samurrez,
nola zure aintzinean
irakuts daite beldurrez?

Ezen gu ganik gizonak
behar du barkamendu,
hartakotz zure legea
ene arimak maite du.

Zu baitan ene arima
betikotz da fidatzen;
zu zaitu gogo guziaz
bere jauntzat autatzen.

Israel ere goiz-arrats,
egun edo gau ilhun,
Jaunari dagoko galdez,
balitz bezala zordun.

Alabaiña, Jauna baitan
da miserikordia;
Jauna ganik heldu zauku
gure erospen handia.

Eta hark erosiko du
Israel bekatutik,
baita argira helduko
bere beltz ilhunbetik.

Jokamolde guztiz desberdinak soma daitezke itzulpen hauetan. Gogoan hartzekoa da, noski, salmo hau otoitz egiteko dela, eta hartaz sakoneko zentzun hori babestu eta zaindu behar dela beste ezeren gainetik. Baina jarrerak nabarmen daude: **Iratzeder**-ena kantatzeko da, eta kantu neurtuan gainera. Horregatik, itzulpena horretara ego-kitu da.

Harizmendirena, berriz, norberak pentsatu eta berotasunez jasotzeko. Baina honek ere neurrira makurtu du jatorrizkoa.

Besterik da **Orduen Liturgiakoa**: taldean esateko egina izaki, edo kantatzeko, baina kantu librean kantatzeko, erdi errexitatuz kantatzeko, jatorrizkoari gehiago atxiki zaio; baina ez da inolaz ikertzai-le batentzat egina.

Duvoisin eta **Olabide** itzulpen zehatzagoa ematen saiatu dira, baina gauza bat hartu behar da kontutan: joskera eta bertsikuluen banaketa. Askoren ustez, komenigarri da bertsikuluen segida zaintzea, eta hor-

tik datoz arazoak, bakoitzak ahal duen bezala konpontzen dituenak. (Salmu honetan ez, baina beste askotan nabari igertzen dira halako gorapiloak.)

Hitez-hitz egin nahi den itzulpenak (gainerako ohizko puntuak kontutan harturik noski, prosazko itzulpenean ohizko direnak alegia) derrigor darama itzultzailea prosara.

Baina, hor dago galdera beti zintzilik: poesia prosaz itzultzen bada, poesia itzuli da, ala beste zerbait egin da?

Aspaldiko arazo honi ez diot nik erantzunik emango. Aldiz, aipa dezadan Rosa Chacelek esaten duena: «Mi francés, más vivido que estudiado, me permitía confiar en mi *oído* —tengo que hacer alusión a lo que en música representa el *oído absoluto*; quien posee capta la nota con todas sus vibraciones fisiológicas, con su exacta jerarquía en la escala, etc. (...) La traducción de la gran literatura, de la poética —aunque, desde el punto de vista que trato de señalar, sólo la poética cuenta en todo género literario, sólo lo poético, lo inefable— es donde el traductor anda con temerosa precaución como cuando se entra en un lugar sagrado» (*Jean Racine. Seis tragedias.* Ed. Alfaguara, 1984). Rosa Chacelek, mila arazo izan eta gainditu ondoren, itzulpena bertsotan egin zuen.

2. Zentzura

Zentzura esaten denean, zer esan nahi den ez dago garbi.

a) Testuak esaten duena norberaren erara ematea, esan ohi da askotan, eta orduan, hitzez-hitz itzultzearen alderantzizkoa gertatu ohi da. Garbi dago, jarrera hau zilegi ezezik beharrezko ere badela, bereziki esamoldeei dagokienean. «Toca madera» euskaratu behar bada, kasik ezinezko gertatuko da, hain zuzen ere euskaraz ez dauka-gulako konjuru hori. Eta ordezkioak bilatzen zail gertatzen da, bereziki testu osoa esaera horren gainean eraikia baldin badago. Orduan, agian, bestelako bide bat hartu beharko da, eta jatorrizkoa «hark duen zentzua jasoz» itzuli beharko da.

b) Baina, bada beste joera bat: poesiak bere sakonean daukan «zentzua» jaso nahi izatea.

Horretara iristean, ordea, irudi literario guztiak hartu behar dira buruan, bat bakarra ere ahaztu gabe.

Has gaitezen euskaratzen:

Pura, encendida rosa,
émula de la llama
que sale con el día,
¿cómo naces tan llena de alegría
si sabes que la edad que te da el cielo
es apenas un breve y veloz vuelo?

(A la rosa, *Francisco de Rioja*).

-Hasteko, ikus: *Pura... émula*: U-a U-a.

Emula de la llama ... sale con el... llena: l-ll.

-Hitz bila: *Pura* = Huts, soil, garbi, garden, bakun, akats-gabe-ko, xalo...

Encendida = piztu, irazeki, iziotu, izetu, sutan ipini.
Arrosa.

Emula = Burkide, nahikide, leihakide...

Llama = gar, sugar, lama, su-lanbo

Sale = irten, atera, ilki, elki, jalgi, sortu, etorri, jaio.

Día = eguna... alba, goizalba...

-Itzultzen hasi: Arrosa garbi, piztua
egunaz ateratzen den
garraren lehiakide.

-Soinu bila: Sutan izetu arrosa
Egunaz datorren
garrakin lehian.

-Oharrak: «U-a» jokoak jasotzen da: Sutan, -tu, eguna.
«L-ll» ez. Baina ordezeko «rr» dago: arrosa, datorren,
garra.
Balioko ote den... Izan ere «Pura» galdu dugu.

Hemen, itzulpena kasik hitzez-hitz egina da, baina aliterazio horien bidez, sakonean beste zerbait dator. Orduan, «zentzura» itzul daiteke.

Nola, itzuli bestela, adibidez, Paul Valéryren *Le Cimetière marin?*

La scintillation sereine sème (IV). «El centelleo tan sereno siembra», itzultzen du Jorge Guillének (Alianza Editorial, 45. or).

«J'attends l'écho de ma grandeur interne,
Amère, sombre et sonore citerne,
sonnant dans l'âme un creux toujours futur!» (VIII).

Eta Jorge Guillenek berriro:

«De mi grandeza interna espero el eco:
Es la amarga cisterna que en el alma
Hace sonar, futuro siempre, un hueco».

Dударик ez da, hitz bakoitza adina, soinuak eta erritmoak eta tonua hartu beharko ditugula kontutan, hau itzultzeko.

3.- Poesia berria eginez?

Orain arte esan duguna baliozko bada eta poesia poesia bidez itzuli nahi bada, garbi dago helburu hizkuntzan poesia sortu behar dela. Era batean edo bestean, baina poesia. Nola lortzen den?

Sena behar dela? Poeta izan behar dela? Auskalo.

Euskaraz ere nahiko adibide badugu, poesia bat bederaren itzulpen desberdinak erkatzeko.

Erka dezadan, Gurutzeko San Juanen *Cántico Espiritual*-en, lehen ahapaldia (Ikus *Hegats* 5, 1991ko abendua).

¿A dónde te escondiste,
Amado, y me dejaste con gemido?
Como ciervo huiste,
habiéndome herido;
salí tras tí clamando, y ya eras ido.

Gaztelu

Nora zaitut kuku,
Maitea ni emen lagaz intziri?
Zauri nuzu-ta, ba zoaz
oreña bezala nigandik;
oiuz narraizu, eta Zu igesi.

Santi Onaindia

Nora jun zara Maite,
ni emen lagarik min-garrasika?
Orein antzera zoaz
iges ni zauriturik;
emen nozu deiez, ta Zu gordeka.

Orixek

Non zaude kuku, Maite?
Emen nuzu mingulin.
Oreñiak antzo, iota
nadukazu maitemin.
atzetik oska nuzu,
ta zuk neri aldegin.

Lino Akesolo

Non zara, Maite, ostendu
olan nozula izten zotifiez?
Oreina lez zara aldendu,
ni jo ondoren maitemiñez;
deika atzean ni... eta zuk iñes!

1.- Santi Onaindia da San Juanen neurriak bete-bete jarraitzen dituen. Baina, 2.a eta 5.a bakarrik errimarazten ditu. 5.enean «hemen nozu deiez», ibiltzearen mugikortasuna guztiz kenduz.

2.- Lino Akesolok 1-3 bersotan zazpi silaba ordeztu, zortzi erabil-tzen ditu. 2.a eta 5.a hamarrekoak ditu. Errima bete-bete jarraitzen du, 1-3 eta 2-4-5 errimatuz. Baina errima eta neurria gordetzeko, laugarrenean «maitemiñez» sartzen du (Orixek bezala bestalde), zentzura egoki datorrena, baina jatorrizkoan ez dagoena erantsiz. Eta azken bertsoan, 5.ean, «deika atzean ni» dio Akesolok, agian «atze-tik» edo «jarraiki» hobe zitekeenean.

3.- Orixek, bosteko bertsoa egin ordeztu, seikoa egin du, eta hiru errima bakarrik jarri dizkio. Guztia zazpikotan itzuli du. Orixek, gainera, lehen eta bigarren bertsoen arteko lotura hautsi egiten du, galde-ikurra aurreratuz. Akesolok bezala, 4.enean «maitemin» sar-tzen du. Galde daiteke, gainera, ea «kuku» hitza egokiena den: hiz-kuntza maila urratzen duela dirudi.

4.- Gazteluk, hasiera bertatik pertsonalizatu egiten du: «zaitut». 3-4 bertsoak, berriz, trukatu egiten ditu.

Bada guzti honetan, puntu bat, ordea, jatorrizkoan idoro uste dudana, eta une berean gonbarazio eta paradoja dena: «Como el ciervo huiste, / habiéndome herido». Orein zauritua da, hain zuzen irudi ezagunena, eta orein zaurituak egin ohi du ihes. Baina hona nola agertzen duen San Juan berak puntu hau:

«Este gemido, pues, tiene aquí el alma dentro de sí en el corazón enamorado, porque donde hiere el amor, allí está el gemido de la herida clamando siempre con el sentimiento de la ausencia, mayormente, cuando, habiendo ella gustado alguna dulce y sabrosa comunicación del Esposo, ausentándose, se quedó sola y seca de repente, que por eso dice luego:

Como el ciervo huiste.

Donde es de notar que en los *Cantares* compara la esposa al Esposo al ciervo y a la cabra montesa, diciendo: *Semejante es mi Amado a la cabra y al hijo de los ciervos*; y esto, no sólo por ser extraño y solitario y huir de las campañas como el ciervo, sino también por la presteza de esconderse y mostrarse, cual suele hacer en las visitas que hace a las devotas almas para regalarlas y animarlas, y en los desvíos y ausencias que las hace sentir después de las tales visitas, para probarlas y humillarlas y enseñarlas; por lo cual las hace sentir con mayor dolor la ausencia, según ahora da aquí a entender en lo que se sigue, diciendo:

habiéndome herido.

Que es como si dijera: no sólo no me basta la pena y el dolor que ordinariamente padezco en tu ausencia, sino que, hiriéndome más de amor con tu flecha y aumentando la pasión y apetito de tu vista, huyes con ligereza de ciervo y no te dejas comprender algún tanto». (*Poesía completa y comentarios en prosa*, Planeta, 1986, 173-174 orriak).

Era horretan, argiturik geratzen da paradoja eta gonbarazioa garbia da: «oreinak bezala egin zenuen ihes, ni zauritu ondoren».

Lau itzulpen hauek elkarren artean erkatzean, ordea, hor dago galdea? Sorkuntza berri dira? Itzulpen direnik ezin uka edozein modutan.

4. Jatorrizkoaren kopia?

Orain arte dakargun berriketan, kasik aurreko guztiaren ondorio bezala etor liteke galde hau. Kopia egin behar da?

Ezinezko dela ezin uka. Poesia ezin da kopiatu. Soinu asko kopia edo alda edo truka daitezke, baina kopiarik ezin egin daiteke.

Joerak, beraz, bi bereiziko nituzke: hitzez-hitz edo kopia egin nahi izana. Eta bigarrena, poesia berri bat, zentzura egina (abandona dezagun prosazko itzulpena, ez bada ikerketarako).

Adibide bakarra jarriko dut, gonbara dezazuen, nola badauden itzulpen onak eta hobeak (txarraz ez dut hitzegin nahi).

Hona Gabriela Mistral-en *Pieccitos* poesiaren itzulpen bi: bata ona, baina bestea askoz hobe.

Ointxoak (Gabriela Mistral)

Inazio Berakoetxea

Umetxoan ointxoak
otzarren urdinko,
nola ikus ta jazten ez
ene Jainko

Zauritutako ointxoak
arri koxkor denez,
elurraz laidoturik
ez loiez

Giza itxuak ez daki
zuek ein bidea
argi bizidun lorez
jazten dala;

zuen ointxo odoltsua
ipili lekuan,
akara usaitsuago
sortzen dala.

Nemesio Etxaniz

Oi, aurtxuon oin txikiok!
Hotzaren hotzak hain more!
Nola zauzkate orren gorririk,
izanikan Jainko lore?

Oi, aurtxuon oin txikiok!
arri zorrotzetan miñez!
Ain ondatuak elur zapaldu
eta lokatza zikinez!

Gizon itxuak ez daki,
Zuen ointxoak jo-ala,
nolatan lurra argizko lorez
apaintzen dan bereala;

ta nola zuen oinpeak
zapal dutako tokian,
usaitsuago zabaldu oi dan
akara Udaberrian.

Bide zuzenetatik
zoaztenez gero,
izan bikain, osoak
zeratenok.
Umetxoan ointxoak,
pitxitxo bi miñez,
nola doaz aldetik
ta ikusten ez.

Bide zuzenetan zehar
zoazten ezker, izan
kemen aundiko gizon azkarrak
bikaiñak zeraten gisan.
Oi, aurtxuon oin txikiok,
bi arri bitxi munduak!
Nola dijoaz zuek ikusi
gabe bidez jende itxuak?

II. Neurridunak eta neurrigabeak

Honaino apuntatu ditugun adibide guztiak neurrian idatzitako poesiak izan ditugu. Eta poesia horiek, ikusi dugu, itzul daitezke edota prosan edo poesian, ahalik neurridunean.

Beraz, neurridunetan neurria onartzea komenigarri litzateke. Neurriak ere poesia jazten du, eta batzutan poesia egin ere egiten du, poema baten osagarri delarik eta haren zati banaezinezko.

Horrezaz gainera, besterik ere jaso behar da: hau da, literatur baliapideak kontutan hartu behar dira, generoak, irudi literarioak, etabar.

Beraz, neurridunetan halako puntuak ageriagoan ikusi ohi dira, nabarmen somatu ohi diren, garbegi bait daude ezkutatu ahal izateko.

Besterik da «neurri gabe» deituetan. Horietan neurria somatzen ez da hain erraz izaten, eta itzultzeko orduan igerrri egin daiteke uler-tu den ala ez poesia hori.

EZ BAIT DAGO NEURRI GABEKO POESIARIK.

Printzipio hori kontutan hartu behar da beti. Eta neurria bilatu egin behar da. Ez da egia neurri eta errima gabeko deitu ohi den poesia, lerro laburragotan idatzi den prosa denik. Izan bada prosa, poesiaren arauak jarraitzen saiatzen dena, eta prosa poetiko deitu ohi dena. Baina poesia orok du neurria. Adibidez: arnas neurria deitua, irakurketa eritmoa kontutan hartzen duena.

Beraz, hori bai hartu behar dela kontutan itzulpen itxurako bat egin nahi bada. Itzultzaileak beti argi eduki behar bait du, poetak ez duela ezer idatzi halabeharrez, berez sortu balitzaio bezala; aldiz dena josten saiatu dela. Poesiak azken batean teknika eskatzen du, eta teknika hori ulertu eta bereganatu behar du itzultzaileak, eta ondoren hasiko da itzultzen. Bestela, segituan hutsegingo du.

Egia da, era berean, silabaz osaturiko neurririk ez duen poesia errazago itzul daitekeela, baina itzulpen hori berariaz zaindu behar da, bestelako eritmoak jaso ahal izateko.

Euskal Herriko Unibertsitatea ari da azken aldian Euskal Herriko poeten lanak argitara ematen, eta euskaratik gaztelerara eta gaztele-ratik euskarara egin dira itzulpenak.

Nahiko ondo ezagutzen ditudan bi lan hartuko ditut eskuartean, adibidetakako. Gabriel Celaya eta Carlos Aurtenetxe.

GABRIEL CELAYA, «Gaviota» (36-37 orriak)

Tus gritos y mis gritos en el alba.
Nuestros blancos caballos corriendo
con un polvo de luz sobre la playa.
Tus labios y mis labios de salitre.
Nuestras rubias cabezas desmayadas.

Tus ojos y mis ojos,
tus manos y mis manos.
Nuestros cuerpos
escurridizos de algas.

Oh amor, amor!
Playas del alba.

Lehen itzulpena

Zure oihuak eta nire oihuak oilaritean.
Gure zaldi zuriak korrika
argi hautsa arrotuz plaian.
Zure eta nire ezpain kresalezkoak.
Bion buru horail ilaunduak.

Zure eta nire begiak,
zure eta nire eskuak.

Bion gorputz
oholdizko labainak.
Oi amodio, amodio!
Oilariteko plaiak.

Beste itzulpen bat:

Zure oihuak eta nere oihuak goizalban.
Gure zaldi zuriak lasterka
argizko hautsetan hondartzan.
Zure ezpainak eta nere ezpainak kresalez.
Gure buru horailak indarrak lagata.

Zure begiak eta nere begiak,
zure eskuak eta nere eskuak.

Gure gorputzak
oholdioz labainak.

Oh amodio, amodio!
Goizalbako hondartzak.

OHARRAK: Bigarren itzulpenean hartu dira kontutan:

1.- Lehen ahapaldiko errima kontsonantea (Alba - playa - desmayadas).

2.- Oilarite: oiloak ibili ohi den lekua da: oilo-lurrean ohituta gaude, esan ohi da. Eta oilarite da hain zuzen Oilarrak kantatzen duen unea.

3.- Celayak apropos bezala errepikatzen ditu bikoteak: Zure begiak eta nire begiak... Beraz, lehen bertsoan esan badu: «Zure oihuak eta nire oihuak», gainerakoetan ere errepikatu egin behar da.

4.- Lehen eta bigarren ahapaldietan dio: «Bion buru horail» eta «Bion gorputz», eta hauetan «Bion» bada, zergatik ez da «Gure zaldi zuriak», «Bion zaldi zuriak»?

Karlos Aurtenetxeren poesia zati asko nik euskaratu nituen. Eta esan behar dut, gozamenik eta atseginik sakonenak dastatu nituela lan horretan. Baina, Aurtenetxe ez da batere erraza: arnasketaren

erritmoa, batetik, eta bestetik paradojen, esaera hautsien, sinkopeen ugaltasunak zail egiten du itzulpena.

Hona adibide gisan, *Las voces de piedra* poematik, *Naufragio de José en Pedro* poesiako pasarte bat, azkena hain zuzen:

dice José mira es el hombre de los días
pares
del circuito de la sombra al fondo
José coge el cubo de la sombra el jueves lentamente
y calla
coge el cuchillo y calla
tibia con tibia la sonrisa de su hermano Pedro
en José
la joya de su mano adelgazada
hasta el extremo
de existir

Itzulpena:

dio Josek ikus egun bikoitzetako
gizona da
itzalaren zirkuitokoa hondoan
Josek itzalaren kubo hartzen du ostegunean astiro
eta isiltzen da
hartzen du aiztoa eta isiltzen da
epelez epel Pedro bere anaiaren irribarra
josegan
bere esku argaldutako joia
izan izateraino
bertaraino

OHARRAK

1. Estilo zuzena eta zeharkakoa biak batera datoz: *dice José mira es el hombre... coge... calla...*

2. Esaera bikoitzak: ikus 3.-4. bertsoak: *del circuito de la sombra el fondo / José coge el cubo de la sombra*. «Al fondo» nori dagokio? «Sombra»ri edo «José coge»ri? Beraz, «hondoan» azkenerako utzi behar, efekto berbera jaso dezan.

3. «*Tibia con tibia la sonrisa*» dator 7. bertsoan. Bi esaldi daude gazteleraz gisa berekoak: «*Brazo con brazo*» lehena, eta «*Tibia sonrisa*» bigarrena. Zein hautatu? «Bernazur» edo «epel» hautatu? Nik «Epel» hautatu nuen, gero eskua aipatzen badu ere.

4. Azken esaldiaren zailtasuna: «*la joya de su mano adelgazada / hasta el extremo / de existir*». Itzulpen zehatza (beharbada) litzateke: «Izateraino bertaraino argaldutako bere eskuko joia». Bada esatera egina gazteleraz: «*Adelgazado hasta el extremo*», hau da «erabat argaldua». Baina horri «*de existir*» gaineratzen dio. Kontutan hartu «*hasta el extremo de*», gaztelerazkoak azken helburua adierazten duela.

Azken batean, edozein modutan, bi poesia hauek erakusten dute neurri eta errima libreko bertsoarik ez dagoela: barneko neurria bilatu behar dela, nahi izanez gero: poesia eta musika erkatuz, poesiak ere musikak bezala doinu eta konpas berriak bilatu ditu etengabe, eta itzultzaileak horiek atzeman behar ditu, itzultzen hasi aurretik. Eta bestela, hutsegingo du bere lanean.

III. Poesia itzul ezinezkoak

Jainko maitea! Poesia itzul daitekeela esanez hasi eta azkenean itzultzen asmatzen ez dakigun poesiarik badela esanez bukatu behar hau, gero!

Eta hala da. Poesiak, ezer lantzen badu, lantzen du norberaren hizkuntza. Eta hizkuntza horrek, ez bakarrik ematen ditu kontzeptuak, baizik bizikizunak eta sentimenduak... eta baditu jokoak ere, beste hizkuntza batean apenas zentzurik daukatenak.

Hitz-jokoetan, hitzaren bi esanahietan oinarrizten diren poesiak dira, zalantzarik gabe, ezinezkoenak. Hizkuntza bakoitzak ditu bere jokoak, esanahi asko dituen hitzak, eta ordainak bilatzen nekeak izaten ditu itzultzaileak. Hori epigrametan aurkituko duzue gehienetan, txistek eta zirtoak bezala bait dira. Hona, ezezagun batek idatzia:

—Mal ha predicado el cura
—dijeron unas devotas,
y yo repuse: —Es verdad,
hablaba a tontas y a locas.

Edo Antonio de Solís y Rivadeneyra-ren beste hau:

«A UN NECIO QUE SE COMPONIA MUCHO
Aunque veis que en componerme
gasto mi tiempo y mi resto,
más simple soy que compuesto».

Gogora datorkit, zentsura garaian, herrietan bertsolariek kantatu behar zutenean, gaiak etabar guztiak zentsurara eraman behar izaten zirela. Eta hala, amaiera emanda kantatu beharrekoetan, gazteleraz tokatu ohi zen: «Completarán el verso con las siguientes rimas: Mirando, son, vuelta, al hilo». Zuek ulertuko duzue erritma horiek zirela: «begira, dira, bira, harira». Auskalo, gero gaztelera zatekeen bertso hura beste baten bidez... baina ez zentsuran noski.

Euskaraz ere badira gisa berekoak. Horiek hizkuntza batean balio dute, ez beste batean, edo bestela nahiko lan hartu behar da itzulpena egiteko. Bertsotan sarri gerta ohi da halakorik, baina poesia bat eka-riko dut hona, epigrama bat, hauteskundeei buruz egina:

«Onaindiak
onaindiagu
onaindiazue
onaindiate

Onaindia
eta Bandres
sei
besterik ez».

Baina bada bestelakorik ere, broma daramana sarrienik, baina hitzen soinuari kontu eginez egina, alajaina. Ezin uka daiteke, beraz, poesia denik, eta ez epigrama. Hona gazteleratzeko horietako bat:

«Ai Miren, oi Miren
bi begiren
irribarren bitarten
gordetzen ziren
ai Miren, oi Miren

amets guztien
asmo eta itxaropen
beti hain lerdin
ai Miren, oi Miren.»

Musika hau gazteleraz ezin eman daitekeela esanez gero, ez dut uste inork harrituko denik, ez bada sartzen tartean harako «ailere ailere» hura. Itzuli, bestela, egin daiteke... baina nekez poesia bezala.

«Ah Miren, oh Miren,
entre las sonrisas
de los dos ojos
se escondían
ah Miren, oh Miren

los deseos y esperanzas
de todas las ilusiones
siempre tan lindas
ah Miren, oh Miren».

Baina, zuek esango didazue zer esan nahi duen honek! Nik ez nuke ulertuko gaztelerazko itzulpen hau broma edo erdi-broma bezala sekula, eta jatorrizkoa bai: jatorrizkoari barretxo bat eskainiko nioke.

Hala ere, badira beti zati batzuk, bigarren edo hirugarren zentzu batzuk poesiatan, neurridunetan bezala neurribakoetan, jaso ezin daitezkeenak, eta derrigor moztu egin behar direnak. Baina gauza bera gerta ohi da prosan ere:

«Tomás es un hombrón barbudo con unos zapatos enormes.
Es por el que siento más simpatía entre todos los locos.
Sí, todos los locos.
Todos nosotros los locos...»

(Uslar Pietri, *El patio del Manicomio*).

Garbi dago, bokalen bidez sortzen diren iradokizun guztiak ezin jaso ditzakeela itzulpenak: «Bai, ero oro. Gu ero oro...» esan daiteke, eta nahiko hurbil geratzen da. Baina ez dauka gaztelerazkoaren borobiltasuna.

Gauza bera gerta ohi da poesian ere, euskarazkoetan bezala gainerakoetan: badira zati batzuk beste hizkuntza batean eman ezin daitezkeenak. Adibidez:

«Tiriki, tauki, tauki,
mailuaren hotsa.
Tiriki, tauki, tauki,
mailuaren hotsa.

Hamasei harri lantzen
ari da Oteitza.
Ai, oi, ai,
ari da Oteitza»

(B. Gandiaga, *Hiru gizon bakarka*, 149 or.).

Hizkuntza guztietan gerta ohi da gauza bera. Eta hona beste adibide bat italieratik hartua: Giuseppe Ungaretti —oraintsu itzuli berri du zati bat Gil Berak—. *La Terra Promessa* poemako «Finale»:

Piú non muggisce, non sussurra il mare,
Il mare.

Senza i sogni, incolore campo è il mare,
Il mare.

Fa pietà anche il mare,
Il mare.

Muovono nuvole irreflesse il mare,
Il mare.

A fiumi tristi cedé il letto il mare,
Il mare.

Morto è anche, vedi, il mare,
Il mare.

Itzulpena:

Ez dabil orruka, ez zurrumurruka itsasoa
Itsasoa.

Ametsik gabe, soro kolorgeko da itsasoa,
Itsasoa.

Urrikaltzeko ere bada itsasoa,
Itsasoa.

Mugitzen dute hodei dizdizbakoek itsasoa,
itsasoa.

Ibai tristen ohe ere gertatu zen itsasoa,
itsasoa.

Hila ere bada, begira, itsasoa,
Itsasoa.

Baina, nire zalantzak baditut honetan ere: Ungarettik itsasoraren kulunka barea jaso nahi du, eta jasotzen du. Bestalde, behartu egin behar dira bertsoak eta esaldiak, azkenean beti «Itsaso» gera dadin.

Beste adibide bat, Afrikako portugaleratik:

Eu sou carvão!

E tu arrancas-me brutalmente do chão
e fazes-me tua mina, patrão.

Eu sou carvão
e tu ascendes-me, patrão
para te servir eternamente como força motriz
mas eternamente não, patrão.

Eu sou carvão
tenho que arder na exploração
arder vivo como alcatrão, meu irmão
até não ser mais a tua mina, patrão.

Eu sou carvão
tenho que arder
queimar tudo com o fogo da minha combustão.

Sim!

Eu serei o teu carvão, patrão! (José Craveirinha, Mozambique).

Itzulpena:

Ni naiz ikatza!

Eta basakiro ateratzen nauzu lurretik
eta zure mehategi egiten nauzu, ugazaba.

Ni naiz ikatza
eta su ematen didazu, ugazaba
zerbi zaitzadan betiere indar mugitzaile bezala
baina ez betiere, ugazaba.

Ni naiz ikatza
eta su egin behar dut, bai
eta dena erre nire erreketaren indarrez.

Ni naiz ikatza
erre behar dut esplotazioan
bizirik erre alkitrana bezala, neure anaia
zure mehategi ez nadin arte, ugazaba.

Ni ikatza naiz
su egin behar dut
erre dena nire erreketaren suaz.

Bai!

Ni izango naiz zure ikatza, ugazaba!

Azken poesia honek ezin du jaso «ã» jokia, eta ordezkoren bat bilatu behar du, ezin aurkituz.

Beraz: itzultzaileak erabaki garbiak hartu behar ditu poesia itzulzen duenean: nagusia jaso behar du, bai ideiatik, bai moldetik, eta batzutan ideia eta moldea nahasturik, bateginik datozenean, ahalegin guztiak egin behar ditu... eta lotsarik gabe ohartxo bat jarri beharko luke: Hitz joko aldrebes bat egin du poetak. Euskaraz adibidez: Poesia batek esaten du:

«Esku bi
eta eskubideak
ditugu».

Itzul daiteke, noski: «Tenemos dos manos y los derechos», baina hitz jokia galdu egingo da. Ohartxo batek konpon lezake. Bestela esan zitekeen: «Tenemos la derecha y los derechos», baina nik ez dakit balioko zukeen itzulpen gisan.

Beraz, halakoak eskubete etorri ohi dira poesian, eta galtzabete lan izan ohi du itzultzaile ernaiak dena jasotzen, are batzutan konturatu ere egiten.

Bukatzeko

Bukatzeko ordua ere iritsi da. Guzti honekin gauza bakar bat besterik ez nuen esan nahi: poesia itzuli egin daitekeela eta poesia bezala itzuli ere egin daitekeela. Hori lortzen ez bada, itzultzaileari egotzi behar zaiola errua, baldin poesia itzuli nahi badu, behintzat.

Eta ondorioak beraz, laburbilduz:

1. Poesia poesia bezala itzuli behar da, jatorrizkoaren poesia izaera errespetatuz. Beraz, edertasunak izan behar du lehentasuna.

2. Batzutan sorkuntza berria egin behar da —kasik beti—. Eta horregatik, batzutan ezin errespetatu ahal izango dira poesiaren azal diren puntu batzu, adibidez neurria. Ahalik, ordea, hura ere errespetatu behar da, bestelako neurri bat erabiliz, besterik ez bada.

3. Sarri jatorrizko poesiari bere poesia izaera azalak ematen dio, eta hori kontutan hartzekoa da.

4. Baldin jatorrizkoan itzul ezinezko diruditen puntuak azaltzen badira, horiek ere beste joko baten bidez itzul daitezke —nahiz ondoren ohartxo bat jarri.

5. Eta azkenik: poesiak, itzulita ere, poesia izan behar duela; hau da, helburu hizkuntzan poesiatzat hartu behar da. Adibidez, Horazio-ren «Beatus ille» Fray Luis de Leonen «¡Qué descansada vida» da. Eta euskaraz ere gauza bera lortu behar da. Hori bai: poesia itzuli nahi bada, hizkuntza eta honen baliapideak oso ondo ezagutu eta erabili behar dira.

Baina gutzia itxi aurretik, zor dizuet Quevedoren sonetoaren itzulpena. Hona, beraz, bera, bukaerarako onena ez bada ere.

Begiko ahots, uzker izeneko
(putoen urtxindor) baldin eutsia
sasoi onena da hiltzen hasia
ta preste Juan beldur da dagoeneko.

Ezpain zakarraz ahoskatuz gero
eta gogo ozenez airerazia
zirtoz eta barrez dakar bizia
eta puf ta nazkaz bada isileko.

Kaka monarken ospea, harrotzen
direnez, tudeskoz inguraturik
dutela bizi ta parkak banatzen.

Bere galtzen epaimahaian haatik,
kutxak badira askatu eta estutzen,
bi uzkiz dagi edozein ipurdik.

Azken ohar bat, ordea

Poesia itzultzea benetan da onuragarri, irakurtzea baino gehiago. Poeta orok irakurtzen du beste poeten lana, eta behin eta berriro gainera. Baina bada esperientzia bat, irakurketa baino sakonagoa, eta hain zuzen, itzultzea da.

Munduko poeta handi asko izan da itzultzaile, eta itzultzaile on. Itzulpena, poesia itzultzea, izugarritzko ariketa da, eta esaten baldin bada poeta dela hizkuntza gailurrera eramaten duena, haren posibilitateak aztertu, arakatu eta sakontzen dituen, poesia itzultzen duenak kasik bi bider egin behar du lan hori.

Gomendiorik egitea zilegi balitzait, hauxe egingo nieke poetei: itzul dezatela poesia, horrek berarekin dakarren neke guztia hartuz, etekinak neke guztiak gainditzen dituelako. Neri mesede besterik ez dit ekarri.

SINTESIS

Traducir Poesía

En estos últimos años se están multiplicando las traducciones de poesía al euskara, y también desde esta lengua hasta, primordialmente, el castellano, y ello, gracias, entre otros, a una iniciativa de la Universidad del País Vasco. Ello a dado pie a Pello Zabaleta, traductor y poeta vasco, para hacer una serie de reflexiones y de sugerencias sobre la dificultad que encierra la traducción de obras poéticas.

En el artículo se hace una serie de consideraciones sobre las diferentes actitudes que puede adoptar el traductor de poesía: traducir literalmente, según el sentido, recrear la obra poética, copiar el original, etc.; también se analiza la traducción que intenta mantener la rima y el ritmo del original, así como algunos recursos poéticos intraducibles.

El planteamiento del autor es que la traducción de poesía es posible, y que es igualmente posible traducir poesía en poesía, sin recurrir a versiones en prosa. Así pues, la poesía debe ser traducida como tal, primando la búsqueda de la belleza de la producción. En muchos casos, ello requerirá hacer una nueva creación, que en la medida de lo posible ha de respetar el ritmo de la composición original. Por otra parte, algunos recursos aparentemente intraducibles pueden ser compensados por otros procedimientos diferentes.

El artículo finaliza recordando que muchos poetas han sido traductores, y buenos traductores, de otros poetas, y que esa actividad redobla el esfuerzo del autor poético por analizar las posibilidades y recursos del idioma; por ello, Zabaleta considera muy recomendable para los poetas vascos que traduzcan poesía.

SYNTHESIS

Translating poetry

Over the last few years, the number of translations of poetry into Basque has increased considerably. Thanks to the initiative of the University of the Basque Country, among others, translations from Basque into other languages, primarily Spanish, are also growing in number. This has motivated Pello Zabaleta, Basque translator and poet, to make a series of reflections and suggestions on the difficulties involved in the translation of poetry.

In this article, he makes a number of observations on the different criteria which a translator of poetry might adopt: translate literally, according to the sense, recreate the poetic work, copy the original, etc.; also, he analyzes translations which try to keep the rhyme and rhythm of the original, as well as some poetic formulae which are impossible to translate.

The author's approach to this question is that it is indeed possible to translate poetry and that it is equally possible to translate poetry into poetry without having to resort to prose versions. Thus, poetry should be translated as such, and that special attention should be given to the beauty of its rendering. In many cases, this would require that the poem be re-created and that the translation should respect the rhythm of the original composition. On the other hand, some poetic formulae which are apparently impossible to translate can be rendered with other different procedures.

The article ends by reminding us that many poets have been translators, and good ones too, of other poets and that this activity doubles the efforts of poets to analyze the possibilities and resources of languages. For this reason, Zabaleta considers that it is highly recommendable for Basque poets to translate poetry.

Itzulpena Nafarroako Gobernuan eta Parlamentuan

Nafarroako Gobernuko eta Nafar Parlamentuko Itzultzaileak

I. Orreagatik Cortesera itzulpenak duen bidea

Esku artean duzuen idazlan honen helburua Nafarroako Gobernuko Itzulpen Atalak egiten duen lanaren berri eskeintzea da. Lerro gutxi, agian, darabilzkigun proiektuak, ardurak, lanak eta abar adierazteko. Hala ere, horra gurea zertan datzan.

Egun, Itzulpen Atal honen kideak 21 itzultzaile bagara ere, ez gara denak hasieratik bertatik ihardun horretan egon, eta Administrazio Unitate honek duen egitura ere ez da bera izan bere hastapenetatik gaurdaino. Izan ere, 1988.eko ekainean 7 itzultzaile hasi arren, eta garai hartan Lehendakaritza Departamentuko Barne Eraentzako Zerbitzupuan bageunden ere, Foru Administrazio hau egituratuz joan ahala, beste kokapen bat eman zioten Atalari, eta ondorioz, sortu berri zen Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren menpean paratu zuten, alegia, egun dihardueneko Zuzendaritzarenean. Hastapen horietatik egun arte, itzultzaile kopurua gehituz joan da, eta horrela, idazlan hau prestatzen ari garen unean, lehen esan bezala, 21 ari gara eginkizun desberdinak egiten:

- 1) Nafarroako Aldizkari Ofiziala:
 - a) Foru Administrazioa: 11 itzultzaile
 - b) Administrazio Lokala: 7 itzultzaile
- 2) Itzulpen Unitatea: 3 itzultzaile

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen I. Tituluaren 9. artikulua xedatu zuenez, «Nafarroako Gobernuak Iruñean euskara-gaztelera itzulpen ofizialeko administrazio unitatea sortuko du». Bi urte beranduago abiatu zen proiektu hau, 1988.eko ekainean hain zuzen ere. Hasmentan, administrazio-hizkera ezagutu eta hartaz jabetzeko xedez, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala hartu genuen erreferentziatzat edo. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzako HAEE-IVAP erakundearekin harremanetan jarri ondoren, ikastaro bizkor eta laburra eskeini ziguten. Handik aurrera, gure kontu hasi ginen zeregin horretan. Jakina, ezin ausart gintezkeen, tupustean, itzultzen genuena argitaratzen, eta hortaz, 89.eko azarora bitartean egiten genituen itzulpenak ez ziren argitaratu. Lan horiek zuten balioa, ordea, praktika hartzekoa zen, bai hizkuntzaren aldetik nola geroago eta egun erabiltzen dugun sistema informatikoa ezagutzeko ere. Denok dakigunez, Administrazioaren lanetan erabiltzen diren testuak behin eta berriz errepikatzen dira; honek aukera ematen du dokumentu ereduak izateko. Horretaz baliatuz, aipatu garai horretan hainbat eredu prestatu genituen, eguneroko praktikak, argibideek eta aldaketek agindu ahala aldatuz joan direnak alegia.

Lehen esan bezala, 89.eko azaroan hasi zen argitaratzen Nafarroako Aldizkari Ofizialaren euskal bertsioa, ez ordea osorik, esan nahi bait da, argitarapen horrek dituen lau sailetatik (Foru Administrazioa, Administrazio Lokala, Justizia Administrazioa eta Estatuko Administrazioa) lehena besterik ez genuela itzultzen. 1990.eko ekainaren 20an kaleratu zen euskaraz Administrazio Lokaleko lehen dokumentua, baina jakina, Foru Administrazioarekin egin genuen bezalaxe, hemen ere, ez ginen bat-batean abiatu, eta aurretik hainbat praktika eta saio egin genuen sail horrekin.

Egun, esku artean ditugun proiektuak bat baino gehiago izanik ere, bat da denen gailen azaltzen dena: Justizia Administrazioko dokumentuak itzultzea. Izkiriatzen ari garen honetan, gutariko bik prestatu eta landuriko ereduak eztabaidatzen ari gara. Planak okertzen ez badira, agian, uda baino lehenago plazaratuko dugu ekimen berri hau. Honek lan-banaketa berria ekarriko digu ezpairik gabe,

baina horren jakitun gaude. Gure lankide hauek ahalegin berezia burutu dute delako eginkizun horretan: hizkera juridikoak dituen ezaugarri zaharkitu horiek euskaraz eguneratzeko esfortzu itzela egin dutela esan behar dugu. Hala ere, eguneroko ihardunak adieraziko digu hartutako bidearekin asmatu dugun ala ez. Baiezkoan gaude.

Estatuko saila litzateke momentuz nolabait ikutuezina den bakarra. Anekdota eta adierazgarri moduan, zera hau: Nafarroako Gobernuko Lehendakari berriaren (Juan Cruz Alli Aranguren jauna) izendapena erdara hutsez eman zen argitara euskarazko aldizkarian Estatuko xedapena bait zen. Hau bitxikeria! Ez dakigu inoiz sail horri heltzerik izango ote dugun.

Orain arte adierazitako gehiena Aldizkari Ofizialari zegokion, baina bada, lehen esan bezala, beste arlo bat ere bertan lantzen dena: Itzulpen Unitatea deritzona. Unitate horrek prestatzen dituen dokumentuak mota askotakoak dira: informazio orokorrekoak, kanpainetakoak, foiletoak, biografiak, liburuak, txostenak, inprimakiak, errotuluak, prentsarako iragarkiak (euskaraz argitaratzen dituztenean), Telefónicaren liburua, Goizuetako arau subsidiarioak, eta abar. Beste sailetan gertatu erara, hemen ere, itzulpenaren norabidea ia-ia bakarra da: erdaratik euskarara. Hala eta guztiz, Unitateak duen beste berezitasun bat alderantzizkoa (euskaratik erdarara) egitea ere bada, hauek oso gutxi diren arren (isunak, erreklamazioak, helegiteak, ...).

Baina, jakina, euskara bezalako lengoia batek hizkuntz euskarriren bat behar du, zeri heldu, nola erabili eta nola ebatzi argituko diguna. Esan nahi bait da, Euskaltzaindiak emandako arauak betetzen ditugula, batzutan gogor xamarra bada ere. Adibide bat ematearren, aipa dezagun Euskaltzaindiako LEF Batzordeak hitz elkarketarako proposaturiko (ez aginduriko) bidea. Eztabaida horri momentuz heldu ez badiogu ere, korapilatsua izango delakoan gaude.

Bitartekoez ari garelarik, esan behar da UZEIk emandako erizpi-deak izaten direla erreferentzia nagusi. Horrekin batera, Atalaren iharduna hasi zenetik gaurdaino egindako lanak eman dizkigun auke-
rak eta bideak erabiltzen ditugu maizen, erraz uler daitekeenez. Edo-

zein modutan ere, euskal esparrutik datozen esperientziak eta eritziak aintzat hartzen ditugu; honen adibidea izan daiteke itzulpengintzaren arloan diharduten erakunde, kolektibo eta taldeen ordezkariak burutzen ari diren lan-bilerak. Bidezkoa denez, parte hartzen dugu batzar horietan, Iruñean erabiltzen ditugun erizpideak mahairatu, eta besteek emandakoak gureganatzen ditugularik.

Itzulpen Unitateak egiten dituen lanen portzentaiari dagokionez, 90.eko datuei begiraturaz gero, zera ondorioztatzen da: Aldizkarian argitaratzekoak ez diren dokumentuak (besteak oso-osorik publikatzen bait dira) Osasun Departamentuak agintzen ditu gehienbatean, alegia, %35, eta Hezkuntzak ondoren (%20). Osasun Departamentua aipatu denez, esan behar da, arlo honetako testu-hustuketa handiguratsa bati ekiten ari gatzaizkiola une honetan, lan luzea eta onuragarria izanen dena.

Badira bulego honetan ikutzen diren beste arlo batzu: telefonoz egindako kontsultei erantzun, Gobernuarentzat lan egiten duten enpresentzako itzulpena, Gobernuak antolatzen dituen oposizioetarako aholku-emaileak,...

Interpretaritza

Orain arte ikusi izanen duzuen bezala, itzulpengintza arloan mugitzen gara, izan ere, Itzulpen Atala izenak hori adierazten bait du. Interpretaritza arloan dugun lana murrizta eta berezia da: gure departamentuak Iruñeko Auzitegian interpretari zerbitzua ematen du.

Iharduera horretan, 1991.urtean bederatzi aldiz bakarrik egin dira interpretaritza lanak.

Iruñeko Auzitegian ez dira ba euskal mintzoak nolanahi ere entzuten, baina... nortzuk hitzegiten dute euskaraz bertan? Erdaraz gaizki moldatzen diren euskaldunak edo, erdaraz jakin arren, administrazioan euskara erabiltzeko euren eskubidea erabiltzen dutenek. Lantzean behin, aitor ematera doazenak dira, besteetan, deklaratzailak, lekukoak, auzitaratuak etab.

Bi talde hagitz ezberdin nabaritzen ditugu: lehenbiziko taldea herritatik datorrigun jendeak osatzen du, usu adinekoak dira eta herriko euskara dute komunikazio tresnatzat. Arruntean lur auzietan lekuko gisa testigantza ematera etortzen dira Iruñera. Gehienek erdaraz ere zertxobait badakite, jakina. Hala ere, nola ulertu, bada, egiten dizkieten tankera honetako galderak: «Diga ser cierto que el actor posee también otra finca próxima a la de la lites a novel y de cultivo.»

Zer esanik ez, erdaraz ez dakitela diote. Gertatu zaigu behin batean erdaraz hitzik ere ez zekien batekin topo egitea.

Bigarren taldean bildu dugun jendeak ez ditu horren ezaugarri zehatzak: euskaldun berriak edo zaharrak daitezke, hiritar edo herri-tarrak, euskaraz txukun edo trakets hitzegiten dutenak... Elkarlotzen dituen ezaugarri bakarra adina da, lehenengo taldekoak baino gazte-agoak izaten bait dira.

Eskatzen diguten interpretaritzaren mota esanostekoa da, euskaratik gaztelaniara eta gaztelaniatik euskarara. Azkeneko itzulpen horiek erdaraz ongi ulertzen ez duten euskaldunentzat beharrezkoak badira ere, egoera bitxia sortzen da euskaldunak erdaraz dakienean, ederki ulertu bait du aurretik itzuli behar zaiona. Elkar ulertzeko hizkuntzen artean dauden hesiak gaindituta, zer bilakatzen da interpretariaren lana? Horregatik batzuk itzulpena entzun baino lehen ematen dute erantzuna.

Egokitzapenak beste oztopo batzu ekartzen dizkigu. Auzitegian erabiltzen den hizkuntza goi mailakoa izateaz gain, hizkuntza teknikoak da, lege hizkuntza, alegia. Aurretik azaldu bezala, sarritan herrietako jendearekin egiten dugu lan, baita euskara ongi ez dakien jendearekin ere. Euren hizkuntza mailara egokitu behar dugu gure hizkera, hitz teknikoak alde batera utziz eta goi mailako hizkuntzaz esandakoak hizkuntza arruntean emanez. Adierazgarria da herrietako jende askok aditzera ematen diguna: «Nik euskara batua ez dot entzenditzen». Hortaz, herrialde bakoitzeko hitz eta egiturak erabiltzen saiatzen gara.

Azken solasa

Azalpen luze-labur hau bukatzeko, zer hobe, ditugun egitasmoak jakin eraztea baino. Hauetako berebizikoena, zalantzarik gabe, Justizia Administrazioako dokumentuak (Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnak) euskaratzea da, eta bigarrenik, orain arte egindako lanaren testu-hustuketa orokorra, gehienbat hiztegiari begira. Testu-lanketa hau mantso joanagatik ere, martxan dago, eta bukatutakoan zenbait proposamen luzatzeko aukeran egonen garela uste dugu. Proposamen horien ildo nagusia, honez gero, diseinatu dugu, bai eta zehaztapen bat edo beste ere, ez osorik ordea.

Bestalde, lehen iruzkindu ditugun bilera horiekin (itzulpengintza arlokoak alegia) segitzeko asmoa dago, eta egin ditzakegun ekarpenak mahairatzerakoa ere.

Luze mintza gintezke aipaturiko edozein punturen inguruan, baina espazioak agintzen du, bai eta astunegi ez iharduteak ere. Besterik ez. Hemendik aitzina inork ez dezala erran Nafarroako Erresuma zaharrean euskal bideak aukerarik ez duenik. Hala biz!

II. Aldibereko itzulpena Nafar Parlamentuan

Lehenengo legealdietan aldibereko itzulpenaren beharra izan bada ere, 1991 urtean hasitako legealdian areagotu dela behar hori esan daiteke. HB-k maizago parte hartzearekin eta EA-k parlamentari euskaldunik edukitzearekin, hain zuzen.

Egun lau dira euskara, gehiago edo gutxiago, erabiltzen duten parlamentariak: Zabaleta, Aoiz eta Araiz (HB) eta Oronotz (EA). Nafar Parlamentuan 50 parlamentari daudela kontutan hartzen badugu, %8 baino ez dela euskara erabiltzeko gauza, ariketa erraz baten bidez ateratzen den ondorioa da. Alde horretatik, Nafarroan %10 inguruan jartzen bada euskaldunen ehunekoa, esan dezakegu Parlamentuko errealitatea ez dagoela oso urruti gizartetik. Eta hala da ehunekoei dagokienez. Erabileraren normalkuntzari dagokionez, aldiz, gauzak

bestelakoak dira; gizartean erabilera normalizatua ez delarik ere, Parlamentuan are eta gutxiago. Bakar batzutan egiazko edukiera politikoa izan duten interbentzioak izan badira ere, gehienetan erabileraren testinoniala da.

Egoera honen faktore eragileak zeintzu diren aztertzeko orduan, honako hauek aipa daitezke:

- Elebitasunaren kulturak dakartzan egoera berrien ezagutza falta, talde politikoen aldetik, bai eta egoera horiek gainditzeko erabili beharreko baliabideena ere.
- Euskararen erabilerari berari gaineratzen zaion «balio erantsia», politikoa eta sentimenduzkoa, horrek ernarazten dituen joerekin, aldekoak zein aurkakoak.
- Zerbitzuaren egitura bera; lan-baldintza fisikoak txarrak dira (kabinarik ere ez dago eta), bertako plantilarik ez dago —zerbitzuemate-kontratuaren bidez betetzen da eginbeharra—, eta zerbitzuemaileok ez dugu prestaketa berezirik izan, beste hainbat arlotan ibili eta gero hartaratu garelarik, ahal moduan.

Dena den, ez genuke dena beltzegi pintatu nahi: urtarrilean Lurdes Auzmendik emandako ikastaro batean parte hartzeko aukera izan genuen, prestaketa berezi hori eskuratzen joateko. Lan-baldintzak hobetuko omen dira, plantila bat sortu eta estabilizatzen joateko asmoa dago, eta pentsatzekoa da eguneroko lanak politikoen joerak aldatuko dituela ezari-ezarian. Geroak esango.

SINTESIS

La traducción en el Gobierno y Parlamento de Navarra

En estos dos artículos se hace un breve comentario sobre la situación en que se encuentran la traducción e interpretación entre el euskara y el castellano en las instituciones forales navarras.

Por lo que se refiere a la interpretación en el Parlamento, se señala que su utilización ha aumentado a partir de 1991, debido a la asistencia de los representantes de HB y a la existencia de un parlamentario vascohablante de EA, aunque sólo llega al 8% el número de parlamentarios capaces de expresarse en euskara. Ello lleva a que el uso que se hace de este idioma no pase de ser testimonial.

Por su parte, el Gobierno de Navarra cuenta con 21 traductores, que primordialmente trabajan en la traducción al euskara del Boletín Oficial, aunque entre sus proyectos está también la traducción de documentos de la Administración de Justicia. También existe una Unidad de Euskara, que se encarga de la traducción de textos de información general, campañas, impresos, rotulación, anuncios de prensa, etc.

Los traductores del Gobierno de Navarra también actúan como intérpretes en el Tribunal de Pamplona, generalmente cuando han de declarar personas con deficiente conocimiento del castellano, o que quieren valerse de su derecho a expresarse en euskara. Suelen realizar traducciones consecutivas, y uno de los mayores problemas con que se encuentran es la dificultad de hacer comprensible el lenguaje lleno de complejidades jurídicas y tecnicismos que se suele utilizar en los tribunales de justicia.

SYNTHESIS

Translation in the Government and Parliament of Navarra

These articles comment briefly on the situation of translators and interpreters working in Basque and Spanish within the government institutions of Navarra.

As far as interpreting work in the Parliament is concerned, this increased as of 1991 due to the presence of representatives of Herri Batasuna and the existence of a Basque-speaking member of parliament belonging to Eusko Alkartasuna, although only 8% of members are able to express themselves in Basque, revealing that this language is used on a merely symbolic level.

On its part, the Government of Navarra has 21 translators which are involved mainly in translating the Official Gazette, although it also plans to translate documents published by the Department of Justice. There is also a Basque Unit which is responsible for translating texts containing general information, publicity campaigns, forms, lettering, press releases, etc.

The translators of the Government of Navarra also work as interpreters in the Law Courts of Pamplona, generally when persons which insufficient knowledge of Spanish have to give evidence, or when anyone wishes to exercise their right to express themselves in Basque. Usually, translations are made consecutively and one of the biggest problems found is the difficulty in making the language habitually used in law courts comprehensible, as this is full of legal complexities and technical terms.

PUNTUZ PUNTU

Espainiako itzulpen eta interpretaritzaren estatutu profesionalaren proiektua

Edozein profesio garapen eta heldutasun-maila jakin bat lortzen duenean, garbi izaten ditu gizartean, beste lanbideen artean, bere tokia eta mugak. Profesio horretan ari direnek aski zehaztua izaten dute beren eginbeharra eskubide eta obligazio guztiekin bezeroen, Haziendaren eta baita iharduera desegokien bitartez, kode deontologikoa gutxietsiz, lanbidearen duintasun eta iraumena arriskuan jartzen dituztenen aurrean nola jokatu ere. Aipaturiko heldutasun eta kontzientzi puntura iristean, lanbidean ari diren kideen bilgune diren elkarteek beren estatutu profesionala finkatu eta idazteari ekin ohi diote, ondoren indarrean dagoen lege-markoaren barruan kolegio profesional bat eraturik, beren iharduerak bideratu eta arautzeko. Hauxe da Espainiako Estatuan joan den maiatzean burutu eta orain eskuetan dugun proiektuaren zentzua.

Bost elkarteren artean mamitu den dokumentu hau, aipaturiko lanbidean dabilzan ahalik eta kide gehienen onarpena jaso ondoren, Parlamentuan onartua izan dadin aurkeztuko da, aurrerantzean dagokion indar ofizialaz horniturik, lanbideak behar dituen ekimenterako pausu guztiak eman daitezen.

Esan beharrik ez dago garrantzi handieneko urratsa ematen dela dokumentu hau Gorteetan aurkeztean eta etorkizunean itzulpenak eta interpretaritzak Espainiako Estatuan eta Autonomi Elkarte bakoitzean adin-nagusitasuna lortzen dutela, Europako beste zenbait herrialdetan bezala.



Espainiako itzultzaile eta interpretarien Elkarte Profesionalak (APETI), berekin dituela Espainiako Hitzaldi-Interpretarien Elkarte (AICE), Galiziako Itzultzaileen Elkarte (ATG) eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte (EIZIE), eta Espainiako Hitzaldi-Interpretarien Nazioarteko Elkarteko kideen lankidetzarekin honako Estatutu Profesional hau aurkezten du:

Espainiako itzulpen eta interpretaritzaren estatutu profesionala

(1992ko ekainak 5)

Atarikoak:

Itzulpena eta interpretaritza ezinbesteko iharduerak dira gizakien arteko komunikazioan, eta munta eta garrantzi berria hartu dute gaurko munduan, nazioarteko komunikazioan eta harremanetan. Interpretaritza eta itzulpena munta handiko komunikabideak dira gaur egun munduan, eta ezinbestekoak dira informazio-trukeak behar bezala funtzionatuko badu eremu zientifiko, tekniko, ekonomiko, politiko, soziokultural eta militarrean.

Itzulpenak eta interpretaritzak hartu duten garrantzia dela eta, ezinbestekoa da legezko marko bat eratzea, bi iharduera profesionalok arautu eta babesteko; egon ere iharduerok Ekonomia eta Hazien-dako Ministraritzak aitorturik bait daude efektu fiskal eta zergazkoetarako.

Era berean, alde batetik Nazioarteko Lan Erakundeak (OITk) zehaztuta dauzka bi lanbide horien lan-perfilak, «International Standard Classification of Occupations»-en dokumentuaren epigrafe 1-95-30 eta 1-95-40koetan, eta bestetik, Nazio Batuen Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Erakundeak (UNESCO) itzultzaileen eta itzulpenen babes juridikoa eta itzultzaileen egoera hobetzeko bitarteko praktikak iragartzen ditu «Nairobiako gomendioa» bezala eza-gutzen denaren bidez (1976ko azaroaren 30eko XIX. bilera).

Bestalde, 1987ko azaroaren 11ko Jabego Intelektualaren legea aipatu behar da, bertako agindu batzuk jatorrizko lanen itzulpen eta egokitzapenean, zuzenketan eta eguneratzeen egile eskubideak arautzen dituztelako (22/87 Legeko 11. art.). Azkenik azpimarratu behar da, Espainian badela titulazio unibertsitario bat Hizkuntzen Itzulpen/ Interpretaritzakoa.

Premia gorria bait dago itzultzaile eta interpretari profesiorako bidea ezeze, horien izendapen profesionala bera ere legez babesteko, premia horri erantzun egoki bat emateko asmotan dator estatutu profesionalaren proiektu hau.

I. Atalburua: Itzulpena

1. ARTIKULUA

Itzultzaile-lana izaera analitiko-sintetiko-kritikoa duen sormen-prozesu bat da, eta ezagutza espezializatuak eta komunikazioa elkartzen diren puntuan aurkitzen da.

2. ARTIKULUA:

Itzulpengintzak honako iharduerok hartzen ditu bere barnean, zuzenean edo zeharka:

A) Zuzeneko iharduerak honakoak dira:

1. Sorburu-hizkuntza batetik helburu-hizkuntza batera testuak itzultzea, forma, edukina eta estiloa ahalik eta gehiena mantenduz.

2. Sorburu-hizkuntza batetik helburu-hizkuntza batera testuak itzultzea, formaz, edukinez eta estiloz zein talderentzat destinatua dauden espezifikoki hartara moldatuz.

3. Jatorrizko testuak eta itzulpenak berrikustea, hau da, linguistikaren ikuspuntutik birlantzea.

B) Zeharkako iharduerak honakoak dira:

1.«Terminologia» espezifikoki bat lantzea. Iharduera honen bidez hauxe da bilatzen dena:

- a) esamolde eta formulazio espezifikokoak sailkatu eta prestatzea;
- b) hizberri espezializatuak finkatzekoan espezialistei aholku ematea.
- c) horrela finkatutako terminologia informatika-bidez lantzea;
- d) terminologia hau datu-bankuetan sartu, eguneratu eta modu ordenatuan (hiztegi-moduan) erabiltzeko moduan jartzea.

2. Elaborazio «lexikografikoa».

Langintza honen bidez bilatzen dena da, lexikoak, indizeak, glosarioak eta abar landu eta birlantzea, dela metodo tradizionalen dela informatikoen bidez.

3. ARTIKULUA:

«Itzultzailearen» kontsiderazio profesionala izango dute hartarako behar den titulua daukatenek edo beren gaitasun profesionala frogatu dutenek, gutxienez jarraian aipatzen diren baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Espainiako edo atzerriko unibertsitatearen batek emanik, Itzulpen-gintzako goimailako titularen jabe izatea, konbalidazio edo homologazioari dagokionez indarrean dauden xedapenei jarraituz.

2. Edozein nazioarteko organismoren itzultzaile-azterketa gainditurik edukitzea.

3. Edozein organismo publiko edo pribatutan hitzaldi-interpretari edo itzultzaile bezala bakarrik, berrehun egun gutxienez aritu izatea.

4. Gutxienez mila folioren parekoa den itzulpen-kopuru bat argitaraturik edukitzea, dela liburutan, dela aldizkari nahiz periodiko artikulutan edo pelikula-gidoitan; kasu bakoitzean behar den kreditapen dokumentala eta deklarazio zinpetua aurkeztuko dira.

5. Iharduera Ekonomiko, Artistiko eta Profesionalerako Erroldan alta emanda egotea, dokumentu-bidez kreditatuz, gutxienez, mila folio itzuli dituela Administrazio Publiko edo enpresa pribatuarentzat.

II. Atalburua: Hitzaldi-Interpretaritza

4. ARTIKULUA:

Hitzaldi-interpretaritza esanez ulertzen da, honako modalitateok bere barnean hartzen dituen ahozko itzulpena bakarrik:

A) Aldibereko interpretaritza:

1. Interpretariak, kabina insonorizatu batetik, eta bilera-sala bistan duela, aldi berean, beste hizkuntza batera itzultzen du hizlariaren hitzaldia.

2. Aurrekoaren mota berezi bat da «ahopeko interpretaritza», zeinaren bidez, interpretariak, bilera-tokian bertan itzultzen bait du aha-petik entzulearentzat hizlariaren mezua.

B) Esanosteko interpretaritza:

Interpretariak, bilera-tokian bertan, hizlariaren ondoren hartzen du hitza, horren mezua beste hizkuntza batera itzultzeko. Itzulpen-modu honetarako, oharrak hartzeko teknika berezi bat ere erabil dezake.

5. ARTIKULUA:

Hitzaldi-interpretarien lana egingo da batipat, nazioarteko hitzaldi, kongresu eta bileretan, eta edozein eratako negoziazioetan.

6. ARTIKULUA:

«Hitzaldi-interpretarien» kontsiderazio profesionala izango dute nazio barruko zein atzerriko unibertsitate bateko hitzaldi-interpretaritzako titulu goimailakoa, eta Espainiako agintariek onartua, daukatenek. Halaber, hitzaldi-interpretarien kontsiderazio profesionala izango dute lizentziatu unibertsitarioek edo balio-berdineko kultur maila eta esperientzia profesionala daukatenek, baldin eta gainera ondoko baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

1. Nazioarteko edozein organismotan hitzaldi-interpretaritzako funtzioak betetzeko onarpen-frogak gaindurik edukitzea.

2. Nazioarteko edozein organismotan, hitzaldi-interpretaritzako funtzioak iraunkorki betetzen aritzea.

3. Kontratu edo faktura bidez frogatzea hitzaldi-interpretari bezala lan egin dela, gutxienez, berrehun egunetan aldibereko eta/edo esanosteko interpretaritza egiten.

Tratamendu berezia izango dute, UNESCO-k emandako definizioaren arabera, hedadura mugatukoak diren hizkuntzek.

III. Atalburua: Zinpeko itzulpen eta interpretaritza

7. ARTIKULUA:

Zinpeko interpretaria profesional bat da, hartarako azterketa gainditu ondoren, Kanpo-Arazoetako Ministraritzarengandik behar bezalako titulua eskuratu duena, zeinak gaitzen bait du profesioan Espainiako lurralde osoan aritzeko, hartarako onartu zaizkion hizkuntzetan.

8. ARTIKULUA:

Zinpeko Interpretaria, bere tituluaren bertutez, itzulpenaren eta interpretaritzaren fedemaile publikoa da.

1. Itzultzaile denez, zinpeko itzultzailea da itzulpenaren notarioa. Bera da legezko ondorioz sortu behar duen edozein dokumentu egiaztatu behar duena.

2. Interpretari denez, bera da auzitegien aurrean, notarioen aurrean, erregistroetan edo beste edozein erakundetan ihardun behar duena, haren interpretaritzak legezko ondorioz sortu behar duenean.

9. ARTIKULUA:

Naziozgaindiko komunitatearen barruan, Espainia ere barneko bait da, eleanitzeko auzirik denean, justiziaren lankide bat gehiago da interpretaria, abokatua edo epailea bezalaxe. Horren ondorioz, zinpeko interpretariak erantzun behar du bere jarduera judizialaren egiazkotasunaz eta zehaztasunaz.

IV. Atalburua: itzultzaile eta interpretarien obligazioak

10. ARTIKULUA:

1. Itzultzaile eta interpretariak, lana ematen dienaren zerbitzuan jarri behar dituzte beren ezagutza eta gaitasun profesionalak, eta berebat konpromisoa hartu behar dute haren legezko interesak babesteko.

2. Itzultzaile eta interpretariak onartuko dituzten lanak izango dira, berek behar bezala bete ditzaketenak, kontuan edukiz bai profesioaren arauak eta bai bezeroaren interesak. Kontratu bat onartzeak esan nahi du, profesionalki garantizatzen dela hura.

3. Itzultzaile eta interpretariak gorde egin behar dute sekretu profesionala, beren profesioaren ihardueran gomendatzen zaizkien testuei eta informazioari dagokienez, eta ezin erabiliko dituzte, norberaren edo beste inoren probetxutan, itzulpengintza edo interpretaritzaren bidez jakin izan duten egitate eta daturik. Sekretu profesionalaren gordebeharrak bizirik iraungo du kontratua iraungita gero ere.

4. Itzultzaile eta interpretariak ez dute onartu behar norberaren lanbideari ospe txarra lekarkiokeen lanik, eta eskubide izango dute beren kontzientziaren kontra doazen lanak ezesteko.

5. Itzultzaile eta interpretariak beren gain hartuko dituzte, beren profesioaren iharduera normaletik sor litezkeen erantzunbeharrak.

6. Itzultzaile eta interpretariei, 1987ko azaroaren 11ko Jabego Intelektualaren legean aitortzen zaizkien eskubide guztiak dagozkie (E.A.O. 275. zbk., 1987ko azaroaren 17koa).

Madriren, mila bederatzirehun eta larogeamabiko ekainaren bostean.

Terminologi lana: bideak zabaltzen

Araceli Diaz de Lezana

Sarrera

1990eko abenduaren 20an UZEI eta HAEE/IVAP erakundeek hitzarmen bat izenpetu zuten. Hitzarmen horren helburua, bi erakunde horiek, euskararen normalizazioaren eta modernizazioaren alde egiten ari diren ahaleginak koordinatzea eta bateratzea da.

HAEE/IVAPen aldetik Itzulpen Zerbitzu Ofiziala da hitzarmenaren garatzeaz arduratzen dena.

Geroztik, hitzarmenak esandakoari men eginez eta berau ahalik eta azkarren garatzeko asmoz, aipatu erakundeek hitzarmenaren punturik garrantzitsuenak betetzeari ekin diote. Hona hemen pausoz pauso orain arte egindakoak:

- Hitzarmeneko 6. puntua: Lotura-Batzordea osatu da, Euskaltzaindiak eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak ordezkari bana eta UZEIk eta HAEE/IVAPek bina ordezkari dituztela.
- Hitzarmeneko 1. puntua: HAEE/IVAPek, SPRITEL telematika-sarearen bitartez, herri-administrazioei (udalak, foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako sailak) EUSKALTERM terminologi bankurako sarbidea eskaini die. Dagoeneko bi deialdi egin dira guztira 67

konexio daudelarik. Sarbidea, PC terminal batetik egiten da, modem bat telefonoari konektatu ondoren.

HAEE/IVAPen asmotan dago, pixkanaka-pixkanaka, herri-administrazio guztiek lan-tresna hori eskuratu arte, deialdiak egiten jarraitzea.

- Hitzarmeneko 3. puntua: HAEE/IVAPek bere lanak EUSKAL-TERM terminologi bankuan sartuko ditu erabiltzaileek kontsulta ditzaten. Biltegiratze eta bateratze prozesuaren lehenengo urratsa honako hauxe da: UZEIk eta HAEEK termino bera proposatzen dutenean, terminoaren ondoan, fitxan, (B) ponderazio-marka agertuko da. (U) ponderazioa agertuko da terminoa UZEIn erabilia denean, eta (H) ponderazioa HAEE/IVAPen erabilia denean. Helburua (B) ponderaziora iristea da. Horretarako etengabe aztertu eta landu beharko dira terminoak, txostenak eginez, zenbait adituri kontsultatuz, e.a.

- Hitzarmeneko 4. puntua: «Euskal Autonomi Elkarteko Herri-Administrazioek metodologia nahiz erabilitako terminoei buruzko proposamen eta ekarpenak egin ahal izango dizkiote UZEIri eta baita terminologi zein hustuketa-fitxak helerazi ere, beti ere Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzulpen-Zerbitzu Ofizialaren bitartez». Puntu hau garatzeko, 1992ko ekainaren 10ean Donostian, eta ekainaren 17an Gasteizen, ikastaro bat antolatu zen EUSKALTERM zerbitzuaren erabiltzaileentzat. Ikastaroaren helburua erabiltzaileei metodologia eta hustuketa-fitxaren eredia azaltzea zen. Izan ere, denok, eguneroko ihardunean, arazoak izaten ditugu termino eta unitate lexikalak ulertzeko edo dekodetzeko eta beren baliokideak euskaraz edo gaztelaniaz aurkitzeko. Oztopo horiek, bakoitzak ahal duen moduan gaintzen ditu. Hori dela eta, bide bateratua urratzea proposatzen dugu: denon artean sare bat osatzea, eta horrela batek egindako lana, besteentzat probetxuzkoa izan daiteke.

Bide bateratu hori artikulua honetako II. puntuan aurkeztuko dugu.

Baina lehenago, terminologi hustuketa zertan datzan azalduko dugu.

I. Terminologi hustuketa

Terminoen aukeraketak eta zedarriztapenak arazoak sortzen ditu maila teorikoan zein praktikoan. Arazo guztiak konpontzeko ez da beti irtenbiderik aurkitzen.

Hain zuzen, testu batean agertzen diren elementuak izaera desberdinetakoak izaten dira: hitzak, hitz-elkarketak, esamoldeak, lo-kuzioak, izen propioak, unitate lexikalak, terminoak, unitate terminologikoak, itzulpen-unitateak, esaldi-unitateak.

Guk, elementu horietatik, terminoak eta unitate terminologikoak bakarrik hartuko ditugu kontuan. Baina lehenago gogoraziko dugu zer diren «terminologia» eta bere objektua den «terminoa»:

Terminologia: «Giza ihardueraren esparru berezituak diren kontzeptuen izendapen sistematikoa, hauek beren funtzionamendu sozialean hartuta». Eremu horietako bakoitzari talde sozioprofesional batek erabiltzen duen eta hiztegi berezitu bat osatzen duen termino-multzo egituratua dagokio.

Terminoa: «Eremu baten barruan era unibokoan nozio bakarra izendatzen duen unitate linguistiko oro, dela bakuna dela konplexua». Terminoren funtzio nagusia izendapena da, hots, errealitate (zehatz edo abstrakto) baten eta hizkuntza-zeinu baten artean erlazioa sortzea.

Terminologiak honako kategoria lexikal hauek ikertzen ditu:

- a) izenak eta izen-sintagmak
- b) adjetiboak eta adjetibo-sintagmak
- c) aditzak eta aditz-sintagmak

Beraz, gramatika-hitzak eta elementu sintaktikoak kanpo gelditzen dira.

Bi unitate-mota aurkituko ditugu terminologi hustuketa egite-rakoan:

- Unitate bakunak: ez dute zedarriztapen-arazorik sortzen, oso argiak bait dira.

Ad: errekurtsio.

- Unitate konplexuak, edo izendapen-sintagmak: bi edo hiru hitzek (edo gehiagok) osatutako multzoak. Ezin dira banatu, bestela esanahia aldatu egiten da. Erreferentzi bakarreko sintagmak dira beraz; nozio bakarra adierazten dute, eta adierazitako nozioak izendapen hori du. Unitate konplexuak lexikalizatuta daudela esan ohi da. Nomenklatura batean osorik idatzirik azalduko dira.

Ad: **eu** aurkeztu gabearekiko epai

es sentencia en rebeldía

fr arrêt par défaut

en judgment by default

Nomenklatura bat egitean oso zaila da sintagma baten lexikalizazio-maila zehaztea. Hustuketa-garaian, unitate konplexuak bereiztuko dira, eta bigarren urrats batean aztertu egin beharko dira.

1.1 Terminologi testuen azterketaren arazoak eta metodoak

Terminologi ikerketa sistematikoan, termino eta nozioen bilketa orokorra, bi dokumentu-mota diferentetatik egiten da: lexikografikoe-tatik (orokorrak eta berezituak) eta ez lexikografikoetatik (entziklopediak, katalogoak, aldizkari espezializatuak, e.a.)

1.1.1 Terminoen bilketa

Hustuketaren bidez egiten da. Gehien erabiltzen den metodoa honako hau da: hustu beharreko testuaren lehenengo irakurketan ustezko unitate terminologikoak azpimarratzea. Eragiketa horrek, terminologari metodologiari buruzko eta lantzen ari den eremu edo azpi-eremuari buruzko hainbat ezagupen eskatzen dio.

1.1.1.1 *Unitate terminologikoaren lokalizazioa*

Bereizten jakin beharko da: unitate terminologikoa, hitza eta hizkuntza arrunteko esamoldea.

Terminologoak eremua ezagutu behar du pixkat, horrela zenbait arazo baztertu ahal izango du, kasurako:

- a) Terminoak ez diren hitzak edo esamoldeak terminotzat hartzea.
- b) Terminoak diren formak eta esamoldeak aintzakotzat ez hartzea.

Lehenengo urrats hori terminoen lokalizazioa da.

1.1.1.2 *Terminoen zedarriztapena*

Ez da nahikoa terminoak lokalizatzea; oso garrantzitsua da horien zedarriztapena ondo egitea.

Hustu beharreko edozein testutan (testu berezitua, CST-koa¹, e.a.), hiru kategoria gramatikaletan (izena, aditza eta adjetiboa) adierazirik, honako forma linguistiko hauek aurki ditzake terminologoak:

- a) Hizkuntza arrunteko hitz bakunak.
- b) Hizkuntza arrunteko esamolde sintagmatikoak.
- c) Espezialitate-hizkuntzetako diskurtsoko sintagma-multzoak.
- d) Espezialitate-hizkuntzetako sintagma-multzo lexikalizatuak (erreferentzi bakanrekoak).
- e) Termino bakunak.

Lehenengoen eta azkenek ez dute zedarriztapen-arazorik sortzen. Lokalizazioa da arazoa.

Besteek, ordea, lokalizazio eta zedarriztapen arazoak sortzen dituzte.

1. CST:communications scientifiques et techniques (zientzi eta teknika-arloko komunikazioa)

Bigarren kasuan, hau da, esamolde sintagmatikoen kasuan bi esaera-mota aurki daitezke. Adibidez:

- «Eritzia eman» bezalako esamoldeak; testuinguruaren arabera, hots, erabileremuaren arabera, hizkuntza arruntekoa nahiz espezialitate-hizkuntzako delá (zuzenbide-arlokoa, adibidez) esan daiteke.
- «Parte hartu» bezalako esamolde sintagmatikoak. Hori bakar-bakarrik hizkuntza arruntekoa izan liteke; hori bezalako sintagmen kasuan, arazoa lokalizazioa izaten da eta ez zedarriztapena.

Hirugarren eta laugarren puntuetan, aipatutako terminoek zedarriztapen-arazo handiak sortzen dituzte batzutan. Azterketa zehatza eskatzen dute.

1.1.1.3 *Termino sintagmatikoak eta hapax-ak*

Termino sintagmatikoa termino konplexua da; morfema-konbinazioa: zenbait morfema terminologikoz osatutako terminoa. Hitz-elkarketa, edo hitz-taldea (= lokuzioa) izan daiteke.

Termino sintagmatikoek bi bide har ditzakete: hapax nahiz sintagma lexikalizatu bihurtzen dira.

HAPAX-a: denbora gutxi irauten duen terminoa. Sortu eta berehala desagertzen dena. Sarritan termino edo hitz multzoa da; «CST»eko momentoko erabilera batean elkartzen da, baina gero ez da finkatzen.

SINTAGMA TERMINOLOGIKO LEXIKALIZATUA: Kontrakoa da; berau osatzen duten hitz edo terminoen arteko lotura semantikoa oso sendoa eta egonkorra da. Sintagma finkoa da, zatiezina, erreferentzi bakarrekoa.

Lan terminologikoa honetan datza: sintagma terminologikoak, diskurtso-sintagmak biltzean, hapax-ak alde batera utzirik. Gerta liteke, sintagma bat bi horietako batean nahiz bestean egotea. Kasu

horretan, terminologoak testuinguruari begira bereiztu beharko du. Dena dela, badaude bi erizpide nagusi horrelako kasuetan aplikatzeko:

- a) Erizpide semantikoa: sintagma terminologiko lexikalizatuen kasuan, elementuek, soilik hartuta, ez dute berariazko balio semantikorik, eta sintagma horren baitan dagoen nozioa ezin liteke adierazi sintagmaren elementu bakar batzuren bitartez.

Ad: **eu** nazio-produktu gordin (NPG)
es producto nacional bruto (PNB)
fr produit national brut (PNB)
en gross national product (GNP)

Termino sintagmatiko horren elementuak banan-banan hartuta nahiz bat bakarrik kenduta, nozioa desagertu egingo litzateke.

- b) Dokumentazio-erizpidea: sintagma terminologiko lexikalizatuak, normalean, lan lexikografikoetan edo espezializatueta egoten dira erregistraturik (neonimoa ez bada, hau da, azken denboraldian sortutako terminoa). Izen handiko hiztegi espezializatu batean etortzeak, autore ezberdinek sintagma hori erabiltzeak, terminoaren lexikalizazio-maila altua dela adierazten dute. Zalantzarik izanez gero, aditu batengana jo daiteke beti.

1.1.2 *Sintagma terminologikoak bereizteko erizpide objetiboak*

Subjetibitatea ahalik eta gehien baztertzeke, zenbait **erizpide objetibo** hartu behar da kontuan sintagma terminologikoak aukeratzeko orduan:

1. *Konplexutasun-mugak*: sintagma luzeegia bada, segmentutan ebaki behar da.
2. Sintagma ez da *definizioarekin* nahastu behar. Adibidez terminotzat jo al daiteke: «ildoak eginez lurra lantzeko balio duen nekazaritzarako tresna»? Galdera horren erantzuna ez da erraza, ezta

berehalakoa ere. Ikus daitekeenez, *izendapena* baino gehiago *deskripzioa* da.

3. *Oinarri bakarra*: unitate konplexuak oinarri *sinple bakar* batean oinarriturik garatzen dira.

Ad: ordenagailu bidezko *itzulpen* (azken termino hau da oinarria)

4. *Erizpide fonetikoak*: entonazioa, abotsaren geldialdiak izan daitezke terminoen aukeraketa eta zedarriztapenaren determinatzaileak.

5. *Erizpide grafikoak*: gehienetan, honako elementu hauek erakusten digute, termino baten aurrean gaudela : marratxoek (-), koma-txoek (« »), eta italikoak; eta era honetako esaldietan agertzen diren terminoek: «X» edo «Y» objektua «Z» deituko duguna...

6. *Determinatzaile-kopurua*: terminologian unitate konplexuak oso ugari dira. Alemanierari buruz egindako inkesta batean erakusten zen, hizkuntza horren hiztegi teknikoaren %85a sintagma direla.

7. *Maiztasuna*: testuetan sintagma bat maiz azaltzeak terminoa dela adierazten du, batipat autore diferenteek aipatzen badute.

8. *Sistematikoko erlazioa*: espezializazio-eremu bakoitzean, hizkuntzak termino mikrosailak eskaintzen ditu elkarren aurkakoak zein osagarriak direlarik.

Ad: eztanda-motore, motore elektriko, Diesel motore, motore birakari (motore-mota guztiak)

9. *Sinonimoak*: Terminotzat jotako unitate baten ordeztu beste bat erabili ahal bada, bigarren unitate horri ere termino-balioa aitortu behar zaio. Sinonimo-nozioak, laburdurak eta siglak ere hartzen ditu.

Ad: Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ)

(Bi hauek sinonimoak dira)

10. *Lexikalizazio-maila*: Lexikalizazioa, sintagma bateko elementu ezberdinen arteko lotura-maila da. Elementu berririk gehitzerik ez badago, lexikalizazio-maila sendoa da.

Ad: hari eroale; Koloniako ur

11. *Determinatzaileen izaera*: sintagma terminologikoak oinarri batez (ik. azpiatal honetako 3. puntua) eta determinatzaile ezberdinez osatzen dira. Ikusi behar da, determinatzaile horiek zer-nolako erlazioa duten oinarriarekin, hau da, erlazio egonkorra eta funtsezkoa duten ala momentukoa.*

Ad: eu zirkulazio-sistemazko koipeztapen

es engrase por bomba y circulación de aceite

fr graissage sous pression à circulation continue

en flood lubrication

12. *Itzulpena*: unitate terminologiko bat bereizteko lagungarri izaten da, beste hizkuntzetako terminoekin parekatzea, itzulpena sinonimia-mota bat da eta.

Ad: eu muga-zerga bateratu

es arancel aduanero común

fr tarif douanier commun

en common customs tariff

13. *Esanahia*: Terminoa esanahi-unitatea da; eremu zehatz batean, nozio bakarra argi eta garbi adierazten du. (erreferentzi bakarrekoa). Zatiezina da.

Ad: gizarte-segurantza

14. *Esanahiaren kalkulua*: sintagma terminologikoaren esanahia ez da osagai dituen terminoen edo hitzen esanahiaren batuketarena.

15. *Neologismo-izaera*: errealitate berri baten izendapena, hasiera batean, deskriptiboa edo esplikatiboa izaten da. Azkenean erabilera termino laburragoak finkatzen ditu.

Ad: chemin de fer *métropolitain* - METRO

16. *Premiak*: erabiltzaileen premia funtzionalak erizpidetzat hartu behar dira terminoen aukeraketa eta zedarriztapena egiteko.

Ondorioak

Goiago aipatutako erizpideetatik, batzuk formalak dira, eta besteak semantikoak. Banan-banan harturik, erizpide horiek ez dira baliagarri termino sintagmatikoak bereizteko; bateratu egin behar dira, eta hala eta guztiz ere zedarriztapen-zalantzak agertuko dira.

1.2 Termino bakoitzari buruz jaso behar diren datuak

1. *Kategoria gramatikala* (izena, adjetiboa, aditza).
2. *Erabileremua*: oso zaila da hustuketa-garaian termino baten benetako erabileremua jakitea. Behin-betiko erabileremua, termino erabiltzen den azpi-eremu guztiak harrapatzen dituen eremu generikoa izango da. Oso garrantzitsua da lanaren hasieran egin den eremu-zuhaitza kontuan hartzea.
3. *Definizioa*: definizioak zehatza, argia eta laburra behar du izan, eta landutako terminoaren eduki nozionala adieraziko du.

Definizioa dokumentaziotik aterako da; definiziorik egokiena eta osotuena edukitzeko, definizio ezberdinak bilduko dira, lantzen ari diren mugen barruan. Askotan terminologoez, adituen laguntzaz eta bildu diren definizioetan oinarrituz, behin-betiko definizioa osatu beharko dute.

4. *Testuinguruak*: terminoaren erabilera, eta bere benetako esanahia argi eta garbi erakustea da testuinguruaren arazoia. Batzutan testuinguruaren definizioa izaten da.

Testuinguruak:

- zehatza baina osoa izan behar du,
- lantzen ari den termino edo unitate terminologikoa eduki behar du,
- iturri fidagarritik ateratakoa izan behar du.

5. *Irudiren bat*: definizio edo testuinguruaren osagarria, eta askotan beraiek baino adierazgarriagoa.
6. *Iturriak*: aurreko datuak ateratzeko, terminologoak erabili duen dokumentazioa. Iturririk gabe (idatzizkoa zein ahozkoa) ez dago informazio fidagarririk.
7. Sarrerako terminoarekin era batera edo bestera erlazonaturik dauden terminoak: *sinonimoak*, *quasi-sinonimoak*, *antonimoak*, *laburdurak*, *siglak*, *hiperonimoak* ...
8. Hustuketa-garaian interesgarritzat jotzen den informazio oro *oharrean* jasotzea komeni da.

II. Terminologi hustuketa-fitxa

Aipatu dugun bezala, atal honetan ikusiko dugun hustuketa-fitxa eredua, EUSKALTERM zerbitzuaren erabiltzaileei banatu zitzairen beren ekarpenak EUSKALTERMera egin ahal izateko. Hona hemen UZEI eta HAEEren helburua:

- a) Terminologiaren erabileraren jarraipena etengabe egin ahal izatea errebisioak eginez, adituekin batera aztertuz, terminoen arrakasta eta terminoekiko jarrerak ikusiz..., eta pixkanaka-pixkanaka terminoei ponderazio-marka jarritz, erizpideak finkatuz alegia.
- b) Eremu berezitueta euskal terminologia bateratzea eta ondorioz normalizatzea.

Horretarako, honako hau eskatzen genien EUSKALTERM zerbitzuaren erabiltzaileei: eguneroko ihardunean azaltzen zaizkien termino edo unitate berriak, inon agertzen ez direnak edo hiztegieta ez bezala erabiliak ikusten dituztenak, fitxan jasotzeko; hau da, horrelako egoeratan, bakoitzak bilatu behar duen irtenbidea, eta bere ikerketaren pausoak eta emaitzak fitxan batzeko eta guri bidaltzeko.

Bi kasu bereizten ditugu:

- a) Hustuketa elebakarra: euskaraz dagoen testu batean termino edo unitate ezezagunak azaltzen dira, edota ezaguna den termino batek kontzeptu edo nozio berria adierazten du, hots ohiz kanpoko adieran agertzen da.
- b) Hustuketa elebiduna edo eleaniztuna: itzuli beharreko testu batean dagoen termino baten baliokidea (xede-hizkuntzan) ez da inon aurkitzen eta itzultzaileak baliokidea aurkitu behar dio.

Bi kasu horietan hustuketa-fitxak betetzea eta guri bidaltzea da kontua. Bidalitako fitxak aztertu egingo dira, trataera terminologikoa aplikatu eta ondoren EUSKALTERMen sartuko dira guztion eskura egon daitezen.

Laburbilduz, proposamena ez da terminologi ikerkeka-lan sistematikoa egitea, ikerketa puntualak ez galtzea baizik.

Ikerketarako erabili diren iturriak, idatzizkoak zein ahozkoak (idatzizkoak hobetsiko) jasotzea ezinbestekoa da.

2.1 Hustuketa-fitxa

Fitxa-eredua

1	
1	2
sarrera: terminoa, esaldia, hitza	edukin-kodea
edukina: testuingurua (T), definizioa (D), baliokidea (B), ikusa (IK), oharra (O)	3
iturria	4

2.2 Edukinaren deskripzioa

1. Sarrera: terminoa, esaldia, hitza

Hustuketa-hizkuntzan jasoko da. Aukeran, sarreraren atzean ohar gramatikala (ikus ohar gramatikalak) eta erabileremuaren kodea (ikus sailen kode-taula) zehaz daitezke.

2. Fitxaren edukinaren kodea.

T	testuingurua	D	definizioa
B	baliokidea	IK	ikusa ¹
O	oharra ²	IT	iturria

Hustuketa egiterakoan, aurreko kodeen atzean hizkuntzaren laburdura jarriko da:

eu	euskara	es	espainiera
fr	frantsesa	en	ingeleza
de	alemaniera	it	italiera

3. Fitxaren edukina.

Jaso nahi den datua: testuingurua, definizioa,...

4. Toki hau betetzea nahitaezkoa da. Fitxan jaso den datuaren iturria jarriko da: egilea, izenburua, argitalpena eta argitalpen-urtea, eta orrialdea. Ahozko iturria bada osorik idatziko da.

-
1. Honako kasu hauek hartuko dira kontuan:
sinonimoak (sin.)
antonimoak (ant.)
hiperonimoak (termino generikoak) (hiperon.)
laburdurak
siglak
 2. Ikerketarako interesgarritzat jotzen den informazio oro jasoko da toki horretan. Hustutzaileak bere proposamenak egin nahi baldin baditu, hor du tokia, beti ere arrazoituak. Behar izanez gero, fitxaren atzealdea ere erabil daiteke, edo/eta hurrengo fitxa batean jarraitu.

ERASKINAK

1. eraskina: EUSKALTERM sailen kode-taula

- A: MATEMATIKA ETA ESTADISTIKA
- B: KIMIKA ETA FISIKA
- C: BIOLOGIA
- D: GEOLOGIA
- E: MEDIKUNTZA
- F: NEKAZARITZA, ARRANTZA
- G: INFORMATIKA
- H: GARRAIOA, POSTA, TELEKOMUNIKAZIOAK
- I: ERAIKUNTZA ETA HIRIGINTZA
- J: HISTORIA, MILITARRA
- K: INDUSTRIA
- L: IHARDUERA GREMIAL KOMERTZ.
- M: ADMINISTRAZIOA
- N: ZUZENBIDEA
- O: EKONOMIA ETA ENPRESA
- P: POLITIKA, SOZIOLOGIA, ANTROPOLOGIA
- Q: GEOMETRIA
- R: FILOSOFIA
- S: ERLIJIOA
- T: PSIKOLOGIA, PEDAGOGIA
- U: HIZKUNTZALARITZA, LITERATURA
- V: INFORMAZIO-ZIENTZIAK, DOKUMENTAZIOA
- W: ARTEAK
- X: KIROLA, JOKOAK, AISIA
- Y: IZENAK, TITULUAK
- Z: LABURTZAPENAK

2. eraskina: Ohar gramatikalak

iz.= izena

adj.= adjetiboa

ad.= aditza

3. eraskina: Adibideak

- 1.- Baliokidea espainieraz / Testuingurua espainieraz eta euskaraz.
2.- Testuingurua espainieraz.

1

administrazio mugaketa	B es T es eu
1	2
<p>OGASUN ETA FINANTZA SAILA ERABAKIA, 1992ko martxoaren 31koa, Ondare eta Kontratazio Zuzendariaarena, Zumarragatik Zumaiara doan bigarren mailako trenaren (Urolako tren) <i>administrazio mugaketa</i> onartzen duena. 3130</p> <p>DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS RESOLUCION de 31 de marzo de 1992, del Director de Patrimonio y Contratación, aprobatoria del <i>deslinde administrativo</i> del ferrocarril secundario de Zumárraga a Zumaia (ferrocarril del Urola) (exp. A/10/014). 3130</p>	
3	
EHA - 1992ko apirilak 21, asteartea	
4	

2

ordenador de pagos	T es
1	2
<p>«El Consejo ... determinará las normas y organizará el control de las responsabilidades de los <i>ordenadores de pagos</i> y contables.»</p>	
3	
<p>Tratados constitutivos de las Comunidades Europeas CEE, 1987 209 c</p>	
4	

5.- Definizioa frantsesez.

6.- Sinonimoa espainieraz / Baliokideak frantsesez eta ingelesez.

		5
ordonnateur n.m.	D fr	
1		2
<p>Autorité compétente pour ordonnancer une dépense engagée et liquidée. Adj. Commissaire ordonnateur.</p>		
		3
Petit Robert 1 1987		
		4

		6
UEP	IK sin. B fr en	
1		2
<p>Unión Europea de Pagos</p> <p>fr Union Européenne de Paiements (UEP)</p> <p>en European Payments Union (EPU)</p>		
		3
EURODICATUM		
		4

HUSTUKETA-FITXA

KONTZEPTU-ZENBAKIA:

FITXA-EGILEA:

EGUNA:

1	2
3	
4	

Itzulpengintza masterra: planifikazio baten beharra

Mikel Garmendia

Itzulpengintza Masterrari buruzko balantzea egiteko aguro samar izango bada ere —artean kurtso bukaerako lana aurkeztu berria baitugu— aldizkari honetarako zenbait lerro jartzeko eskaria jaso dut.

Besterentzako utziko ditut, batetik, masterrean emandako-*ez* emandako ordu kopuru, diru-kontu, asistentzia eta horrelakoak, bestelako ikusmolde batetik heldu nahi bainioke esku artean dugun gaiari. Bestetik, Unibertsitatearen, HAEE-IVAP eta EIZIE-ren arteko tirabira eta antolamendu etab.-i buruzkoetan ere ez naiz sartuko, urrun antxean gelditzen baitzaizkigu ikasle sufrituoi «palaziyoko» kontu horiek.

Dakigunez, edozein balantze egiterakoan, botila erdi hutsik ala erdi beterik ikus daiteke. Nik, kostako bazait ere, erdi beterik ikuste aldera egingo dut. Baina hasieratik esanda uztea komeni da: botila erdi beterik ez baina osotara beterik eskaintzea da xedea. Has gaitzen, horretarako, masterra egiten eman ditugun bi urteotan somatutako gabeziak aipatzen, horiei behar bezalako erantzuna eman ez baitatorke aurrerabidea.

Bi sailetan bana ditzakegu bi urteotan landu (jaso?) ditugun ikasgaiak. Parentesi artean diot **jaso** zeren horretantxe baitatza ikasgaiak

bi sailetan banatzearen zergatia: landu ditugunak eta jaso edo, besterik gabe, entzun ditugunak.

Lehenengo sailean sartuko genituzke estuago itzulpengintzari lotu zaizkionak: literatur itzulpena, itzulpenaren historia, alderantzizko itzulpena, itzulpen teknikak, praktika eta testu idatziaren analisia, itzulpen juridikoa, administrazio hizkuntza... Esan behar, sail hone-tako ikasgaiei dagokienez, euskal itzulpengintzako punta-puntako irakasleak izan ditugula eta nekez aurki zitekeela, alde horretatik, jaso duguna baino eskaintza hoberik. Era berean esan behar, ordea, sail honetako ikasgaien arteko mugak ez direla beti argi gelditu eta behin baino gehiagotan elkar nahastekatu eta errepikatu direla hainbat jakintza gai. Koordinazio kontua denez ez dirudi horrelakoak konpon-tzeak aparteko zailtasunik sortu behar lukeenik.

Masterreko hiru espezialitateek (ingeleza, frantsesa eta euskara) amankomunean izan ditugun ikasgaiak osatuko lukete bigarren sai-la: Ekonomiarako sarrera, Zuzenbidea, Informatika, Nazioarteko Zuzenbidea... Ikasgai horiek, arestian aipatu dudanez, gehiago izan ditugu entzutekoak lantzekoak baino. Bestela esanda, klase horiek hitzaldi gisakoak izan ditugu eta ez da erraza izan, halakoetara entzu-le gisa gindoazenontzat, entzundakoen eta itzulpengintzaren arteko loturari antzematea, nahiz eta badakigun itzulpena zernahirekin erla-zionatzen erraz dela.

Bi sail horien arteko mugan kokatuko nituzke, bestalde, bigarren kurtsorearen bukaera partean jaso genituen terminologia, dokumenta-zioa eta arlo bereko beste zenbait ikasgaiz osatutako «poutpourri» hura. Klase horien inguruan despistea nagusitu zelakoan nago eta lehenik eta behin itzulpengintzari estu-estu lotutako gai behar luke-tenak bigarren saileko ikasgai amankomunen pareko bilakatu zirela esango nuke. Nahiz eta, hori bai, nola bibliotekarien hala dokumen-talisten, nola terminologoen hala artxiberoen amankomuneko ezau-garri izan den informatikarekiko mirak erdi marabillaturik eduki gin-tuen. Lortu baitzuten, lortu ere, gu aho zabalik eta txunditurik uztea, baina badakigu horrelako emozioaldiek ez dutela luzaroan irauten baldin eta praktikara eramaten ez badira behintzat.

Gutziz bestela gertatu zen, nik uste —eta horrelakoxe iritzia da nagusi ikasleen artean—, hasieran ikasketa-programaren barruan ez bazegoen ere azken orduan programaratu eta gauzatutako interpretaritzatik ikastaroarekin. Ordu asko izan ez ziren arren, gogotik ekin genion lanari eta argi eta garbi gelditu zela esango nuke itzulpengintza-ikasketetan ikasgai bat nola irakatsi eta landu behar den.

«C» hizkuntzari dagokionez, norik bere iritzia izango du, batzuk ingelesa eta beste batzuk, berriz, frantsesa izan baikenuen halakotzat. Frantsesari banagokio, ikasgai hori jaso ez ezik landu ere landu egin genuela esango nuke, nahiz eta, akats gisa, klasetik klasera izandako denbora-tarte luzeegiak aipatuko nituzkeen. Bistan da planifikazio on batek konpontzen dituela horrelakoak.

Botila erdi beterik ikusten saiatuko ginela esan dugu hasieran eta aurreko datuek horretarako bide ematen dute, hobetu beharrekoak hobetuz gero, noski. Bada, ordea, aurreko datu, edo neronen inpresio huts ere izan daitezkeen horietaz kanpo, gaiari bere osotasunean helduz gero, kezkatzeko moduko arrazoirik. Hona duela hiru urte, masterraren sorrera atarian hortaz, J. Zabaletak aldizkari honetan berean plazaratutako jarrera:

«Optimismoa libre da, eta obligazioa batzutan baikor izatea; esperantzari leku eman behar zaio, bada, honetan, unibertsitateaz kanpo nekez ikusten bait da, dagoeneko emanik diren pausuak emanda, itzultzaile ikasketentzako lekurik. Barrutik eta kanpotik eskatu eta estutu beharra izango da, ikasketa horien inguruan eratzen den ikerketa eta irakaskuntz antolamenduak euskal itzulpenak eta euskal itzultzaileek dituzten premiei erantzun diezaien».¹

Ez zebilen oker aurreko hitz horiek idatzi zituena, gaur egun itzulpen ikasketak ia erabat Unibertsitatearen ildotik baitoaz, horixe baita seguruenik itzulpen ikasketen lekua. Ikerketa ere aipatzen da aurreko hitzetan eta, jakina, munduko optimismorik handienak ere ez gaitu

1. Zabaleta, Josu, in SENEZ, 74. orria, 1-2 zenbakiak, 1989.

libratuko alor horrek zegoen-zegoenean jarraitzen duela esatetik. Halaxe baita, izan ere, eta halaxe jarraituko baitu itzulpen ikasketen birplanteamendu sakonik egiten ez den artean. Bi urtekoa aski tarte zabala da ikerketa-lan serio samarren bat egiteko, eta nik behinik-behin ez dut aparteko eragozpenik ikusten masterraren hasieratik beretik —edo bigarren kursoarenetik, berdin dio— segida luze samarreko eta gerorako probetxugarri izan daitezkeen ikerketa-lanak burutu ahal izateko. Horrek, aurrean aipatutako beste akatsak konpontzeko bezalaxe, gauza bat besterik ez du eskatzen: planifikazioa.

Deustuko Postgraduko Itzulpen Masterra

Roberto Pérez

Joseba Abaitua

Xabier Kaltzakorta

Deustuko Postgraduko Itzulpen Masterraren sorrera Euskal Herrian lizentziatuentzat antzeko ikastarorik ez zegoen garai batean gauzatu zen. Garaitsu hartan, kontraesan nabaria badirudi ere, inguru administratibo guztietan elebitasun ofiziala ezarri zenez geroztik lan irtenbiderik seguruenetariko bat, euskal filologian lizentziatuentzat behinik behin, itzulpenarena zen, hain zuzen. Masterraren antolakuntzarako kontutan izan ziren asmo bultzagarrietariko bat lan eskabide hau izan zen. Bazen bestalde, aipaturiko arrazoi honezaz landa, besterik ere: Masterrak letretako ikasleen espezialitate baten beharizari eta Unibertsitatearen beraren gabeziei erantzun bat eman nahi izan zien.

1988an, Roberto Pérez-ek, aldi hartan Filosofia eta Letretako Fakultateko Hispánicas saileko dekanoordea, Fernando García de Cortazarrek eta Fakultateko beste irakasle batzuek lagun harturik, Masterra sortzeko asmo eragilea hartu eta Bittor Uraga irakaslea izendatu izan zen kontseilu eta laguntza teknikoko lanetarako. 1988-89 urte akademikoan gerora unibertsitateko sailei proposatu zitzairen egitaraua egin zen, hau da, Fakultateko Junta, Kontseilu Akademiko eta Zuzendaritza Kontseiluari. 1989ko apirilean azken baimena lortu ondoren azalpen foileto batzu egin ziren eta iragarpen kanpaina bat

egunkarian. Apur bat geroago matrikula epeak zabalduko ziren kurtsoari 1990an hasiera emateko.

Masterrak hasiera-hasieratik eduki nahi izan duen ikuspuntu metodologikoa beti izan da alderdi praktikoak lehentasuna izatea alderdi teorikoaren ikusian. Profesional onak sortu nahi izan dira, egunero sortuko zaizkien egoera errealei trebetasun eta bizkortasunez aurre eginik gailenduko direnak, hain zuzen. Asmo eta beharrian honi erantzun nahirik, irakasleria profesional hauek osatzen dute: Gotzon Lobera eta Joseba Urzelai Bizkaiko Aldundiko itzultzaileak dira, J.A. Sarasola K-2000 bikoizketa entpresako itzultzailea, eta Xabier Kaltzakorta eta Xabier Mendiguren *free lance* itzultzaile ospetsuak. Mari Zubirik teknologia berrietan trebatzen laguntzen die ikasleei.

IVAP-ek eraturako itzulpen ikastaroek argi utzi zuten kurtsoak lizentziatuentzat izan behar zutela, eta halaxe egin zen. Lehen promozioa, 35 pertsonaz osaturako talde trinkoa, 1990eko urtarrilean hasi zen. Kurtsoa, lehenago esan dugun bezala, praktiketan oinarriturik dago. Honek esan nahi du eskola orduetan irakasle-ikasleen ardurara egindako itzulpena orraztean eta azaltzean datzala. Praktika ordu hauen osagarria estilistikaren gaineko azalpenez, traduktologiaz eta maila teorikoko beste zenbait gaiz orniturik dago. Hirugarren hiru hilekoan praktikak egiten dira, administrazioan edo Unibertsitateak hitzarmenak sinaturako entepresetan. Praktika hauetara doazen ikasleak beren egokitasun edo prestakuntzaren arauera joan ohi dira.

1992ko urtarrilean Masterreko beste promozio bat hasi da. Itzulpen ikastaroek beste alor berri bat ere jorratzen dute: ingeles-gaztelania.

Irakasle berriak sartu dira Larry Muies, Eamon Roche eta José Castro Calvin, guzti hauek ingelesaren teknika eta merkatal alorrean adituak dira. Masterraren zuzendaritzaren arduradun Joseba Abaitua egin da Manchester-eko Unibertsitateko *Centre for Computational Linguistics*-en eta Fujitsu entepresan itzulpen automatikoan egindako egotaldiaren ondoren. Masterraren birrantolakuntzan garai berri bat hasiko da. Indartu egingo da, Gasteizen eta Santanderren ez

bezala, tutorearekiko itzulpengintza, baina urte honezaz aurrera berrikuntza batzu sortzen eta sartzen dira. Berrikuntzak sei zatitan oinarritzen dira kurtso berriei begira.

Sarrera ikastaroak

Sarrera ikastaroak ikasleei lehenbiziko urtean ematen zaizkie eta oinarritzko tekniken indartzea edo sendotzea dute helburutzat. Bi ikastaro ematen dira:

- idazketa teknikak,
- testu prozesatzeko teknikak (Word Perfect).

Tutorearekiko itzulpena

Tutorearekiko itzulpena, hots, tutorearekin edo tutorearen ardurapean egindakoa, Masterraren oinarria da eta kurtsoak irauten duen bi urteetan zehar egin ohi da. Ikaslearen behin eta berriroko itzulpen lanean oinarritutako eskolatze edo leziaztea da, inolaz ere. Ikasleak uneoro eta bateko eta besteko kontseilu eta azalpenak hartu ohi ditu irakaslearengandik. Bateriko eta besteriko itzulpen lanak daude: teknika-merkatal itzulpenak, juridiko administratiboak, kazetari eta zientzia hizkerakoak, hitzez hitzeko eta alderantzizko itzulpena.

Kanpo praktikak

Unibertsitateak Masterreko ikasleak kanpo praktikak egiteko hitzarmen batzu sinaturik ditu instituzio eta enpresekin. Eginkizun honetarako udazkeneko lehen hiruhilekoa izaten da. Aurrerago esan bezala, ikasleen egokitasun eta prestakuntzaren arauera egin ohi dira praktikak. Praktikon xedea ikasleen esperientzia (eskarmentua ere esango genuke) eta itzulpen mundu profesionalera halako hurbiltze bat izan nahi luke.

Hiru urte hauetan Bizkaiko Aldundi, argitaletxe eta udaletxeekin egindako hitzarmen egokiak direla eta, ez da izan euskarako ikasle-

entzat lekua aurkitzeko problemarik. Badira zailtasunak, halaz guztiz, ingeles itzulpen praktikak egiteko agentzia zein entepresetan.

Gure asmo honen kontrakoa gertatu da bizi dugun krisialdia eta argi baino argiago ikusi dugu bikoizketa etxeetan zein lantegi handietan.

Kanpo praktikak egiten ez dituzten ikasleek lanaldi horretan tutorearekiko itzulpenak egiten dituzte.

Klase teorikoak

Klase teorikoak tutorearekiko itzulpenen osagarri dira. Ikasleari itzultzaile zaildu eta trebatu batek izan behar dituen metodologia eta lan ikuskera sakona eman nahi zaizkio. Lanerako teknika eta tresneria egokia eskeini nahi zaizkio. Ikaskizun diren gaiak hiru dira batez ere: traduktologia, estilistika, eta informatika bidea.

Ikastaro monografikoak

Ikastaro monografikoak kurtsoaren aldi jakin batzuetan era trinko batez ematen dira. Gonbidaturiko espezialista bakoitza bere ikastaroaren kargudun edo arduraduna izaten da. Ikastaro bakoitzak ateleihoak ireki nahi ditu nolabait esatearren, informazio helburua handiagoa du leziate edo eskolatzearena baino, zeren ez bait dago nahikoa denborarik gaian bete-betean eta sakonki sartzeko. Ikastaro monografiko hauetan gai hauek lantzen dira: dokumentazioa, terminologia, bikoizketa, interpretaritzea, itzulpen automatikoa, hiztegi elektronikoa, banku terminologiak eta abar.

Mintegiak

Aurtendik hasita Masterrak hitzaldi ziklo bat eta era bateko eta besteko gaien gaineko elkarrizketak eratuko ditu alor desberdinetako profesionalak gonbidatuaz. Itzulpenaren gaineko ikuskera zabal bat eskeini nahi da. Urratu nahi den bideak era askotako esperientzia eta

eritzia dutenen profesionalek emango duten informazioa izango du ikasleak. Mintegiak zabalik daude itzulpenean arduraturik dauden guzti guztientzat.

Bukatzeko, aipatu behar da, bi urte hauen buruan, ikasleak Master amaierako proiektu bat aurkeztu beharko du. Delako proiektu hau osotasun bat daukan idazlan baten itzulpenean datza. Idazlanak ehun orrialdeko luzera du eta ikaslearen ahalmenaren arauerakoa izan behar du. Itzulpen lan horretan ikasleak duen trebezia erakutsi beharko du.

Euskara ikasten

Iñaki Zubizarreta

1992ko martxoaren 25ean hasita, hilero, solasaldi jakingarriak izaten ditugu komunikabideetako sailekoek Ibon Sarasolarekin EIZIEren bulegoan. Berarekin ikasitakoen eta solasaldi hauetan sortutako zalantza eta premien laburpentxo bat eskaini nahi nizueke lerro hauen bidez.

Has gaitezen premiak aipatzen. Hiru azpimarratu nahi nituzke batez ere: Euskal Gramatika, Orotariko Euskal Hiztegia eta Euskal Hitzen Hiztegia. Azken biek gerora Euskaltzaindiaren Hiztegia osatuko lukete beste hizkuntzetan bezala. Badakigu hirurak lortzeko oraindik ere bide luzea ibili beharra dagoela, baina ez al legoke zerbait aurreraterik, behin-behineko lantxo batzuk argitaratuz, batez ere Euskal Gramatikarenak eta Euskal Hitzenak, besteari dagokionez Hautalenerakoa oso baliagarri zaigun bezala?

Eguneroko zalantzan ibili beharrak asko nekatzen du. Euskal hitzak al dira honako hauek: *exekutatu*, *zirujau*, *distraitu*, *extra*, *aktore*, *ekipo*, *herbizida*, *aprobetxatu*, *tortura*, *errezibua*, *tentsioa*, *misioa*, *definizioa*, *derrota*, *intseminazio artifiziuala*, *mobilizatu*, *inbaditu*, *okupatu*, *postrea*, *entxufe*a, etab. luze bat?

Nik uste hiru premia hauek betetzen ez diren artean, damurik, zalantza ugarian ibili beharko dugula, eta bitarte horretan komunikabideetakoek saiatu beharko dute berriz ere euskara ikasten informazio iturrietara joaz, gramatikagintzan eta hiztegegintzan ari direnengana, alegia. Asmo honekintxe egiten ditugu solasaldi hauek, ikasteko asmoz. Hona hemen ikasitako zenbait puntu.

Azkenaldian gehiegi begiratu diogu gaztelania hutsari, nazioarte-koari begiratu ordez, eta besterik ez bada, ez dugu askotan gutxiene-koa betetzen, frantsesari eta gaztelaniari begiratzea, alegia, ea antze-koak diren hitzak bietan, Euskal Herria ipar eta hego baita. Horra hor beste zalantza iturria ere! Nola esan gaztelaniaz soilik erabiltzen di- ren hitzak: *guión, traje, listín, almohadilla, rotulador, cita, equipaje*, etab.? Baina bietan esaten bada eta euskal ordain jatorra ez badugu aurkitzen, orduan badirudi har daitekeela.

Euskal ordain jatorra daukagunean, ez dago erdal hitzetara jo beharrik. Adibidez, *molestatu: eragotzi; paisaia: ikuspegi; isolatu: bakartu; diseinu: marrazki; dibertigarri: jostagarri; dibertitu: jos- tatu; cohete: suziri; leienda: elezahar*, etab. Horrekin batera gogora- tu behar da ez garela gu hasi euskaraz hitz egiten eta aurretik erabi- litako hitzei eutsi behar diegula, beti asmatzen ibili gabe. Honela, ez zegoen *urpekuntzi*-aren bila ibili beharrik, Kirikiñoren *itsaspeko*-are- kin gogoratuz gero.

Hitzekin batera, euskal esaera jatorrez adierazi behar ditugu noski beste hizkuntzetako esaerak, eta horien artean esaera sarri erabiliak, nahiz batzuetan ez hain erraz gertatu aurkitzen. Adibidez, *I miss you* edo *te echo de menos*. Bide hauetatik jo beharko genuke: *zure falta sentitu/nabaritu/somatu*. Edo *faltan bilatzen/aurkitzen zaitut*. Edo baiezkoan: *gogoan zaitut*. Edo *zure mina/mira izan*, agian? Hemen aipa genezake hegoaldean hain sartua dagoen *segun*-ena ere: *segun zeinekin, segun eta zer egiten duen...* Iparraldean ez dago *segun*-ik, eta badirudi hegoaldean ere ez dugula behar handirik. *Segun zeine- kin: zeinekin den; segun eta zer egiten duen: zer egiten duen/egiten duenaren arabera*.

Solasaldi hauetan argitasun ugari ere jaso dugu eta mordoꝥka bat bilduko dut hona, baliagarri izango direlakoan. Hitzaldiren batean entzuna genuen *ezer erosten ez badugu, erretzen ez baduzu* esan behar zela beti, baina zorionez *ez badugu ezer erosten, ez baduzu erretzen* esaten edo idazten dutenek lasai jarrai diezaiokete bere ohiturari.

Bukaerako «n»aren zalantza ere argi xamar geratzen da: *zain = ain; arrazoi, pozoï = oi*. Eta ondorengo hauek beste honetara behar lukete; *guzti hau: hau guztia, hau dena; guzti hori, hori guztia, hori dena; guzti horrekin: horrekin guztiarekin; guzti horretaz: horretaz guztiaz*.

Badira, bestalde, gutxi izan arren, Hautalanerakoan aldatu beharrekoak ere, eta behin betiko argitalpenean aldatuko direnak: *dotore: doktore, gustu/gustura: gusto/gustora*.

Eta honako hitz hauetan ere bigarrena hartu beharko genuke: *Ministrari: ministro; Ministeritza: ministerio; Monastegi: monasterio; Laborategi: laboratorio*.

Solasaldi hauek beste abantailatxo bat ere ekartzen digute, Euskaltzaindiaren azken eztabaidez eta erabakiak nondik joango diren jakiteratzea. Adibidez, «-z gero»rena. *Ekarriz gero, sortuz gero*; baina *hamabiak ezkerro, harrezkerro, honezkerro*.

Bada bestalde, gure herrian ohitura, behin ez dakit zeinek esan duela eta, denak atzetik joatekoa. Adibidez, *Pedro eta biok* esatea eta idaztea ondo dago baina ez da gehiegitu behar, *Pedro eta nik* baztertzeraino. Hizketa mailaren arabera dator bata edo bestea aukeratzea. Eta bada azkenaldiko beste ohitura: «-keta» eta «-aia» bukaerak gehiegi sartzea, betiko «-tze»ren orde: *kamuflatze, ispilatze, etab. Lerro* ere gehiegi sartzan dugu gaztelaniazko *linearen* ordain gisa. Nazioarteko hizkuntza gehiagori begiratu beharra dago euskarazko ordain egokia bilatzeko.

Beste alde bat ere kontuan hartu beharra daukagu. Txokokeria gehiegi sartzeak nahasmasa handia sor lezake. Badira noski esanahi

aberatseko hitzak eta esaerak eskualde eta herrietan, baina ahal dela, batez ere komunikabideetan, ezin da alde horretatik gehiegikerian erori.

Solasaldi hauen haritik asko luza gintezke argitasunetan, baina lantxo honetarako nahikoa delakoan, azkeneko bat azalduko dugu hemen, «-tzu»ri dagokiona. Badirudi ez dugula hain beharrezko, eta nahikoa dugula horrela: *zer liburu ekarri dituzu? Zein etorri dira? Nor dira horiek niri agintzeko?*

Orain dela urte batzuk gertatutako istoriotxo bat gogoratuz bukatu nahi nuke lantxo hau, mezu jakingarria duelakoan guztiontzat.

Iruñean Euskaltzaindiak gramatikari buruzko biltzarra antolatu zuen eta han geunden hitzaldi batean, eskolako gela luze batean, binaka ikasmahaietan. Aurreko mahaian neukan Koldo Mitxelena, ezkertera. Eta han ari ziren hitzaldi ondoko elkarrizketan bat eta beste: «Bai, Mitxelenak esan zuen bezala», «bai, Mitxelenak idatzi zue-nez», etab. Halako batean han altxatzen da Koldo, mahai gainean kolpe ederra joaz, oihi bizian: «zer Mitxelena eta zer arraio? Hori guztia hizkuntzan dago; euskara aditu eta ikasi egin behar da!».

Literatur itzulpenezko mintegia

Aintzane Ibarzabal

Martuteneko itzultzaile eskolako zenbait ikasleren eskariz, EIZIE-ko Literatura Batzordeak 1992ko urtarrilean hasita eta ekainera bitartean literatur itzulpenezko mintegia antolatu zuen. Helburu xumeak ezarri zituen batzorde honek, eta batez ere aurrera begira egin zitezkeen antzeko ihardunaldiak izan zituen kontutan ikastaldia antolatzean. Elkarteko zenbait itzultzailek parte hartu zuten bertan eskolak ematen: Xabier Mendiguren (García Yebraren testu teorikoa erabili zuen ikastaroari sarrera emateko, litertur itzulpenaren ezaugarriak aztertu, eta testuaren itzulpena egiteko), Koro Navarro (Mark Twain-en *The diary of Adan and Eve* ipuinaren itzulpena ingelesetik), Aintzane Ibarzabal (Ridder Haggard-en *Salomon King's mines* liburuaren itzulpena ingelesetik), Josu Zabaleta (Ch. Aitámov-en *Yamila* liburuaren itzulpena gaztelaniatik), Juan Mari Mendizabal (Raymon Carver-en *Chef's House* lanaren itzulpena ingelesetik), Juan Garzia (Herman Melville-ren *Bartleby izkribatzailea* liburuaren itzulpena ingelesetik) eta Pello Zabaleta (poesiaren itzulpenaren gaia aukeratu zuen).

Eskolak oso praktikoak izan ziren eta azpimarratzekoa da ikasleen ahalegina, beste baterako geratzen da beraz, ondorio teorikoak atera eta horiek sailkatzea. Itzulpen gehienetan ingeleza izan zen ja-

torrizko hizkuntza nahiz eta garai, estilo, joera oso desberdinetako testuak izan. Eta izan ere, hori izan zen ikastaldi amaieran aipatu zen ezaugarrietako bat, testuen ugaritasuna. Ugaritasun horrek hala ere, beste ondorio on bat ere ekarri zuen, itzulpenaren zailtasun mota desberdinak ikusteko bidea ematea. Testu soilak eta baita ere korapilotsuak itzuli ziren, biak arazotsuak eta berezko zailtasunak zituztenak. Lehenengoak arinak, umoretsuak, argiak, zuzenak izateko, eta bigarrenak ulerterrazak eta zehatzak izateko; eta sintaxi soilaz baino gehiago estiloaz ari gara, alegia, jatorrizko hizkuntzak sintaxi orokor eta arruntetik noiz igarotzen den idazlearen estilo pertsonala edo joera estilistiko jakin batetara, eta euskaraz ere bi alderdi horiek ongi bereiztea. Gai zehatzak aipatzekotan ingelesaren zenbait ezaugarri eztabaidatu ziren: jeneroaren bereizketa (*he, she, it*), euskaraz aldiz *bera, hura...*, izenordainen erabilera sintaxiari lotura egokiak eskainiz, erlatiboak forma ugariak (*who, which, where, whom...*) gaztelaniaz bezala, eta horien bidez eskuin aldera garatzen den sintaxia izatea, testuaren ulermen errezagoa bideratuz. Eta horrelako esaldien aurrean euskarak noiz erabili behar dituen hizkuntza erromanikoaren bidezko egiturak, nola adierazi behar dituen testu barruko loturak informazioerik ez galtzeko...

What my own astonished eyes saw of Bartleby, that is all I know of him, except, indeed, one vague report, which will appear in the sequel.

Lo que mis propios ojos atónitos vieron de Bartleby, eso es todo lo que se de él en realidad, excepto un vago informe, que aparecerá en lo que sigue.

Neronen begi txundituek ikusi **zutena**: horra Bartlebyz **dakidan** guztia, **salbu eta** bestela jasotako berri argitasun gutxiko **bat**, orrion jarraian agertuko **dena**.

(Melville-ren *Bartleby izkribatzailea*).

Bestalde, ikusi ahal izan zen baita ere, itzulpenaren zailtasunak beste era batekoak direla esaldi motzetako sintaxia erabiltzen denean, hauetan hitzen ordenamenduak garrantzi handia hartzen du eta baita ere hiztegiak, hitz zehatz bat edo bestea aukeratzeak testuari aldaketa

nabarmenak eragiten bait dizkio. Ezin ahaztu, ondorengo adibidean ikusiko den bezala, euskal aditzaren elementu morfologikoez sintaxiaren loturak adierazteko duen ahalmena.

*Es un cuadro **que** no he presentado nunca a ninguna exposición. Más aún, **procuro** ocultarlo cuando viene a visitarme algún familiar del ail. No es **que** haya nada vergonzoso en él, pero **está** lejos de ser una obra de arte. Es sencillo, tan sencillo como la tierra **que** representa.*

Kuadro hau ez dut inoiz inongo erakusketetara eramán. Are gehiago, gorde egiten dut **ahal dela** ail-eko sendikoren bat bisitan **badatorkit**. Zertaz **lotsaturik ez du**, baina arte lana izateko asko **falta du**. Xumea da, bertan **ageri duen** lurra bezain xumea.

(Ch. Aitámov, *Yamila*).

Beti mirariak egiten

Koldo Biguri

1993. urtean euskararen batasunaren hogeitabosgarren urteurrena ospatuko dugu, eta zalantzarik gabe gure hizkuntzak mende laurden miragarri honetan ibili duen bidea eta etorkizunean zain duena aztertuko dira luze eta zabal. Ez dakit, ordea, itzulpenak zer nolako lekua izango duen ospakizun horren barruan egingo diren azterketetan, beharbada ez merezi eta behar duena, gure hizkuntzaren eta hizkuntz politikaren lemazainek orain arte eskaini dioten arreta norainokoa den ikusirik.

Alferrik esaten bait da behin eta berriro euskararen hizkuntz normalakuntzaren ardatz bihurtzen ari dela itzulpengintza, gaur euskaraz plazaratzen diren testu —ahozko zein idatzizko— asko zuzenean itzulpen hutsak direlako (eta hor sartzen da gure erakunde politiko eta akademikoen beraien euskarazko produkzio gehiena), edota, euskara gizarteko edozein alorretan erabiltzen dugunoi iristen zaizkigun informazio eta formazio iturri gehienak euskara ez beste hizkuntza baten bitartez jasotakoak izanik, ezkutukoa deituko dugun itzulpena egiten dugulako baita euskaraz baliatzen garenean ere. Alferrik esaten da, diot, oraindik ere gure artean ez delako gertatu itzulpen fenomenoari buruzko eztabaida sozial edo intelektual orokor eta sakonik, hizkuntzaren bazter batean bakarrik geratzen eta garatzen den ekintza bai-

litzan, edo, are okerrago, gure erakunde horietako askoren euskaltasunaren aitortugabeko egile eta berme (edo bahitura) diren itzultzaileen arazo hutsa.

Aldizkari honetxetan Andu Lertxundik dioen bezala, egia da euskararako literatur itzulpena nagusi dela gure liburugintzaren merkatuan, eta, esperientziari esker eta literatur itzultzaileen prestakuntza (autoprestakuntza, egia esan) gero eta hobeia izanik, oraindik euskal literatur munduan aitortzen ez zaion garrantzia edukitzen hasia dela, baita literatur euskararen beraren garapenerako eta aberastasunerako ere.

Gauzak horrela, irain-zerrenda edo kexu-kaxa irekitzen hasi gabe, uste dut badela ordua zenbaitentzat argi ez dauden gauza nabarmen batzuk argi uzteko.

Nabarmena da, izan ere, duela hogeitabost, hogeiei, hamabost urte euskaraz irakurtzen zutenak, besteak beste, eta gaur egungo euskal irakurleak nahiko desberdinak direla, bai kopuruz, bai ezaugarri ere, eta horrek begibistako eraginak dituela hizkuntzaren inguruko guttitan. Datu bat da, adibide bat ipintzearen, garai haietan Euskaltzaindiaren B edo D titulua eskuratzeko azterketetara aurkeztzen zirenen tipologiak ozta-ozta duela zerikusirik gaur egun EGArako probak egiten dituztenekin, eta hori zentzu batean: lehenago askoz euskaldun eredu homogeenagoa aurkitzen zen gaur baino; euskararen irakaskuntza sustraitu eta sendotu den neurrian, euskaldun kontzeptua alde askotarantz zabaldu da. Lehenago, B edo D titulua eskuratu nahi zutenetako asko euskaldun zaharrak eta irakasleak ziren eta, generalizazioaren arriskuak onartuz, «euskaldungoaren elitea» osatzen zuten edo osatu dute, neurri batean. Azterketa horiek egiten zituzten gehienek gainditzen zituzten probak, eta hizkuntz maila handia zuten, hainbestearino ere non gaur egungo euskal munduaren goreneko lekuak betetzen bait zituzte, kasu askotan. Aldiz, azken urteotan euskalduntasuna ere demokratizatu egin da, eta horren froga dugu, berriz diot, EGA azterketetara gehienbat ikasle gazteak eta euskaldun berriak aurkeztea, gainditze-mailak oso altuak ez izatea, eta, oro har, euskara maila bera ere, aurrekoen aldean, jaitsia izatea.

Gogoeta guzti honen bitartez honako ondorio honetara iritsi nahi dut: alegia, bai euskara produkzioak, bai produkzio hori jasotzen duen euskaldungoak ere dexenteko aldaketa jasan dutela azken bi hamarkada hauetan; eta guztiz kontutan hartu beharreko eta hartu gabeko aztergaia dela iruditzen zait.

Izan ere, hasteko, aurreko garaietan euskal idazle edo itzultzaileek beren irakurlearen irudi nahiko zehatza eduki zezaketen (euskaldun zaharra, ikasia, euskaltzalea, euskara lantzen ohitua, etab.), eta horren araberrako hizkuntz joerak agertzen zituzten. Garai haietako euskal irakurlegoa nolabaiteko zirkulu itxi bat zen, txikia gainera, euskara nahiko ondo jakiteaz aparte, haien euskara etengabe lantzeko zaletasuna edo beharra zuten pertsonak osatzen zutelako. Horregatik ez da harritzekoa euskarazko literatur produkzioa, batetik minoritarioa izatea (garai batean olerkia zen gehien lantzen zena, adibidez, askotan halako ikutu esperimentuzale batez, gainera), eta bestetik kutsu didaktiko handi samarra izatea. Alegia, ez zen irakurtzeko bakarrik irakurtzen, euskara ikasteko edo ikasten jarraitzeko ere irakurtzen zen; eta idazleek ere, halako isuri mesianiko batek ikutuak, euskara irakasteko eta, azken finean, «salbatzeko» ere idazten zuten. Horrela, euskaraz idatzitakoak garbia eta jatorra izan behar zuen, baina ez bakarrik euskararen eredu kultuak hala eskatzen zuelako, aspaldiko tradizioari jarraituz gainera, baizik eta, baita ere, irakurlearen, eta beraz euskararen hizkuntz maila hobetu eta aberas-teko bide bat zelako hori; eta helburu horri begira, zalantzarik gabe, oso lagungarria zen irakurleak berak ere horretarako joera edukitzea.

Pelloren egia izango da, beharbada, baina uste dut egia dela gure aurreko euskararen eta euskal munduaren hainbat fenomenek aurreko lerroaldietan agertu dudan arazoari erantzuten diotela; haren bidez bakarrik azal daiteke, esaterako, garai bateko euskal testuetan izurria bezain ugariak ziren «X edo Y» erako bikoteak, bere bi bertsioetan: «*objezio edo eragozpena*» eta «*ahozkotasuna edo oralitatea*». Euskararako hitz berriak, edo ez oso ezagunak, berreskuratu, eta gainera irakurleari irakatsi behar zitzaizkion, kontutan hartuz, bestalde, askotan hiztegiaren laguntzarik ez zegoela hitz edo esamolde bitxi horien esanahiaz jabetzeko.

Arrazoi berberak balio lezake (nahiz eta aspaldi samarreko heredentzia garbizalearen pisu astuna ere hor egon) hiztegegintzaren hainbat ezaugarri azaltzeko: hiztegiak ia beti euskara-erdarakoak ziren, eta, tamalez, dira, eta euskal hitz garbiak baino ezin zituzten eduki, eta ez bakarrik gainerakoak, erabiliak izan arren, euskararenak ez zirelako, baizik eta idazleek zein irakurleek jakin zezaten hitz horiek ez zirela erabili behar, bazeudela beste hitz batzuk, edo asma zitezkeela eta asmatu behar zirela, eta, ondorioz, euskaldunek ikasi behar zituztela. Edo bestela, Placido Mujikaren hiztegiarekin gertatzen den bezala, euskal hitz jatorrekin batera, gure lexikogintzarako proposamenak biltzen zituzten (*cocodrilo: ibai-musker; biografia: bizi-kondaira*).

Euskalgintzaren joera didaktiko horrek sustrai sakonak atera zituen, eta nekez esan genezake oraindik ere horietatik libre gaudenik. Esaterako, euskal administrazioak neurri handi batean ildo horri heldu zion bere euskara eredia finkatzerakoan: hizkuntzak garbia izan behar zuen (*Jaurilaritza* edo *Legebiltzarra*, eta ez *Gobernua* edo *Parlamentua*), eta euskaldunei euskara hori irakatsi behar zitzaien. Abiapuntu teoriko bezala ez zait gaitzestekoa iruditzen, baina bai ordea zalantzazkoa, nolabaiteko hizkuntz-gurasokeria batez kutsatua dagoelako, eta, bestetik, teoria hori praktikara eramatean, gure erakundeen euskarak, askotan itzulpen (on zein txar, baina batez ere txar) aitortugabearen bidez emanak, izen txar samarra eskuratu zuelako eta oraindik ez duelako erabat galdu.

Baina ezinbestekoa zen: euskara ordura arte inoiz ere ikutu gabe-ko esparruetara zabaldu behar zen goizetik gauera, hizkuntz eredia bera artean finkatu gabe zegoela, gutxienezko tresnak ere falta zirela (maila oneko euskaldunak idatzi edo itzulpenak egiteko, tradizioa, hiztegiak...), euskaraz irakurtzeko, eta batez ere horrela irakurtzeko ohitura nahiko gutxi zegoela, hiztunen errazkeria, etab.

Gauzak horrela, itzulpenari eta itzultzaileari beste inon eskatzen ez zaizkion eginkizunak betetzeko eskatu izan zaio: hizkuntza normalizatu behar zuen, lexiko berria etengabe asmatu behar zuen euskarak esparru berri horietan zeuzkan hutsune ugariak estaliz joateko,

lana azkar bukatu behar zuen, eta hori dena prestakuntza egokirik gabe, gutxienezko tresna lagungaririk gabe, ospe, soldata eta maila profesional eskasarekin. Ulertzekoa izango ez da ba oraindik ere euskaldunen artean itzulpenarekiko halako errezeloa egotea, edo ahazte hutsa, baita idazleen artean ere, batzuetan gauzak ez direlako behar bezain ondo egin?

Dena dela, zorionez, eta ezinbestez, hamar urte ez dira alferrik joan: hasierako zalantzak edo balantzak konpontzen joan dira, lehen-go hutsune eta gabezia amaigabeak betetzen, prestakuntza eta lan baldintzak nolabait hobetzen, eta, batez ere, esperientziak eta eskarmentuak oreka bilatzen irakatsi digute.

Baina zer konpondu askorik dago oraindik, eta hor dago, berriro ere, euskalgintzari (eta hemen itzulpenari buruz ari naiz nagusiki, hori delako axola zaidan alorra, baina bakoitzak lerra dezala norberaren esparrura, eskubide osoa du eta) askok gaineratu nahi dioten kutsu didaktiko hori. Euskaraz idazten dugunoi tamalez ezinbesteko betebeharrak hori gure gain hartzea egokitu bazaigu ere, ez da alferreko gauza izango gogoratzea hizkuntzaren normalkuntza edo irakaskuntza ez dela itzulpenaren edo kazetagintzaren (hau da, gaur egun euskal munduan dinamismo gehien azaltzen duten jardueren) betekizuna.

Horregatik, gezurra dirudi gure euskalariak eztabaida eta ahalegin franko alferrik xahutzeak euskara jatorragoa ote den «iritzi» «eritzi» baino, «niri» «neri» baino, «guzti hauetan» «hauetan guztietan» baino erabakitzen; gezurra dirudi gure hizkuntzalari batzuek euskaldun guztiei leporatu nahi izateak haiek bete behar duten eta orain arte bete ez duten eginkizuna. Izan ere, euskaraz ondo idatzi edo euskarara ondo itzultzeko euskara ondo jakin behar da, bai, baina ez da filologo izan behar, eta linguistikari begiratu behar zaio, baina baita soziolinguistikari ere; eta, jakina, itzultzaile ona izateko ez da hizkuntz asmatzaile izan behar; hortaz, lexikoaren arazoari helduz, Euskaltzaindiak, esaterako, oraindik erabaki ez badu ere euskaraz «kotte», «oto», «buaturra», «berebila», «autoa», «automobila» edo «anton bonbila» esan behar ote den, «aurrekontu», «presupostu» edo

«budgeta» esan behar ote den, nekez aitortu ahalko zaio zama hori besteri leporatzeko eskubidea. Euskaltzaindia ohitu egin da euskararen gizartea bere eskumenean edukitzen, hizkuntzaren ildoak berak ezartzen, eta euskaldunok ere ohitu egin gara gure euskaltzainen arauen zain egoten, baina beharrak eraginda gizarte horrek aurrea hartu dio, eta gizarte hori ari da bidea bilatzen eta egiten.

Hau da, bidea geu ari gara egiten, baina inoiz baino bakarrikago; noizko erdara-euskara hiztegi on bat, ikusirik euskaraz egiten eta plazaratzen diren testu asko eta asko erdaratik euskarara itzuliak direla? Onar al daiteke oraindik ere itzultzailearentzat (eta herri honetan denok gara itzultzaile) hain funtsezkoa den tresna hori duela hogeitau urte eta duela hogeitau urteko erizpideekin egindako Placido Mujikaren hiztegiarekin bakarrik bete ahal izatea?

Tradizioak tradizio dira, gainera, larehun urte izanda zein hamar urte izanda, baina gure artean oraindik ere batzuek hobesten dute hildako euskara bizirik dagoena baino («Done Prudentzio», «San Prudentzio» baino, esaterako, hurbiletik ikutzen nauen adibide bat ipintzearren); batzu eta besteen artean ari gara bidea egiten, tradizio eta eredu berriak sortzen, eta argi egon arren hizkuntzak guztion ardurara izan behar duela eta denok zaindu eta aberastu behar dugula, argi dago, orobat, gainzama bat ezarri zaigula gaurko euskaldun askori, euskararen hizkuntz normalkuntzari dagokionez.

Hogeitabost urte igaro dira, eta beharrak desberdinak dira, eta, hortaz, erantzunek ere desberdinak izan behar dute. Panorama guztiz aldatu da, eta ezin da duela hamabost urteko erizpideekin jarraitu, ez eta beste hamabost urte baldintza berberetan. Batek esan zuen bezala, euskal itzultzaileok ere esango dugu «emaiguzue hizkuntza bat, eta mirariak egingo ditugu». Baina bitartean, lanean ari gara, batzuk alde okerrak bakarrik ikusteko konturatu ez badira ere.

«KLASIKOAK», euskal hizkuntza eta kulturaren zutabe

Tituluak besterik gabe horrela emanda handinahi samar badirudi ere, kontuak ateratzea aski da pentsamendu unibertsaleko ehun autore euskarara itzultzeak hamarkada batean zehar sor lezakeen inpaktoa eskerga izango dela eta, ondorioz, horrelako proiektu bat euskararen eta euskal kulturaren zutabetzat hartzea ez dagoela lekuz kanpo ikusteko.

Hizkuntza eta kultura garatu eta finkatu dituen edozein herrialdek bi pausu nabari eman ohi ditu: mundu-literaturako obrarik nagusienak eta pentsamenduzko lanik garaienenak norbere hizkuntzara itzul-tzearenak.

Gure kasuan, 30. urteetako belaunaldiak ekin zion lehenari, gerra ondokoak jarraitu zion eta oraindik orain Eusko Jaurlaritza eta EIZIE elkartearen lankidetzaz jarraitu da «Literatura Unibertsala» izeneko proiektupean, dagoeneko obra-sorta bat plazaratu delarik.

Pentsamenduari dagokionez, tarteka zenbait obra garrantzitsuk argia ikusi badu ere, iazko urtean gatzatu zen «Klasikoak», S.A. lukuru asmorik gabeko elkarte baten inguruan historian zehar izan diren ehun pentsalari garaienen emaitzak euskaratzeko lehen proiektu sistematikoa. BBV Fundazioa, BBK, KUTXA, CAJA VITAL, UPV/EHU eta Deustuko unibertsitateak elkartu ziren proiektua sustatu eta finantzatzeko.

Pentsamenduaren historiako kontzeptu nagusiak, beren autoreek asmatu eta argitaratu zituztenez, euskaratzea balio ukaezinezko ekarpena da besterik gabe euskal gizartearentzat eta laguntza handia gertatuko da ikasketa unibertsitarioak burutzen eta aurretik eta atzetik ere pentsamenduaren alor desberdinetan murgildu nahi duten era guztietako profesionalentzat ere. Bestalde, begibistan dago, hamarkada batean 30.000-40.000 folio gai desberdinenez (filosofia, ekonomia, geografia, psikologia, antropologia, etab.) eta jatorriz euskalki diferenteetakoak diren euskaratzaile trebatuenek, nork bere gaian, itzultzeak bultzada izugarria eman behar dio euskara batuaren finkatzeari, izan ere bilduma honen zuzendaritzak Euskaltzaindiak ezarritako arau guztiak eta bakoitza betetzea baitu helburu, itzultzaile bakoitzak dakarren aberastasun eta sormenari aterik itxi eta trabarik egin gabe. Beraz, bildumak oinarrizko batasun horrekiko fideltasunean, euskalki guztietatik datozen benetako altxorrei irekita utzi nahi dizkie atak, euskaldun guztion etorkizuneko euskarak bere baliabide guztiez geroaren erronkari aurpegi eman diezaion. Obra batzuetan ez da lortuko zenbaitek nahiko lukeen bezain euskara estandarizatua eta besteetan euskaratzaileak amore eman beharko dio bere zenbait hautapen pertsonalegiri edota txoko-kutsu handiegia duten hobespenei, funtsezkoa denik inausi gabe, alferrikako apeta eta arazakeriatan gal ez gaitezen.

Elkartea eratu duten kideen nahia izan da maila guztietan kalitate-terik hoberena lortzea azalez eta mamiz, eta horren begirale izan dadin Komite Zientifiko bat hautatu da honako jaunez osatua:

Jesus Altuna, Joxe Azurmendi, Carlos García Gual, Frantzisko Garmendia, Ander Manterola, Iñaki Oyarzabal, Ibon Sarasola, Frantzisko Uribarren, José María Valverde, Villanueva, Bernardo Atxaga, Bildumaren zuzendari den Xabier Mendigurenen gidaritzapean.

Obra bakoitzaren itzultzaile eta berrikusleei dagokienez, esan behar da azken hamarkadotan lan nabariak egin eta trebetasun frogatua erakutsi dutela gehienek eta, aldez edo moldez, itzultzera doan auto-rea edo gaiaren ezaguera onaren jabe direla.

Bestalde, liburuak hitzaurre interesgarri horniturik kaleratuko dira: batzuetan berariaz atzerriko adituren bati eskatuko zaio, beste batzuetan Estatuko edo Euskal Herriko irakasleren bati eta zenbaitetan liburu horrek berorrek beste hizkuntzaren batean izan duen hitzaurre gogoangarriren bat zuzenean euskaratuko da.

Joan den urtearen azkenetan elkartea abiarazi zenetik honako hamabi hilabeteetan urrats garrantzitsu ugari eman dira: argitaratzeko obren hautapena egin da Komite Zientifikoaren eta Unibertsitateko Fakultate desberdinen laguntzarekin; halaber, irizpide editorialak eraztu eta obren hedatze —eta merkaturatze— plangintza zehaztu da.

Montaigneren *Entseiuak-I* obrarekin kaleratu den bilduma jadanik beste hiru titulu ere argitara eman ditu: T. Mororen *Utopia*, Nietzscheren *Honela mintzatu zen Zaratustra* eta Camusen *Sisyforen mitoa*.

Datorren 1993. urterako beste autore eta obra hauek iragartzen dira:

- *Askatasunaren Beldurra* (Fromm)
- *Politeia* (Platon)
- *Indioez* (Vitoria)
- *Hizkuntza* (Bloomfield)
- *Giza ezagutzaren printzipioei buruzko tratadua* (Berkeley)
- *Nahimena naturan* (Schopenhauer)
- *Entseiuak II* (Montaigne)
- *Ateismoa kristautasunean* (Bloch)
- *Eromenaren laudorioa* (E. Rotterdam)
- *Gizarte-kontratua* (Rousseau)

Jadanik lehen tituluetan errainutzen den bildumaren aniztasunaz, esan behar da kontu handiz orekatu direla gaiak, hizkuntz jatorriak, garaiak, honelako bilduma batean posible den heinean ahalik eta irakurlego zabalaren zaletasuna zapuztu gabe.

Honela, bada, hasi antzinako Greziatik (Herodoto, Platon) eta autore garakideetaraino (Popper) hedatzen da klasikotasuna, erromatar, Erdi Aroko kristauek eta aro modernoaren ekarpen nagusienak kontutan harturik. Gainera, etorkizunean baliteke Ekialdeko filosofia eta pentsamenduaren ekarpen nagusienetakoren bat edo beste bilduman agertzea, horrela bildumaren orokortasunak izan lezakeen mendebalzentrismoa zertxobait orekaturik geratuko litzatekeelarik.

Hizkuntzei dagokienez, beraz, greko, latin, ingeles, alemaniera, italiara, gaztelania, daniera, eta abarretik euskaraturiko obrak izango dira.

Eta gaietako bagagozkie, berriz, zentzu zabalenean harturiko filosofia nagusi bada ere, ekonomia, psikologia, antropologia, historia, geologia, biologia eta abar bezalako gaiak ere kontutan hartzen dira.

Itzulpen-irizpideez denaz bezainbatean, esan beharra dago, bildumak jatorrizko testuak osorik eta fidelitasunez eman nahi dituela, baina euskaratzaile bakoitzaren hurbilpen hermeneutikoa bortxatu gabe. Zentzu honetan, bildumaren zuzendaritzak itzulpen «orekatuak» nahi ditu semantika, estilistika eta pragmatikari dagokienean, itzul-tzaile bakoitzaren jitea errespetatuz.

Euskaltzaindiaren arauak errespetaturik, euskalkien aldetik ekarpenak egiteko uzten den aukera eta itzultzeko orduan euskaratzaile bakoitzak eskain lezakeen ikuspegi traduktologiko berezia aberasgarri gerta litezke eta une honetan gure hizkuntz eta itzulpen koordenadak finkatzen lagunduko du.

Gaiak, jatorrizko hizkuntzak, euskaratzaileak euskalkia eta adina eta abar bezalako faktore eta aldagaiek, atzeraelikaduraren bitartez, zenbait urteren epean, euskal prosa aberastu eta finkatu ez ezik, itzulpen-gintzari ere sen eta oreka berri bat emango diotelakoan gaude. Azken hitza, beste alor batzuetan bezala, irakurleak du: egunero edo sari testu horiek erabili, komentatu, laburbildu eta abar egingo dituen irakasleak eta ikasleak, komunikabideetako profesionalak, idazleak eta gustuz eta bere kultura janzte-aldera ahogozatuz xortaka iraku-

rriko dituen edozein irakurlek. Obra horiek hautatu, euskaratu eta plazaratzean aurkitu duten adinako ilusioz irakurleak abegia egitea espero du KLASIKOAK eta beronekin batera itzultzaileak, berrikusleak, hitzaurregileak eta proiektuan zehar esku hartu duten guztiek.

Pushkin itzultzaile

Ivan Igartua

XX. mendearen hasieran idazleen artean poeta ugari ikusten dugu Europa guztian bezala Errusian, gero hamazazpigarren urtetik aurrera Iraultzak sakabanatu edota deuseztuko zituenak. Garai hartako poetek atzerriko literatur munduarekiko sekulako interesa —agian XVIII. mendetik, Frantziarekin batez ere harreman kultural estuak izan zirenean, somatzen ez zena— biztu zuten Errusia barnean. Poetak berak izan ziren itzultzaile grinatsu eta amorratuenetarikoak. Bere poesiaz gain, Anna Axmatobak adibidez, ekialdea ireki zuen errusiar irakurlearentzat, Txina (Li Po), Korea (Li Jvan, Yun Son Do), eta Indiako (Rabindranath Tagore) poesia itzuliz. Beste akmeista batek ere, Ossip Mandelshtamek, lan aski egin zuen arlo horretan, frantses zahar (epika, eta gero Racine), italiera (Petrarca), georgiera eta alemaniera (batik bat mendearen hasierako poesia espresionista) hizkuntzetatik itzuliz. 1921ean «auzi eta inolako frogarik gabe»¹ hil zuten Nikolai Gumiliov idazle agian ezezagunagoak Théophile Gautier-en poesia parnasianista errusieratu zuen. Gaztelaniak ere bere interesa sortu zuela, Marina Tzvietaievak (Lorca) bere bizitzaren azken urteetan eta Boris Pasternak-en (Calderón, Alberti) itzulpenek ageritzen digute.

Lehenago, XIX. mendearen bukaeran, Konstantin Balmont poeta eta poliglotoaren poesian haren bidaia ugarien aztarnak aise nabari daitezke, irudi berri eta sinbolo arrotzen gisa. Marina Tzvietaievaren

hitzetan, «hamasei hizkuntza ikasi eta gero, hizkuntza berezi batetan hitz egin eta idazten zuen, balmontiar hizkuntzan»². Balmontek asko itzuli zuen, eta ez bakarrik poesia, baina batez ere poesiaren itzulpengintzan oinarri tinkoak ezarri zituela esatera ausart gaitzke. Hemen berriz ere adierazgarriak dira Tzvietaievaren hitzak:

Artikulu eta komentarioak eginez Balmontek zera itzuli zuen: Edgar Allan Poe-ren 5 liburu, hau da, 1.800 orrialde, Shelley-ren 3 liburu edo 1.000 orrialde; Calderón-en 4 liburu, hau da, 1.400 orrialde, eta orrialdeen kopurua adierazi gabe izenak aipatuko ditut: Wilde, Christopher Marlowe, Lope de Vega, Tirso de Molina, Charles von Lerberg, Hauptmann, Sudermann, Yeger-en *Eskandinabiako literaturaren historia...*, georgiar epika, Bulgariako poesia, Jugoslabiako herri-kantak, Lituaniako poeta berriak,...³.

Eta zerrenda amaigabe honi oraindik, besteak beste, Espronceda-ren hain famatua dugun «Canción del pirata» delakoaren itzulpena erants diezaiokegu.

Halere, Errusiako itzulpengintzaren tradizioari buruz hitz egiten hasteko, errusiar hizkuntza klasikoaren hastapenetara itzuli beharko genuke, hau da, XIX. mendean Zhukovskij, Pushkin eta Lermontov, besteak beste, finkatzen hasi ziren hizkuntzan egindako itzulpenetara; izan ere, idazten den neurrian itzultzen ez bada ere, idazkera bezain zahar eta antigoala dugu itzulpena eslabiar munduan bederen. Zentzu honetan, ezinbestekoa zaigu oroitzea IX. mendean hasten den eslabiar idazkera itzulpen batez hain zuzen hasten dela: Testamentu Berria.

1826an, geroxeago gure Bilintxek bezala, Aleksandr Pushkinek *Orlando Furioso* obraren itzulpenari ekin zion. Boris Tomashevskij kritikoak adieraztera ematen zuenez, Peterburgoko lizeoko urteetan (1811-17) Pushkin gazteak frantsesez irakurri zuen Ariostoren obra miretua⁴. Irakurketa horrek sortarazitako irrikak italiara ikastera bultzatu omen zuen handik urte batzutara. Eta honen ondorioa obraren zati baten (23. kantua, 100. oktaba) itzulpena izan zen, Pushkinek, gure Bilintxek bezala, ez bait zuen Ariostoren liburu guztia itzuli, ez eta gutxiago ere.

Hexametro neurri klasikoez idatzitako hiruzpalau poemez agurtu zuen Pushkinek 1830.ean urte bat lehenago Gneditx (1784-1833) idazleak argitarara emandako *Iliada*-ren itzulpena:

Homerorekin luze aritu zinen solasean,
gu luze izan gara zure zain...

Gneditx-en meritua, Pushkinek berak poema horietan azpimarratzen zuen bezala, *Iliada*-ren itxura metrikoa mantentzea izan zen, hexametroz errusieratu bait zuen Homeroren epopeia osoa. Lan horretan 17 urtetan zehar saiatu behar izan zuen. Halere, poema haietarikotzen motzenez, «*Iliada*-ren itzulpenari buruz» izenburupean, Pushkinek zera zioen:

Betoker zen Gneditx poeta, Homero itsuaren itzultzaile
eta era beretsuz berdintsu dira lenidatzi eta itzulpen.

Bi bertso hauekin Pushkinek Gneditx idazkera bere ustez solemnezia salatu nahi omen zuen. Horren azpian *Evgenij Onegin*-en egileak orijinalaren erraztasun bakana susmatzen zuen⁵.

Pushkinek berak ere Greziako literatura zaharretik zerbait itzuliko zuen 1835.ean, Anakreonteren bi oda, hain zuzen, LVI eta LVII, eta beste zenbakigabeko zati bat. Edozein itzultzailek, ona edo txarra den argitu baino lehen, egin behar ez duen bezala, Pushkinek ez zekien grekera zaharrez. Greziako literatura frantses itzulpenez gehienbat ezagutzen zuen Pushkinek. Zenbait arlotan garaiarekin bat zetorren Anakreonteren izpiritua bere idazlanetan aurkitzea ez da harrizko gauza. Halere, bere biziaren momentu horretan errusieratzeko aukeratu zituen Anakreonteren poemek haren egoera pertsonalari buruz zerbait esan diezagukete. 1835.ean, bi urte beranduago hilko zuen gizarte aristokratikoaren barnean (Lermontov-en *Smiert poeta*) murgildua zegoen Pushkin, bere urte hartako *Maskarada* dramaren pertsonaiaren gisa. LVI odaren bukaeran zera aurkitzen dugu:

Ikaragarria lur azpiko hotza,
sarrera guztiontzat da irekia,
baina aterabiderik ez...
bakoitza sartu ta han izanen da ahaztua.

Oda hauen forma nahi izan zuen erara moldatu zuen Pushkinek: orijinalean errimarik ez bazegoen ere, hark errima gurutzatua jarri zion; bertsoak irregularrak baziren ere, Pushkinek zortziko bihurtu zituen guztiak. Garaiaren bueltako eragina hemen ere islatu zen, hala edo nola.

Lehentxeago, 1832.ean Catulo-ren poema motz bat eta frantsesezko Greziako antologia batetik ateratako Jenofan Kolofoneko eta Athenei-ren poema batzu agertzen dira Pushkinen paperen artean. Haiei Horazioren itzulpen batek jarraituko zien, errimaz, jakina, eta bederatzi silabatako bertsoez. Latinari dagokionez, esan beharra dago Pushkinek berak zioenez, ez zekiela oso ongi. Bere *Evgenij Onegin*-en bigarren kapitulua Horazioren hitzez («O rus!») ireki zuen. Ironikoki Pushkinek «O Rus'» itzuli zuen (Rus' > Rusia).

Urte haietan, Gonzago (1744-1807) poeta brasildarraren egia esan interes gabeko poema bat itzuli zuen portugesezik, portugesez ere ondo jakin ez arren. Poemak kantari batek galduriko maiteari egiten dizkion negarrak aditzera ematen ditu. Besterik ez. Erromantikoa, hala ere, garaikoa, hori bai.

Hirugarren hamarkadan Pushkinek Mendebaldeko eslabiarren herri-kanta batzu ere errusieratu zituen. Sarrera gisa itzultzaileak zioen kanta gehienak Parisen 1827.an argitaratutako *La Guzla, ou choix de Poésies Illyriques, recueillies dans la Dalmatie, la Bosnie, la Croatie et l'Herzégowine* liburutik atera zituela. Sarreran bertan, eta hasieran erdi izkutuan mantenduz, kanta haien patua ezagutarazi zuen Pushkinek. «Biltzaile Ezezagunak» behin leinu erdi basati baten erdian aditu eta idatzitako kantak argitara ematea erabaki zuen, lagunek bultzatua, eta forma klasikoetatik urruntzen ziren atzerriko obrekiko orduko interesa somatuz. Biltzaile ezezaguna Prosper Mérimée gertatu zen. Idazle eta eslabista frantsesaren bildumak izandako arrakastak (Mitzkevitz poeta eta jakintsu polakoak «ez zuen —Pushkinen hitzetan— inolako zalantzarik kanta haien orijinaltasunari zegokionez» eta kritikoa aleman bat ere bere azterketak egiten hasia zen) egileari gutun bat idaztera eraman zuen Pushkin. Gutuna azken fi-

nean haren lagun batek idatzi zuelarik, Mériméek erantzun egin zuen. 1827.an, bere lagun batzuekin batera, idazle frantziarrak bidaia bat burutu zuen Italia eta Dalmaziatik. Bidaia hartan jasotako inpresioak zirela eta, Prosper Mériméek Europako literatur munduan mōdan jarria zegoen exotismo erregionalistaz barre egitea erabaki zuela esplikatzeko du. Ondorioz, herri-kanten bilduma eta itzulpena izan behar zuena poesia «mistifikatzaile» orijinala bilakatu zen. Iturri ezberdinez baliatuz eta aski ondo ezagutuz egin beharreko lana, Mériméek bere *Altabizkarko kantua* prestatu eta aurkeztu zion irakurleko erromantikoari. Jokuari Pushkinnek ere ez zion ihesik egin. Mérimée-ren erantzuna honela amaitzen da: «harrotu eta aldi berean lotsatu egiten naiz, Pushkin berari ere ziria sartu diodala jakitean...»⁶. Istorioaz aparte, argitu behar da frantsesak hainbat aldiz aipatzen duen hizkuntza ilirikoa kroaziera dela izatez, eta ez, izenak adierazten duen bezala, albanierarekin zerikusia izan lezakeen beste hizkuntza. Halere, funtsean, Pushkinnek errusieratu zuena, frantsesetik errusieratu zuen. Horretan ezbaierik ez.

Itzulpenez beste, Pushkinnek imitazioa edo «pastiche» delakoa landu zuen bere bizitzan, batzuetan gainera Mérimée-ren sistema berbera erabiliz. Adibide gisa, zentsorea gogorregi izan ez zedin, edo ahal bazen, somatu ere ez zezan egin, Pushkinnek italiar poeta ezezagun bati (Pindemonti) leporatu zizkion bere bertso batzu, poema haren begietara itzulpen bihurtuz (1836).

Itzulpengintza arloan Pushkinen lana murriztua izan bazen ere, bere obra izugarriaren alderdi ezezagunetarikoa honen balioa ez dago, dena den, kentzerik. Bere idazlan orijinaletan bezala, eta agian era zorrotz eta izkutatuagoan, azaltzen dira poetaren gaiak eta nahiak bere itzulpen lanetan. Bizitza eta artearen arteko kontraesanek ere badute hemen bere tokia, duela pertsonal erromantikoei, «le mal du siècle»-ri barre egiten zion eta horrelako duela batean heriotza aurkituko zuen gizonaren obra orokorrean.

OHARRAK

- (1) *Nikolai Gumiliov. Socinenija v triox tomax.* T.1, Moskva, 1991, 5. orrialdean.
- (2) *K. Balmont. Stixotvorenija,* Moskva, 1990, 18 orrialdean.
- (3) *Marina Tzvietaieva. Socinenija v dvux tomax.* T.2, Minsk, 1988, 284. orrialdean.
- (4) *A.S.Pushkin. Socinenija v triox tomax.* T.1, Moskva, 1937, 700. orrialdean.
- (5) *Ibidem,* 740. orrialdean.
- (6) *Ibidem,* 584. orrialdean.

IRUZKINAK

Zenbait itzulpen aldizkarien berri ematea.

Beatriz Zabalondo
Xabier Mendiguren

TRADUIRE. Revue Française de la Traduction. Information Linguistique et Culturelle. Société Française des Traducteurs. N^o 146. Décembre 90.

Sommaire

La formation continue des traducteurs. *Christine Durieux.*
Congrès de Belgrade. Les ateliers: Terminologie. *Helena de la Fuente.* Statut du traducteur. *Julien Marquis.*
Défense et illustration des ondes courtes. *Maurice Voiturez.*
Quelques perles. *Jean Maillot.*
Ouvrages reçus. *Jean Maillot.*
Revue des revues. *Jean Maillot.*
La vie de la SFT.

TRADUIRE. Revue Française de la Traduction. Information Linguistique et Culturelle. Société Française des Traducteurs. N^o 147. Mars 91.

Sommaire

En revant à l'orthographe. *Jean Maillot.*
Vers l'âge canonique *Maurice Voiturez.*

Psychology of Translators.

Quelques perles. *Jean Maillot.*

Ouvrages reçus. *Jean Maillot.*

Revue des revues. *Jean Maillot.*

Infos.

La vie de la SFT.

TRADUIRE. Revue Française de la Traduction. Information Linguistique et Culturelle. Société Française des Traducteurs. N° 148. Juin 91.

Sommaire

Editorial. *Traduire.*

Naissance d'un dictionnaire. *Maurice Voituriez.*

C'est à vous de parler. *Maurice Voituriez.*

Traduire, une tradition française?. *Maurice Voituriez.*

Ouvrages reçus. *Jean Maillot.*

Potins.

Perles et autres trouvailles

Revue des revues. *Jean Maillot.*

La vie de la SFT.

Infos.

TRADUIRE. Revue Française de la Traduction. Information Linguistique et Culturelle. Société Française des Traducteurs. N° 149. Octobre 91.

Sommaire

Editorial. *Traduire.*

Proposition d'un vieux traducteur. *Raymond Albeck.*

La chasse au traducteur, est-elle ouverte?. *Maurice Voituriez.*

Ouvrages reçus. *Jean Maillot.*

Potins. *Felix*.

Perles et autres trouvailles

Revue des revues. *Jean Maillot*.

La vie de la SFT.

Infos.

TRADUIRE. Revue Française de la Traduction. Information Linguistique et Culturelle. Société Française des Traducteurs. N° 1450. Décembre 91.

Sommaire

Editorial. *Traduire*.

Traductologie. *Danica Seleskovitch*.

Ouvrages reçus. *Jean Maillot*.

Le temps des anniversaires. *Maurice Voituriez*.

Potins. *Felix*.

Revue des revues. *Jean Maillot*.

Perles et autres trouvailles

La vie de la SFT.

TERMINOGRAMME. Bulletin d'information terminologique et linguistique. Gouvernement du Québec. Office de la langue française. N° 59, hiver 1991.

Sommaire

La terminologie en Estonie. *Tiiu Erelt*.

De l'acte préparatoire à l'enquête terminologique. *Nazam Halaoui*.

Comptes rendues:

Des nouvelles du Rint. *Michelle Cayer*.

De nouvelles perspectives pour la langue. *Stéphane Tackels*.

La langue à l'âge de l'industrie. *Christiane Loubier*.

Publications reçues. *Stéphane Tackels*.

Congrès, colloques, séminaires... *Marie-Aline Bouchard*.

TERMINOGRAMME. Bulletin d'information terminologique et linguistique. Gouvernement du Québec. Office de la langue française. N° 61, été 1991.

Sommaire

La langue des lois. *Ghislaine Pesant. Estelle Thibault*.

L'indexation multiple dans la banque de terminologie du Québec.
Michèle Trudel.

Recherche sur l'écriture. Entretien avec Nina Catach. *Pierrette Vachon-L'Heureux. Dominique Dos Ghali*.

Avis de normalisation et de recommandation.

Publications reçues. *Dominique Dos Ghali*.

Congrès, colloques, séminaires... *Marie-Aline Bouchard. Dominique Dos Ghali*.

TERMINOGRAMME. Bulletin d'information terminologique et linguistique. Gouvernement du Québec. Office de la langue française. N° 62, automne 1991.

Sommaire

La siglaison. Observations en télématique et en médecine (première partie). *Debbie Zolondek*.

L'accentuation des sigles. *Christian Vandendorpe*.

Recherche sur l'écriture. Entretien avec Nina Catach (suite). *Pierrette Vachon-L'Heureux. Dominique Dos Ghali*.

Comptes rendues

Le Vocabulaire bilingue de la publicité. *Noëlle Guilloton*.

NORMALISATION. Avis de normalisation et de recommandation.

Publications reçues. *Dominique Dos Ghali*.

Congrès, colloques, séminaires...*Dominique Dos Ghali*

META. Journal des traducteurs. Translator's Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Les Presses de l'Université de Montréal. Vol. 35, N° 2, juin 1990.

Sommaire- Contents

La traduction au pays des Tsars et des Soviets. *Henri Van Hoof*.

À l'intersection du français et du russe. *Robert Giraud*.

La langue du droit. *Ethel Groffier*.

Traduction signalétique. *Daniel Gouadec*.

Translating Institutions and 'Idiomatic' Translation. *Brian Mossop*.

A History of Translation and Interpretation in Cameroon from pre-colonial Times to present. *Charles Atangana Nama*.

Cooperation and the Logic of Action. *Antti Eskola*. *David Kivinen*.

Verbal Stereotypes. *Wolfram Wilss*.

Discourse Analysis and the Problem of Translation Equivalence. *K. Lotfipour-Saedi*.

Études Terminologiques et Linguistiques

Essai de terminologie politique contrastive (français-anglais) sur les thèmes de «liberté» et de «volonté». *Paul Jinot*.

Sigles et noms propres. *Dorothy Nakos*.

Bilingual Speakers as Informants in a Comparative Lexical Semantic Analysis. *Christine Bagge*.

Documentation

Bibliographie. *M. C. Cormier*.

Comptes rendues.

Bloc-Notes

Tools for Terminology. *Peter Gawn.*

MT or CAT: Criteria for the Independent Translator to Select a Computerized System. *Josette Coughlin.*

L'Université face au développement. *Jean-Claude Gémard.*

Hart Crane in Translation: An Updated Annotated Checklist. *Kevin J. Harty.*

Dictionnaire universel des traducteurs. EUROTERM to Computerize Elsevier Dictionaries. *Henri Van Hoof.*

META. Journal des traducteurs. Translator's Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Les Presses de l'Université de Montréal. Vol. 35, N° 3, septembre 1990.

La Traduction dans le monde hispanolusophone Translation in the Spanish and Portuguese world

Sommaire- Contents

Introducción. *Ileana C. de Hagel.*

1. Theorie de la traduction

Traduire, adapter, réexprimer. *georges L. Bastin.*

A General Theory of Translation (and of Language). *Mariano García-Landa.*

Wilhelm von Humboldt, Translator and Translation Theorist. *Miguel Vega.*

Considerations for the Craft of Translation. *M. Mould de Pease.*

2. Grammaire et traduction

La grammaire du traducteur. *I. Biojout de Azar. B. Amanda Chiappa.*

La voix passive en français et sa traduction en espagnol. *V. García Yebra.*

«Par» et «pour», valeurs textuelles. *María E. Blanchet de Redruello.*

- L'argumentation concessive française et espagnole. *Mercedes Tri-cás.*
- Error Analysis in Translation: A Preliminary Report. *H. Vivanco. J. Carlos Palazuelos. P. Hörmann, C. Garbarini. M. Blajtrach.*
3. *Enseignement de la traduction*
- State of the Art in Translation Teaching and Research in Brazil. *María Cándida Rocha Bordenave.*
- L'enseignement de la traduction au Mexique. *Guillermina Cuevas et Marta Pou.*
- Hacia un programa curricular común de traducción para América latina. *Ileana Cabrera y Patricia Hörman.*
4. *Terminologie*
- Quelques organismes travaillant en terminologie scientifique, technique ou professionnelle. *Daniel Prado.*
- Lexicographie bilingue et traduction. *Brigitte Lépinette.*
5. *Projets formels de recherche en traduction*
- Reading Comprehension in a Second Language by Higher Education Students: The Role of Translation. *C. Valdivieso and C. Fuenzalida.*
- El desarrollo de la traducción como disciplina en países del cono sur. *Emilio López y C. Valdivieso.*
6. *Traduction littéraire*
- Le traducteur, instance d'énonciation dans "Chronique d'une mort annoncée". *Luis Enrique Jara.*
- Traduire l'étranger. *Albert Bensoussan.*
- A German Connection? Context-description of Literary Translation Efforts in Southern Brazil. *Eva Wysk Koch.*
- De l'interprétation en traduction littéraire. L'exemple de *Malavoglia* et d'une de ses traductions en espagnol. *Francesca Polito et Stefania Ajó.*
- Pour traduire la poésie: notes et notations. *T. Sainz Hermosilla.*
- "Le chemin des écoliers". *Ana Peyrelongue.*

The Subversive Scribe: "Translating Manuel Puig". *S. Jill Levine.*
Brazilian Literature in Translation. *H. Guttenkunst Prade.*

7. Interpretation

Oral Cloze: A Backup Exercise for interpreting. *G.A. Dávila Garibi*
and J. López Islas.

Conference Interpreting: Practice and Teaching in South Brazil. *H. L.*
Hofmann.

META. Journal des traducteurs. Translator's Journal. Organe
d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de
la terminologie et de l'interprétation. Les Presses de l'Université de
Montréal. Vol. 35, N° 4, décembre 1990.

Sommaire- Contents

Pour une méthode générale de traduction: traduire par l'interprétation
du texte. *Jean-Claude Gémar.*

La recherche documentaire en traduction technique: conditions né-
cessaires et suffisantes. *Christine Durieux.*

Traduction de textes de vulgarisation et de textes didactiques: appro-
che pédagogique. *Monique C. Cormier.*

Cultural Assertion in the African Autobiography. *Tony E. Afejuku.*

Sense and Nonsense: The Literary Significance of Semantic Contra-
dictions and Tautology in Okot p'Bitek's "Song of Lawino". *Ogo*
A. Ofuani.

A Different Approach to Machine Translation. *Karla Déjean Le Féal.*

Punctuation in English & Portuguese Translations: When Every Point
Counts. *Cecil L. de Ataide Melo.*

Critique of Aspects of Translation of the poetry of the Pre-Islamic
Poets and also "Wormhoudt's" Translation of Al-Mutanabbi.
Sala Salim Ali.

Making Translations More «Native»: The Use of the Feminine
Pronoun for Inanimate Things. *Lorraine Neufeld.*

Études Terminologiques et Linguistiques

Terminologie français-anglais des systèmes experts et des sujets connexes. *Jacques Lethuillier et Monique C. Cormier.*

Quelques aspects du métier de terminologue. *Gabriel Otman.*

Quelques problèmes d'interférence. *Geneviève Quillard.*

Documentation

Bibliographie. *M. C. Cormier.*

Comptes rendues.

Bloc-Notes

Le traducteur arabe est-il prêt à relever le défi? *Samia Barrada.*

Traduction biblique et genèse linguistique. *Henri Van Hoof.*

Entre traduction et normalisation terminologique. *Pierre Lerat.*

Dictionnaire universel des traducteurs. *Henri Van Hoof.*

Index.

META. Journal des traducteurs. Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Les Presses de l'Université de Montréal. Vol. 36, N° 4, décembre 1991

Sommaire-Contents

Editorial. *André Clas.*

Autrement dire... Pour une redéfinition des stratégies de formation de traducteurs. *Daniel Gouadec.*

Plaidoyer pour la part de la jurisprudence en traductologie. *Uzoma Chukwu.*

Text Classification and Text Analysis in Advanced Translation Teaching. *Peter G. Emery.*

La radiodiffusion sur ondes courtes et l'interprète de conférence. *Daniel Gile.*

Aptitude Testing for Simultaneous Interpretation at the University of Ottawa. *Sylvie Lambert.*

Training and Certification of Court Interpreters in a Multicultural Society. *Jindra Repa.*

Dubbing as an Expression of Nationalism. *Martine Danan.*

Bilingual and Multilingual legal Dictionaries: New Standard for the Future. *Susan Sarcevic.*

Translation from Chinese: Coherence and the Reader. *Duncan Hunter.*

Etudes terminologiques et linguistiques

Lexique anglais-français de neurochirurgie. *Michèle Valiquette.*

Documentation

Bibliographie. *Monique C. Cormier.*

Les dictionnaires de terminologie linguistique: bibliographie systématique. *P. Swiggers et M. Janse.*

Bibliographie-écologie des eaux continentales. *Phipippe Toiron et André Clas.*

Comptes rendus (Daniel Gile, Geneviève Raymond, Catherine Mavrikakis, Louise Le Blanc, Pierre Lerat eta Jean-Louis Sourieux, André Clas, Denise Campillo, Paul A. Horgelin, Roda P. Roberts, Ad Hermans).

Bloc-notes

Arles, capitale de la traduction. *Jean-Paul Partensky.*

Team-Teaching Consecutive Interpretation at the Monterey Institute on International Studies. *Christian Degueldre and Jacolyn Harmer.*

Language Planning and Terminology Planning. *Ad Hermans.*

The Complicity of Translation. *Robert Smith.*

Dictionnaire universel des traducteurs. *Henri Van Hoof.*

Index.

1990eko abenduaren 6ko *Journal Officiel de la République française* izenekoak argitara eman zituen Hizkuntza frantsesaren Kontseilu Nagusiak egingako proposamenen inguruan astrapala handia sortu zen Frantzia eta frantsesa erabiltzen den herrialdeetan. Batzuek ortografiaren «erreforma» eta beste batzuek «errekifikazio» deitu duten horren inguruan mamituriko editorial edo atarikotik hasi eta zenbakia ixten duen ohizko ohar-blokeraino kutsu pedagogiko nabaria dario ale honi. Daniel Gouadec, Rennes-ko irakasleak itzultzaileak prestatzeko estrategien birdefinizio batek nondik jo beharko lukeen adierazten digu, urte

luzetan itzulpen merkatuan eskarmentu handia bildu duen honek. Peter G. Emery-k jorraturiko gaiak ere hurbilezik ekiten dio gai berari itzulpen irakas-kuntzan erabili behar diren testuen sailkapena eta azterketa nola egin behar diren iradokiz. Bestalde, interpretarien lanbide eta prestakuntzaz ere orrialde mordoska eskaintzen du ale honek: uhin laburretako irratigintza eta konferentzi interpretaria (Gile), gizarte kulturantzean auzitegiatoko interpretariak nola trebatu eta ziurtatu behar diren (Jindra Repa) eta aldi bereko interpretari izateko gaitasuna nola frogatu behar den (Lambert) dira sail honetan datozen azterguneak.

Xabier Mendiguren

CUADERNOS DE TRADUCCION E INTERPRETACION, 11/12, EUTI Escuela Universitaria de Traductores e Intérpretes. Publicacions de la Universitat Autònoma de Barcelona, 1992, Bellaterra.

Indice

Experiencia y problemas de la traducción y de la interpretación.

«Monólogo», de Harold Pinter, traducción de Ana Gimeno Sanz y Juan V. Martínez Luciano,

La obra crítico-literaria de Malcolm Bradbury. Su traducción al castellano, *María Socorro Suárez Lafuente*.

«Una persona muy hospitalaria», de Malcolm Bradbury, traducción de Raymond Harris y M. Socorro Suárez Lafuente.

Sobre el aspecto bilingüe de «Recuento», de Luis Goytisolo, desde la perspectiva de la traducción polaca, *Jadwiga Konieczna-Tawardzikowa*.

Dos traducciones: «La route des Flandres» y «The Old Gringo», *Jean Schalekamp*.

La traducción poética de poesía: una tentativa de asedio a su conceptualización (a propósito de una versión de «El paraíso perdido»), *Tomás Ramos Orea*.

Recursos teóricos y hallazgos lingüísticos en la traducción poética de un fragmento de Alexander Pope, *Tomás Ramos Orea*.

Sobre la traducción de los nombres propios, *M. Teresa Espinal*.

Alguns calcs freqüents en la traducció al català de diàlegs cinematogràfics en anglès, *Josep M. Carbó*.

I de les partícules modals alemanys, què en fem?, *Anna maria Muñoz i Morata*.

La traducción de expresiones adverbiales en un texto narrativo de D. H. Lawrence, *Pilar Mañas Lahoz*.

«La cruz», de Marek Hlasko. Traducción y noticia del autor, *Agata Orzeszek*.

«La Utopía» de Tomás Moro, *Lydia Hunt*.

«Las aventuras de Tom Bombadil», *Alejandro Fernández Susial*.

De Tolkien a C.S. Lewis, *Pilar San José Villacorta*.

El manifiesto de Valencia, *Liliana Piastra*.

Contribution à une pédagogie de l'interprétation, *Philippe Curvers, Jean Klein, Nina Riva y Claude Wuilmart*.

Artículos

El español, la traducción y los peligrosos parentescos románicos, *Emilio Lorenzo*.

Todo poema es un epitafio: Hamlet en «The Waste Land», *Emilio Barón*.

Un aspecto olvidado de la poesía goliárdica, *Miguel Requena Marco*.

Françoise de Graffingny vista por Valladares: «Cénie» y «El marido de su hija», *María Jesús García Garrosa*.

Entrevista

En recuerdo de Consuelo Berges, *Esther Benítez*.

Entrevista —truncada— con Consuelo Berges, *Esther Benítez*.

Entrevista a Xavier Benguerel (1905), *Lourdes Mañé i Martí*.

Reseñas

Dolors Cinca, Dolors Poch Olivé, Teresa Gibert Maceda, Marta Giné Janer, M. Carmen González Pérez, Lourdes Güell, Francisco Lafarga.

Zenbaki honetan, besteak beste, azpimarratzekoa da Esther Benítez, 1992ko Itzulpen-Sari Nazionalaren irabazleak Consuelo Berges, APETI-ren lehen presidente eta itzultzaile sonatuari, hil baino lehen egindako elkarrikustea. Consuelo Berges Santandereko Ucedan jaio zen 1899an, letra munduan murgilduriko familia batean. Txikitatik ikasi zuen frantsesa eta gerora hizkuntza horretatik burutuko ditu bere itzulpen ereduak. Ameriketatik ibili ondoren, Espainiara itzuli eta anarkista bihurtzen da. Gerratean erbestera jo behar izan zuen eta 1943a arte Parisen ezartzen du bizilekua. Hondarribian kontzentrazio-zelai moduko batean egotera iritsi zen, judutzat hartu zutelako. Handik gutxira ekin zion itzulpen lanari Saint Simonen memorien hautapen batekin. Besteak beste, *Madame Bovary* eta Prousten *A*

la recherche obra sonatuak, nahiz eta Stendhal eta beste autore asko ere itzuli zituen.

Ondoren Xavier Benguerel (1905) kataluniar idazle eta itzultzaile ospetsuari egindako elkarrikustea ere badator. Batez ere, poesia itzuli du eta orain arte Baudelaire, Valéry, Rimbaud, Mallarmé, E. A. Poe, La Fontaine, Pablo Neruda. Nobela bakarra itzuli du: Salingerren *L'ingenu seductor*. Idazle bezala teatroa eta nobela bakarra batzuk ere argitara eman ditu, besteak beste, *El casament de la xela* (1938), *L'home i el seu àngel* (1937), *Fugitius* (1956), *Els vençuts* (1969), *Icària, Icària* (1974), *El llibre del retorn* (1977) Azken bolada honetan Ronsarden sonetoak itzultzen ari izan da.

Xabier Mendiguren

Bibliografía

NEWMARK, Peter, *Manual de Traducción*, Cátedra, 1992, Madrid.

Traduktologo ingeles ezagunaren *A Textbook of Translation* (1988) izeneko obraren itzulpena eskaintzen digu Virgilio Moya itzultzaileak «Manual de traducción» titulupean. Aurretik *Approaches to Translation* (1982) eta oraindik orain *About Translation* (1991) izeneko lanak ere eskaini dizkigu.

Anglosaxoniarraren enpirismoari dago-kionez, Newmarken obretan ez da elukubrazio erretorikatsurik aurkitzen eta eskaintzen duen teoria beti teoria eta praktikaren arteko uztardura estuan ageri da. Pragmatismoa nagusi duen liburu honetan adibide ugari aurkitzen da autoreak defendatzen duenaren berri emateko, nahiz eta beti

derrigorrean bat etorri beharrik ez dagoen. Autorea, Moyak dioenez, «zehaztasuna» eta «ekonomiaren» aldekoa da eta bi hitz horiek izan litezke liburua deskribatzeko ere egokienak.

Moya, britainiarraren obra gaztelaniaratu duen moldatzaileak erronka serio samarra izan du aurrez aurre eta frogara aski ongi gaintitu duela esan beharra dago. Ikasle espainiarren premietara egokitu behar izan du ingeleseztat pentsaturik zegoena, eta bestalde autoreak darabilen terminologia birsortu ere egin behar izan du –Glosategian ageri denez– liburuan zehar erabili baino lehen.

Itzultzaile-moldatzaileak iradokitzen duenez, ikasle-irakurleak eskertuko du ohar gehiegi ezartzearen «porrot-aitorpenik» gabe liburua agertzea, zeren bertan ageri diren apurrak eginkizun bikoitza bait dute, irakurleari jatorrizko testua ulertzen laguntzea eta testuaren bibliografi erreferentzia zehatza ematea, zeren ezein joera traduktologikotakotzat bere burua aitortzen ez duen autoreak eman gabe uzten baitu.

Newmarken obrak bi parte nagusi ditu: Hastapenei buruzkoa, 20 kapituluarekin eta Metodoei buruzkoa, sarre- ra eta 8 testuren itzulpenarekin, amaitzeko glosategia, medikuntza-terminologia, laburdurak, autorearen artikulu-zerrenda, bibliografia, izen eta gai aurkibidea bezalako eranskinekin.

Lehen parteari dagokionez, testuaren analisia, itzultze-prozesua, hizkuntz funtzioak eta testu-kategoria eta motak, itzultze-metodoak, itzulpen-unitatea eta diskurtso-analisia, itzulpen literala, gainerako itzultze-prozedurak jorratzen ditu lehen zortzi kapituluetan. Bederatzigarrenetik aurrera itzulpena eta kultura, metaforen itzulpena, analisi konponentzialak itzulpenean duen erabilera, gramatika itzulpen-kasuetara hedatzea, neologismoen itzulpena, itzulpen teknikoak, literatura serioa eta «autoritadedun» testuen itzulpena, kontsulta-liburuak, itzulpenaren kritika eta abar bezalako gai orokorra-

go edo bereziagoak lantzen ditu. Esan beharrik ez dago denak aski funtsezkoak gertatzen direla itzulpenera teoriarik eta praktikan hurbildu nahi duenarentzat.

Orain arte, gero eta eskari handiagoa duen gaztelaniazko traduktologi liburuaren merkatuan, bi obra nagusi zeuden ikasleen aukeran: V. García Yebra (*Teoría y Práctica de la Traducción I-II*) eta Vázquez Ayorarena (*Introducción a la Traductología*), zeren Ernesto Zierer perutarren *Algunos conceptos básicos de la ciencia de la traducción* (Trujillo-1979) ez baita ohizko merkatu-bideetatik banatu. Aurrerantzean, iruzkingai dugun liburu honek baliabide eta laguntza berriak ekarriko ditu, aurrekoen eskaintzari ezer kendu gabe, izan ere itzulpen-karrera eta masterretan gero eta beharrezkoagoak baitira praktika- ra zuzenduriko liburuak. Bistan dago honelako liburu batek ez duela gaur egun munduan zehar traduktologi mailan gertatzen ari denaren berri emateko asmorik eta herrialde desberdinetan eta traduktologo desberdinen lumetatik sortzen ari diren gogoeta ugarien berri emateko gogorik. Dena den, une egokian dator Newmark-Moyaren eskuliburu hau eta ezinbesteko erreferentzigune gertatuko da gaztelaniazko ikasleen artean, lehenago ingeles ikasleen artean bezalaxe.

Xabier Mendiguren

BERTONE, Laura, *En torno de Babel. Estrategias de la interpretación simultánea*, Hachette, 1989, Buenos Aires.

Interpretaritzaz gizaratean hartzen ar den garrantzia gero eta nabarmenagoa da. Horregatik, ez da harritzekoa lanbide honi buruzko aipamen eta artikulua ere gero eta gehiago izatea adituen aldizkarietan. Noizean behin, libururen bat edo beste ere agertzen da, honelako edo halako interpretarik urteetan zehar bildutako esperientziaren errainu, baina aitortu beharra dago ez dela batere erraza interpretaritzaren barne-muinak era bizi eta baliagarrian inori erakustea. Laura Bertoneren liburu honek aski ongi lortzen duelakoan gaude.

Hasteko, gozamenaz idatziriko liburu dela esan behar da eta era berean irakurtzekoa. Zenbait eskulibururen errazionalismo edo intelektualismo lehorrari ihes egiten dio eta metafora, adibide eta umorearen bide iradokiorretik jotzen du irakurlea bereganatzeko. Hamazortzi kapitulutan zehar Herbert, Tadey Pilley, Eva Paneth, Danica Seleskovitch, Gerver, Sinaiko eta abar bezalako klasikoen irakatsietarik hobereana eskaintzen ahalegintzen da, Mariano García Landa, Bárbara Moser-Mercer eta Jürgen Stähle bezalakoengandik ikasitakoak ahaztu gabe.

Baina, ere berean, interesgarria da ikustea Saussure, John Austin, John Searle, Benveniste, Jakobson, Greimas, Hjemlev edo Stanislavski, teatroaren munduan hain eragin sakona izan zuenaren lanak irakurtzeari no-

lako garrantzia ematen dion Bertonek interpretariaren sakoneko prestakuntzari dagokionez.

Sarrera historiko labur baten ondoren, hizlariaren identitateaz eta interpretariaren presentziaz mintzatzetik hasten da, ondoren diskurtsoak iradokitzen duenaz edo inplizituaz hitz egiteko.

Gero, hiztunaren asmoaz hipotesi bat izatea zeinen garrantzizkoa den aitortzen du bere diskurtsoa interpretatu ahal izateko, eta sarritan kontraesankorrak diren seinaleak zuzen ulertzeko.

Bostgarren kapituluan interpretariaren lana ardatzen duten bi ardatzak aipatzen ditu: aldiberekotasunarena (sinkronia) eta ondozondokotasuna (diakronia).

Hurrengo ataletan eragiketen aldiberekotasuna, ikaskizuna eta lan-metodoa, zenbait ondorio, estrategiak eta zentzuaren erlatibitate bezalako gaiak eskaintzen dira, azkenean interpretariaren paperaz, hondoan eta formaz, integrazio pertzeptiboaz, prozesu automatikoez eta interferentziez gogoe-ta egiteko.

Glosategia, interpretaritzaz irakasteko iradokizunak eta bibliografia datoz liburuaren bukaeran. Azken sail honi dagokionez, interpretariaren prestakuntza sakonera guztian bideratzeko moduko liburu-zerrenda dela aitort-

tu behar da, zeren bertan datozen jakintzagai edo diziplinak hasi hizkuntzalaritzatik eta hizkuntz filosofia, semiologia, psikolinguistika, psikologia, soziologia, komunikazioa, psikoanalisi, teatroan barrena, itzulpen-teoria eta konferentzi interpretaritzarainokoak baitira.

Baliteke norbaitek liburuaren «tonua» hautematean arin eta simple sama-

rra iriztea, baina nork daki interpretari baten prestakuntzaz dihardugula zer den baliozko eta zer ez? Bertoneren liburuan bizitza eta iradokizun ugari dago pasarte bat ez bada besteren bat aberasgarri bezain iradokior izan litekeela zinez ziurta daitekeena da.

Xabier Mendiguren

LOPEZ GARCIA, Dámaso: *Sobre la imposibilidad de la traducción*, Colección Traducciones, Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha, 1991, Madrid.

Garai eta aldizkari desberdinetan agertuz joan diren artikuluen bilduma hau Castilla-La Manchako Unibertsitateko Letra-Fakultatean Ingeles Literatura irakaslea den Dámaso López García*k* idatziak dira eta gehienak ingelesetik gaztelaniara zenbait autoreren lanak itzultzearen inguruko esperientziaz dihardute, besteak beste, Shakespeare, John Donne, Young, Blanco White, «Lotofagoen Kanta», Molly Bloomen bakarriketa. Hala ere, izenburua «Itzulpengintzaren ezinezkotasunaz» titulua duen eta bildumaren hasieran datorren artikulutik hartzen du liburuak. Hain zuzen ere, neo-humboldtarrak, Whorf, Sapir eta abarren ildotik itzulpena ezinezkoa dela aitortu dutenen hitzak errepikatetik hasi eta Schleiermacher, García Calvo, Walter Benjamin, Ortega y Gasset eta askoz lehenagoko Fray Luis

de León eta Amerikaren aurkitzaile eta konkistatzaileen aipamena eginez honako ondorioetara iristen da: «Itzulpenaren ahaltasun edo ezintasuna itzulpen-teoriaren arazo amankomunez bizkar erabakitzen da. Espainiar hizkuntzaren historiak erakusten du, bere unerik distiratsuenetan, itzulpengintza posible eta desiragarri bihurtzen zuten benetako komunikazio-egarri bat».

Bigarren eta hirugarren artikuluetan hizkuntza eta itzulpenaren arteko harremanak eta beti zail eta eztabaidatua den itzulpenen ebaluaketaren gaia irristakorra jorratzen ditu. Bassnett-McGuiren hitzetan «great stumbling block» den honi buruz, López García*k* uste du inoiz ez dela izango itzulpenaren teoriarik, hau da, ezaguera-eremu bateratu egonkorrik, harik eta itzulpe-

nen ebaluaketak planteatzen dituen arazoak konpondu arte.

Bere garaian V. García Yebrak argitara eman zuen «En torno a la traducción» artikulua bildumaren antzera, Castilla-La Mancha Unibertsitateko irakaslearen sortan balio eta garrantzi diferentetako saioak datoz, baina guztiak dira interesgarri esaten dutenarengatik ezezik, baita iradokitzen

dutenarengatik ere. Azken finean, itzulpen-teoriaren alorrean oraindik saio asko dago egiteko auzi desberdinak behar bezala maneatu eta jakite-multzo iraunkor samar batzuk era egituratuan eskaintzeko. Kasu honetan, ingelesaren eremuan murgildurik dabilzanek gozamen bereziz irakurriko duten liburu baten aurrean gaude.

Xabier Mendiguren

HEWSON, Lance & MARTIN, Jacky: *Redefining Translation - The Variational Approach*, Routledge, 1991, London/New York.

Liburu eta artikulua ugari idatzi dira azken hamarkadotan itzulpena zer den, itzulpen «ona» zer den bezalako galderari erantzunez eta ikuspegi desberdinetatik auzia argitu nahiz, baina ahalginik gehienak alderditar edo mugatuegi agertu izan dira eta nekez agertu dira alderdi linguistikoa, sozial eta kulturalak uztartuz ikuspegi bateratua eskaintzen duten saioak.

Autoreak aurretik dauden itzulpen-teoriak aztertu eta beraien mugak agerian jarri ondoren, «bariazional» adjektiboaz izendaturiko beren proposamena eskaintzen digute eredu-kontzepzioan erabateko aldaketa izan daitekeelakoan. Aurreko teoria *lineal*, *orientatu* eta *helburura determinaturiko* planteamenduaren ordez *sistemikoa*, *alderdibitarrak* eta *balioaniztuna* den beste bat luzatzen digute.

Eredu bariazionalak erlazio bikoitz bat ezarri nahi du bi hizkuntza kultura edo gehiago besarkatuz. Lehenari paradigmatiko dei lekiokio eta STa jatorriz hautatua izan deneko alternatiba berreraikigarrien aukera deskribatzen du. Berreraikuntza paradigmatiko hau *parafrasetan* oinarritzen da.

Bigarren erlazioa maila sintagmatikoan garatzen da eta *homologia* kontzeptuan oinarritzen da.

Beraz, bi mailako eredu baten aurrean gaude: aurrena aukera parafrastikoen multzo zabal bat isolatzen da eta gero hautapen-prozedurazko multzo batean zehar igarotzen da azken testu bat sortzeko.

Lehen mailak itzulpenaren alderdi linguistikoa azpimarratzen du eta homologia kontzeptuan edo hizkuntzarteko parafrase koordinatuetan oinarri-

turiko maila sortzaile bat da. Bigarren mailak itzulpenaren alderdi sozial eta kulturala hartzen du kontutan eta hautapen-prozesu bat da, zeinean parametro sozio-kulturalak, ekonomikoak eta abar kontutan hartzen diren azken testua sortu aurretik. Planteamendu honek usadiozko ereduak baino argi eta garbiago uzten dute itzulpengintzaren alderdi sortzailea.

Fokapen edo hurbilbide bariatzional hau aurrerapausu bat da itzulpen-estudioetan eta ikasle eta irakasle aurreratuentzat ez ezik eguneroko itzul-

pen lanean ari diren profesionalentzat ere bada, testu literario zein ez-literarioekin aritzen direlarik ere.

Jacky Martin eta Lance Hewson liburuaen egileak esperientzia handia dute itzulpen-gaietan. Eta graduazio aurreko eta osteko ikastaldi eta mintegiak zuzentzen dituzte Montpellierrako Paul Valéry Unibertsitatean. Obra-
ren azken partean adibide praktikoko bat baino gehiago dator azalduko teoriaren argigarri.

Xabier Mendiguren

ROGER T. BELL: *Translation and Translating. Theory and Practice.* Longman, 1991, London/New York.

Azken urteotan halako ondoez bat sentitu izan da itzulpen-teoriarren eta hizkuntzalarren artean: lehenek gaur eguneko linguistikaren kontzeptu eta tekniken erabilera sistematiko eskasa egin izan dute eta bigarrenak, berriz, onenean ere neutral agertu izan dira itzulpen-teoriaren aurrean. Liburu honetan azpimarratzen den ideietako bat zera da: itzulpenaren emaitza subjektiboki ebaluatzetik prozesuaren mekanismoak deskriptiboki eta objektiboki agerian jartzera pasatu behar dela. Izan ere, aldaketa hori egin ezean, itzulpen-teoria giza zientzien iharduera intelektualaren errepidetik kanpo geratuko da eta ez du lortuko dagokion lekurik izatea Linguistika Aplikatuaren baitan.

Azterketa honen helburua itzulpen-prozesuaren eredu integratu bat eraiki eta zuribidetzea da. Eredu honek sorburu-testuaren dekodaketa errepresentazio semantiko hizkuntz unibertsal bat sortzearekin lotzen du eta ondoren xede-hizkuntzako testu gisa birkodetzearekin bi hizkuntzen sintaxia, semantika eta pragmatika besarkatzen dituen maila askotako prozesu batean. Guzti hau giza informazioa prozesatzearen eredu orokorrago baten eta hizkuntz forma eta hizkuntz erabilaren teoria sistematikoko baten barruan kokatzen da. Aurretiazko eza-guera berezirik eskatzen ez duen azterketa muin-bakarreko hau mesedegarri gertatuko zaie itzultzaileei eta hizkuntzalaritzako ikasleei.

Obra hiru atal nagusitan banaturik dago: lehena *ereduari* buruzkoa da eta itzulpen ikuspegiak eta prozesuaren modulazioaz ari da. Bigarren atalak, *esanahi edo adieraziari* buruzkoak, hitz, esaldi, logika, gramatika, erreto-rika, testua eta diskurtsoa bezalako gaiak sakontzen ditu. Eta hirugarren

atala, *oroimenari* buruzkoak, testu-prozesaketa, informazioa, ezaguera eta oroimena bezalako gaiak lantzen ditu. Liburua linguistika eta traduktologiari buruzko bibliografia joriaz horniturik dator.

Xabier Mendiguren

Traduction et traducteurs au moyen age. Actes du colloque international du CNRS organisé à Paris, Institut de recherche et d'histoire des textes les 26-28 mai 1986. (Textes réunis par Geneviève Contamine). Editions du Centre National de la Recherche Scientifique, 15, Quai Anatole-France -75700 Paris, 1989.

Testuen Historiako Ikerketa-Institutuak antolaturik 1986eko maiatzaren 26-29 an erdiarolarien kolokio bat antolatu zen Parisen lau ardatzen inguruan: itzulpenak eta moldaerak, itzulpenak eta itzulpen-zentruak, jakintza-hizkuntzak eta hizkuntza bernakularrak eta motibazioak eta metodoak.

Sarrera gisa, Pergnier traduktologo ezagunak itzulpen-zientziaren inguruko gogoeta sakon bat eskaintzen du eta bertan bi multzo nagusitan biltzen ditu itzulpenari buruzko auzi teorikoak: a) hizkuntzen egiturek berek sortzen dituzten zailtasunekin zerikusia dutenak, b) hizkuntzaz kanpoko datuekin zerikusia dutenak (faktore soziologiko, psikologiko, kultural eta testualekikoak).

Lehen ardatz edo gai-multzoari dagokionez siriera, arabiera, latina, eslaboia, grekoa, georgiera, hizkuntza keltarrak eta errusiera zaharraren inguruko itzulpenei buruzkoa da.

Bigarren multzoan, itzulpen eta itzulpen-zentrueri buruzkoan, Eskoto Eriugena, Gerardo Kremonakoa, Amalfiko itzultzaileak, Kantuen kantua aramaierazko bertsioa, bertsio arabiar kristauak, Hego-Italiako itzulpen hagiografikoak, Sizilia eta Napoliko itzultzaile juduak eta bi interpretarien arteko itzulpenak (arabiera-bernakulua/bernakulua-latina) bezalako gaiak lantzen dira.

Hirugarren sailean, jakintza-hizkuntza eta hizkuntza bernakuluei buruzkoan, Erdi Aroko mundu brittonikoan itzulpena eta elebitasuna, Erdi

Aroan latinetik hizkuntza bernakuluetara egindako itzulpenak, itzulpena Erdi Aroko historiografian (*Chronique des rois de France*), XV mendeko frantses pastoralean itzulpenen toki eta eginkizuna gaiak aztertzen dira.

Eta laugarren eta azken sailean, mugikari eta metodoei buruzkoan, XII mendearen erdi aldetik XV mendearen azkenera arte hebraierara egindako itzulpenen motibazio eta metodoak, *translatio studii* eta XIV mendeko jakintza-testuen itzulpen frantsesak, Roger Baconengan hizkuntzak eta hiz-

kuntzek zuten zentzua eta Errenazimenduan izan zen hizkuntza unibertsalaren ideala gisako auziak jorratzen dira.

381 orrialde dituen liburu bikain hau apain argitaraturik eta autore eta obra, toki eta pertsona-izen, eskruizkribu eta kolokioko partaideen izenez horniturik dator eta, oro har, gainbegiratu on bat eskaintzen du Erdi Aroan itzulpengintzaren inguruan gertatu ziren gertakari nagusienei buruz.

Xabier Mendiguren

La traducción y la crítica literaria. Actas de las Jornadas de Hispanismo Arabe. Agencia Española de Cooperación Internacional. Instituto de Cooperación con el Mundo Arabe, Madrid, 1990.

1988ko maiatzaren 24-27ra bitartean Madrilen ospaturiko Arabiar Hispanismoari buruzko Ihardunaldietan esandakoez horniturik dago ia 500 orrialdeko liburu mardul hau. Hona hemen hurrenez-hurren liburuaren bederatzi sailetan ageri denaren aipamen laburra:

- I. Mariano Alonso Burón, Kulturako Institutu Hispano-arabiarraren zuzendaria, Luis Yáñez-Barnuevo, Nazioarteko Lankidego eta Iberoamerikarako Estatu-Idazkaria eta Juan Manuel Velas-

co Rami, Liburuaren Zuzendari Orokorren hitzaldiak.

- II. Valentín García Yebraren maisu-hitzaldia Arabieratik eta arabierarako itzulpena, Ekialdea eta Mendebaldearen arteko lokarri.
- III. Partaideen zerrenda.
- IV. Itzulpen-teknikari buruzko lan-saioa
- V. Literaturkritika. Arabiar gaia espainiar eta iberoamerikar literaturetan gaiari buruzko lan-saioa.

VI. Espainiar gaia idazle arabiarren baitan gaiari buruzko lan-saioa.

VII. Espainieratik arabierarako itzulpena gaiari buruzko lan-saioa.

VIII. Arabierazko testuen bilduma.

IX. Ondorioak.

Berauen artean bi urtez behin ihardunaldiak egitea, Arabiar Hispanismozko Idazkaritza Iraunkor bat sortzea, Arabismo boletinean arabiar hispanismoari buruzko sail bat eratzea hispaniar kulturako maisu-lanak arabierara eta alderantziz itzultzea proposatu UNESCOren arauak kontutan harturik.

Espainiar argitaletxe publiko eta pribatuei gero eta partaidetza handiagoa izatea eskatu Arabiar Herrialdetan

gero eta ugariago ospatzen diren nazioarteko bibliografi erakusketetan.

Aldizkako argitalpenen trukea areagotzea eta kultur lankidegorako sinaturiko egitarauetan begietsirik dauden arabierazko eta gaztelaniazko itzulpenak eragitea.

Arabiar Herrialde diferenteetako agintariek irakaskuntza ertainetan espainiera irakasteko egiten dituzten gestio guztiak bultzatu eta abar izan ziren ihardunaldien amaieran ondorio gisa egin beharrekotzat hartu ziren erabakirik nagusienak.

Berrogeitamasei partaide izan zituzten ihardunaldi hauek Argelia, Egipto, Espainia, Irak, Libano, Marokko, Siria eta Tunisiako aditu, irakasle eta idazleak bildu zituzten.

Xabier Mendiguren

X. MENDIGUREN, *Itzulpengintza. Historia eta teoria.* Elkar. Donostia 1992.

Xabier Mendiguren itzultzaile eta irakasleak oraingoan kaleratu duen liburua itzulpenaren historia eta teoria jorratzen dituen entsegu trinko bat da.

Martuteneko Itzultzaile Eskolako irakasle lanetan hasi eta bi urtera argitaratu zuen *Itzulpen-teoriazko ezagupenak* (1983) liburua osatu eta eguneratu du orain kalean dagoen honen bidez. Egileak hitzaurrean aitortzen duen bezala, aspaldian agortu zen lehen liburu hura idatzi zuenetik, alde batetik pauso berri eta ugariak eman

dira traduktologiaren alorrean, eta bes-tetik euskal itzulpengintzaren panorama ere nabarmen aldatu da, eta azken arrazoiaren froga garbietako bat liburu hau bera da.

Bi atal nagusi ditu liburuak, alde batetik itzulpenaren historia osatzeko bidean, Mendebaldeko itzulpen historiaren aspekturik garrantzitsuenak jasotzen ditu, tartean euskal itzulpenarena sartuz eta horrela gurea lehenengo aldiz historia zabal horren barruan txertatuz.

Bestetik, traduktologiaren ekarpenek betetzen dute liburuaren zatirik handiena. Itzulpenaren teoria asko daude gaur egun, eta askotan auzi gogorak ere sortu dira teoria horien defendatzaileen artean, eta auzi horien ondorioz gero eta literatura gehiago sortzen da eta sortuko da. Oihan zabala da beraz itzulpenaren teoriarena, eta bertan argia bilatu eta zuhaitz emankorak bereiztea lan handia eta luzea geratuko zitzaion Mendiguren irakasleari. Horrela, hautaketa bat egin beharrean aurkitu da, eta hutsuneak hutsune, ikuspegi zabal bat ematea lortu du. Bestalde, itzulpenaren jardunari buruzko teoria eta praktika uztartzen dituzten bost autore ezagunenek ekarpenei buruzko azalpenek osatzen dute itzulpen teoriari eskainitako atala; Vinay/Darbelnet, Taber/Nida eta Komisarov dira bost klasiko horiek, eta Antoine Bermanek prosa filosofiko eta literarioaren itzulpenerako egindako hausnarketak ere jasotzen ditu.

Azkenik, aipatzekoa da makina bidezko itzulpenari eta interpretaritzari ere atalxo bana eskaintzen dizkiela. Oso laburrak dira biak ere, baina garbi dago interpretaritzak bereziki ia liburu osoak adinako tartea beharko lukeela dauden azterketak laburbiltzeko. Nolanahi, atal guztiak bibliografia eta ohar ugariz osatuta daude, eta ezagutza maila ezberdinak osatzeko aukera bikaina eskaintzen dute.

Euskal itzulpengintzan azken hamarkadan pauso handiak eman diren arren, ia guztiak oso pragmatikoak izan dira, eta euskal itzultzaileon artean ez da egon teoriak irakurri eta aztertzeke joera handiegirik. Aitzakiarik ere izan

dugu horretarako, besteak beste bibliografia gehiena, ia guztia ez esatearren, atzerriko hizkuntzetan egotearena. Orain, eta abiapuntu gisa, badaukagu zuzenean itzulpengintzan edo linguistika edo beste zientzia batzuetan oinarrituz gure eguneroko jardunean aurkitzen ditugun hainbat eta hainbat arazo kontuan izanda egin diren hausnarketa teorikoak nahiz teoriko-praktikoak euskaraz ere irakurtzeko aukera. Maila honetan aipagarria da baita X. Mendigurenek alor honetarako egin behar izan duen lexiko lanke-ta, linguistika orokorraz gain itzulpenak eta traduktologiak eskatzen duten terminologia altxorra euskaraz finkatzeko pauso sendoak eman ditu.

Teoriaren eta praktikaren artean zubi asko daude eraikita, eta itzulpen ikasketetan ezik gure eguneroko itzultzaile jardunean ere interesgarria gerta dakiguke tarteka batetik besterako joan-etorri batzuk egitea. Batzuren-tzat, agian oso orokorrak izango dira liburu honetan jasotzen diren historiazko eta teoriatzko ekarpenen azalpenak, beste batzuren-tzat berriz agian urruti geratuko dira bertan esaten diren hainbat gauza. Nolanahi, garbi dago euskal itzulpengintzak eta bereziki itzulpengintzaren ikasketek behar dutela era honetako lanik, eta alde horretatik zorionak Xabier Mendigureni. Eta hainbeste urteko tarterik gabe aldizkari honetan bertan, gaur aipatzen ari garen liburu hau osatuko duten lan gehiago eta emankorren berri laster emateko aukera edukitzea atsegingarria litzaziguke.

Lurdes Auzmendi

BERRI ETA ALBISTE

Manu Lopezen Aliceren itzulpena IBBYren ohorezko zerrendan

Koldo Biguri

UNESCOren babespean dagoen Gazte-Liburuetarako Nazioarteko Batzarrak, edo ingelesez International Board on Books for Young people (IBBY) delakoak, irailaren hasieran Berlingen egindako biltzar batean, euskarazko itzulpen lan bat saritu du aurten, bere Ohorezko Zerrendan sartuz: Manu Lopezen *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian*, hain zuzen, Pamiela argitaletxeak 1989an argitaratu zuena.

IBBY haur eta gazteentzako literatura mundu osoan suspertzeko ahaleginetan diharduen elkarte bat da, literatura horren inguruko gaiak aztertzeko bi urterik behin kongresu batean biltzen dena, eta bilera horietan aurreko bi urteetan argitaratutako liburu batzuk aukeratzen dituena bere Ohorezko Zerrendan sartzeko; era horretan saritzen ditu bai idazleak, bai ilustratzaileak eta bai itzultzaileak ere, haien lana mundu osoko haur eta gazteentzako literatur bilduma batean sartuz. 1992ko Ohorezko Zerrenda 31 herritako 87 liburuk osatzen dute, haien artean, Manuren itzulpenarekin batera Mariasun Landaren *Iholdi* sorlana ere dagoelarik.

Hogeitahiru izan dira IBBYk era honetan saritu nahi izan dituen itzulpenak, eta haien artean dago, Espainiako Estatuaren ordezkari bakarra, Manu Lopezen *Alice* miresgarria, ohore hori lortzen duen

lehen euskal itzulpena. Bultzagarri polita izango da hau, zalantzarik gabe, Euskal Herrian haur eta gazteentzako literaturaren munduan biltzen diren idazle, ilustratzaile, argitaratzaile eta itzultzaileak OEPLIn (Organización Española Para el Libro Infantil) sar daitezen, eta, horrela, egiten duten lanak merezi duen ospea lor dezan bai kanpoan, bai gure artean ere. Bihoazkio horregatik gure zorionik beroenak Manu Lopezi.

Premio Nacional de Traducción 1992

Xabier Mendiguren

Seigarren aldia da Kultura-Ministraritzako Espainiar Letren Sai-lak Sari Nazionalak banatu dituela Narratiba, Saiakera, Espainiar Historia eta Itzulpen-alorretan.

Azken eremu honetan, finalisten artean, hamar obra zeuden hau-tagai: *La repetición*, Peter Handkerena, Eustaquio Barjauk alemanie-ratik gaztelaniara itzulia. *El puerto de Toledo*, Anna Maria Ortesere-na, Esther Benítezek italieratik gaztelaniara itzulia. *Iliada*, Homero-rena, Emilio Crespo Güemesek grekotik gaztelaniara itzulia. *Seis noches en la Acrópolis*, Yorgos Seferisena, Vicente Fernández Gon-zálezek greko modernotik gaztelaniara itzulia. *El inocente*, Ian McEwanena, Maribel De Juanek ingelesetik gaztelaniara itzulia. *Middlemarch* (I-II) George Eliotena, José Luis López Muñozek ingelesetik gaztelaniara itzulia. *El templo de Salomón*, Juan Bautista Villalpandorena, José Luis Oliver Domingok latinetik gaztelaniara itzulia. *Los mandarines*, Wu Jingzirena, txineratik gaztelaniara itzu-lia. *Invenciones*, Tommaso Landolfirena, Angel Sánchez Gijónek italieratik gaztelaniara itzulia. *A la ricerca del temps perdut* (3 tomo), Marcel Proustena, Jaume Vidal Alcover eta M. Aurèlia Capmanyek frantsesetik katalunierara itzulia.

Sari nazionala *Los mandarines* eta *Seis noches en la Acrópolis* obren itzultzaileen artean banatu da ex aequo.

Itzulpengintzan emandako bizitza osoarengatik saria, berriz, Esther Benitez Eiroa (15-4-1937) feroldarrantzat izan da. Filosofia eta Letretan lizentziatua, Filologia Erromanikoan eta Italiarrean espezialdua, Madrileko Konplutensean, eta bertan Doktoregoa egin. Udako kurtsoak Sorbonan eta Perugian emana da.

1972-1974 bitartean APETIren idazkari orokor izana eta 1979-1981 bitartean erakunde beraren presidente izan zen. 1983an ACEko (Asociación Colegial de Escritores) Liburu-Itzultzaileen Sail Autonomoa sortzen du, gero bertako presidente eta ondoren ACEren presidente-orde izateko.

1990an CEATLen presidente da.

1965az geroztik 100 titulu baino gehiago itzuli ditu frantses eta italieratik, besteak beste, honako autore hauen obrak: Boccaccio, Macchiavello, Manzoni, Pavese, Italo Calvino, Moravia, Pasolini, Buzzatti, Savinio, Maupassant, La Rouchefoucault, Victor Segalen, Zola.

Bestalde, 1992ko ekainean, Frantziako Kultura Ministrariak «Chevalier de l'Ordre des Arts et des Lettres» izendatu zuen, frantses literatura itzultzen egin duen lana saritzeko.

Literatur itzulpena graduondoko irakasgai Belgikan

Koldo Biguri

Literatur itzulpena eskola eta unibertsitate askotako lizentziatuen barruan lantzen bada ere, 1991etik hasita lehen aldiz irakasten da graduondoko lizentzia bezala, CETL (Europako Literatur Itzulpenarako Zentrua) delakoak, Bruselasko Institut Supérieur de Traducteurs et Interprètes de la Communauté Française-ren babesarekin, unibertsitate-ondoko prestakuntza ziklo bat (hirugarren zikloa) antolatu bait du filologian, hizkuntzetan, hizkuntzalaritzan edo itzulpengintzan lizentziatuta daudenentzat. Frantsesa da xede-hizkuntza bakarra, eta sorburu-hizkuntzak sei: holandera, alemaniera, ingelesa, gaztelania, italiara eta errusiera; dena dela, frantses hiztun ez diren ikasleek aukera osoa dute azterketara aurkeztu, eta beren memoria-lana ama-hizkuntzan idazteko.

CETL-ean ez dira «ex-cathedra» moduko ikastaroak eskaintzen, baizik eta literatur itzulpen praktikoa jorratzen duten mintegi eta lantaldeak, teoria hutsa alde batera utzirik. Horrela, ospe eta esperientzia handiko itzultzaileak, bai Beljikakoak, bai kanpokoak ere, dira horien ardura daukatenak.

Ikasketak astean bi egunekoak dira (hiruna ordu) eta osagarrizko hirugarren egun bat gaineratzen da hamabost egunero, eta ziklo osoa hirurehuna orduko bi sei-hilabetekotan banatzen da: lehenengoan, literatur itzulpenaren oinarritzko arauak eta teknika nagusiak irakatsi nahi zaizkio ikasleari; irailean azterketa bat egiten da, eta gutxienez hamarretik sei puntu lortu behar dira bigarren urtera igaro ahal izate-

ko. Eta bigarren sei-hilabetekoak genero berezien (antzerkia, poesia, narrazioa, zientzia-fikzioa, etab.) itzulpena du ardatz, giza zientzietarako hurbilpena ere egiten delarik. Bigarren urtearen bukaeran ere egiten da azterketa, eta zazpi puntu behar dira ikasketa-amaierako memoria-lana (ikasleak berak eginiko itzulpen oso bat, berari buruzko iruzkinekin) aurkeztu ahal izateko; lan hori ahoz defenditu behar da gero, itzultzailez eta argitaratzailez osaturiko epaimahai baten aurrean, eta aukera eman lezake argitaletxe batekin itzulpen hori plazaratzeko kontratua egiteko.

Graduondoko ikastaldi honen filosofiari dagokionez, Françoise Wuilmart, proiektuaren arimak dio literatur itzultzailearen talentua ere irakats daitekeela, pianojole batena irakatsi eta hobe daitekeen bezalaxe. Bere eritziz, talentua beharrezkoa da hasiera-hasieratik, baina bakarkako autoprestakuntzaren bide zail eta gogorra labur daiteke, hasteko, aurreko tradizioa ezagutuz, horrela ikasleak jakin dezan zeintzuk diren saihestu beharreko akatsak, eta beren neurri zuzenean epai ditzan bere aurrekoek hartutako erabaki eta irtenbideak. Ondoren, bere talentua hobeto fintzen lagunduko dioten tresnak eskuratu behar zaizkio ikasleari, oinarri teorikoak emanaz, bai, baina batez ere hainbat eta hainbat ariketa praktiko egeneraziz.

Wuilmart andreak baiezten duen bezala, anarkiarik handiena da nagusi literatur itzulpenean, hainbat arrazoiengatik: itzultzailearen prestakuntza eskasa, lanari ematen zaion balioespen eta ordainketa txarra, argitaratzaile askoren axolagabekeria, etab.; horregatik, askoz gehiago dira literatur itzultzaile txarrak eta, beraz, itzulpen txarrak, onak baino, eta horrek «bestearen kulturaren triskantza» ekarri du, eta ekartzen du oraindik ere. Gauzak horrela, kulturarteko eztabaidaren gai funtsezkoa izan behar du literatur itzultzailearen prestakuntzak, gainontzeko itzultzaile eta interpretariena den bezala.

Literatur itzulpena orain arteko autodidaktismoaren esparrutik ateratzeko saio honek arrakasta handia lortu du berehala, lehendabiziko urtean hirurogeita hamabost ikasle inguru matrikulatu izanak frogatzen duen bezala.

EIZIE Europako literatur itzultzaileen elkarteen kontseiluan onartua izango da

Koldo Biguri

Balantzian, 1992ko urriaren 19tik 22ra bitartean, Europako Literatur Itzultzaileen Elkarten Kontseiluak (CEATL) egindako urteko batzarrean, EIZIEk bere eskaria aurkeztu zuen kontseiluko kide izateko, eta badirudi datorren urteko batzarrean gure hautagaitza onartua izango dela. CEATL erakundea 1990ean sortu zen, nahiz eta lehenagotik, 1986tik zehazkiago, nazioarteko elkarte bat sortzeko asmoa egon bazegoen, eta ez Hamabien Europara mugatua, Europa Handiko literatur itzultzaileen elkarte guztietara irekia baizik. CEATL delakoa literatur itzultzaileak Europako Komunitatearen eta Europako Kontseiluaren aurrean ordezkatzeko dituen saila da, eta bere estatutuen arabera, honako hauek dira bere helburuak:

- Literatur eta giza zientzietako obren itzulpenaren kalitatea suspertzea.
- Literatur itzultzailearen estatus material, moral eta juridikoa babestea bazkide diren herrialde guztietan.
- Elkarte kide guztien arteko lankidetzeta ziurtatzea, informazio truke etengabea lortzeko.
- Europako Elkartearekin zuzenean tratatzea literatur itzulpenari eta itzultzaileei dagozkien gai eta erabaki guztiei buruz (batez ere, beka, dirulaguntza, sari, kontratu eta abarrei buruz).

Balentziako *Generalitate*ko Kultur Kontseilaritzak gonbidaturik, eta Kultur Ministraritzaren Libururako Zuzendaritza Nagusiaren babesarekin, Europako hemeretz herrialdeetako (EEkoak, eta, haiekin batera, Austria, Errepublika Txekoa, Eslobakia, Finlandia, Noruega, Suedia eta Suitza) elkarteen ordezkariak literatur itzultzaileen egoera gonbaratu, bateratu eta hobetzera zuzendutako hainbat ekimen eztabaidatu zituzten. Kontutan harturik zenbait alorri dago-kionez alde handiak daudela (ordainak, jabego intelektualaren legea, liburutegietako mailegu publikoa, liburuak fotokopiatzeko eskubi-dea...), CEATLen burubide nagusia, hots, elkarlanean aritzea era guztietako mugen gainetik, zuzena dela berretsi zen.

Europako Elkartearen esparrua gaintitzen duen elkarte profesio-nala izateak halako arazo batzuk dakartza, CEATLek, zentzu horretan, aurre hartu bait die nazioarteko erakundee motelei. CEATLen asmoa da Europa Handiko nortasunari heltzea, eta horrela Europako Ekialdeko herrietako zenbait elkarte, bai eta eremu urriko hizkuntze-tako itzultzaile elkarteak (EIZIE, esaterako) ere atsegin handiz onar-tuko bait ditu bere baitan.


Batzarrear Administrazio Batzordea berritu zen, eta gaur egun Espainiak (lehendakaria), Suediak eta Frantziak (lehendakariordeak), Belgikak (idazkaritza nagusia) eta Suitzak (kanpo harremanak) osa-tzen dute. Horretaz gainera, CEATL Europako Idazleen Kongresua-ren bazkide izatea erabaki zen —Euskal Idazleen Elkarteak ere baz-kide izateko eskaria egina du—; izan ere, Europako hainbat herrial-deetako idazle elkarteak biltzen dituen erakunde hau itzultzaileentzat ere interesgarria da, literatur itzultzaileen egoera profesionala arau-tzen duen jabego intelektualaren legea idazleei aplikatzen zaien ber-bera da. Dena dela, CEATLen eritziz, literatur itzulpena bezalako sorlan bat, berezko dohaiekin batera halako prestakuntza egokia ere behar duena, ezin da muga korporatibista batzuen barruan itxi (titu-lazioa, kolegiazioaren ezinbestekotasuna), asmo onekoak izanda ere.

Azken finean, irakurtzeko zaletasuna suspertzea eta, lanbideaga-tik edo aisitarteak betetzeko, ekintza horretan aritzen direnei ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea bilatzen da; izan ere, era guztietako

idazlanen irakurleen artean gero eta ardua gehiago dago gai guzti hauei buruz, itzalpean geratu ohi diren itzultzaileen esker norbere hizkuntzan idatzita ez dauden liburuak irakur daitezkeela bait dakite. CEATL elkarteak literatur itzultzaileen eskubideak babestu nahi ditu, beren lanak merezi duen aitortzen izan dezan, bai publikoaren aldetik, bai argitarapen alorreko profesionalen eta erakunde publikoen aldetik.

Huts aitortpena

Joan den urteko 2-3 zenbakian, arazo tipografiko bategatik ez zen sartu taula bat Josu Zabaletaren «Hedadura txiki eta ertaineko hizkuntzetako itzulpena aztertzeke zen aldagai bakantzeke saioa» artikuluan, aldizkariko 33. orrian. Horregatik, hutsa aitortu eta konpondu nahi dugu, esandako taula hona ekarriz.





Gaiak

Ale honetan / Andu Lertxundirekin itzulpengintzaren jiran / Itzulpen historia baterako apunteak / Itzulpenera hurbiltzea (I). Zenbait errezeta / Poesia itzuli / Itzulpena Nafarroako Gobernuan eta Parlamentuan / Espainiako Itzulpen eta Interpretaritzaren estatutu profesionala / Terminologi lana. Bideak zabaltzen / Itzulpengintza Masterra. Planifikazio baten beharra / Deustuko Postgraduko Itzulpen Masterra / Euskara ikasten / Literatur itzulpenezko mintegia / Beti mirariak egiten / KLASIKOAK, euskal hizkuntza eta kulturaren zu-tabe / Pushkin itzultzaile / Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea / Bibliografia / Manu Lopezen *Aliceren* itzulpena IBBYn / Premio Nacional de Traducción 1992 / Literatur itzulpena graduondoko irakasgai Belgikan / EIZIE CEATL-en onartua izango da